

herritarrekin

Parte Hartzeko sistemak eta II. topaketa



***Parte Hartzeko sistemak eta
II. topaketa***

2012ko ekaina - 2013ko otsaila



Aurkibidea

Sarrera	5
1 Parte hartzeko sistemak	7
1.1 Lantaldeetan egindakoa	8
1.1.1 Herri txikien lantaldea	9
1.1.2 Herri txiki-ertainen lantaldea	13
1.1.3 Herri ertainen lantaldea	18
1.1.4 Herri handien lantaldea	20
1.1.5 Balorazioak	26
1.2 Parte hartzeko sistemak	28
1.2.1 Herri txikien Parte Hartzeko Sistema	28
1.2.2 Herri txiki-ertainen Parte Hartzeko Sistema	33
1.2.3 Herri ertainen Parte Hartzeko Sistema	36
1.2.4 Herri handien Parte Hartzeko Sistema	48
II. Topaketa	59
2.1 Topaketako hainbat datu	60
2.2 Topaketaren helburuak	62
2.3 Planteamendu metodologikoa	62
2.4 Topaketak emandakoa	64
2.4.1 Girotzeko ariketa eta sarrera	64
2.4.2 Oscar Reboloren hitzaldia	65
2.4.3 Lantaldeen aurkezpenak	65
2.4.4 Talde-lanean	82
2.4.5 Balorazioa	90



Sarrera

Herritarrekin sarea eratzeko prozesuan, behin baino gehiagotan azaldu zen parte hartzeko sistema baten beharra, herritarren parte-hartzea nola, noiz, nork, norekin eta abar gauzatu behar den adieraziko zuen berariazko sistema baten premia edo oinarria edukitzea.

Nahi edo premia horri erantzun nahirik, herrien biztanle-kopuruaren arabera 4 lantalde jarri genituen abian 2012an, helburu nagusi hauekin: parte-hartzeaz hausnartu eta gakoak identifikatu ondoren, parte hartzeko sistemak eraikitzea eta parte hartzeko diskurtsoan sakontzea.

Lantalde horietako bakoitzak bere kasa jardun du, bere helburu, egutegi, funtzionamenduarekin..., eta gogoeta egin ondoren, egindako lanak hainbat proposamenetan gauzatu zituzten, 2012. urtearen amaieran. Orduan, pentsatu genuen une egokia zela egindakoa aurkezteko, erakusteko, konpartitzeko... Horretarako antolatu genuen Herritarrekin sarearen II. Topaketa, Hernanin, 2013ko otsailean: lan horiek guztion aurrean azaldu eta osatzeko.

Horrekin batera, ordea, beste helburu bat ere izan genuen II. Topaketan. Egiten dugunetik etengabe eta elkarrengandik ikastea eta horren berri izatea ondo dago, beharrezkoa da, baina uste dugu aldi berean urrutiragoko edo kanpoko ikuspegia ere izan behar dugula, beste leku batzuetan zer egiten duten jakin. Horregatik, hain zuzen ere, II. Topaketa honetara Oscar Rebollo Kataluniako irakasle eta aditua gonbidatu genuen, parte-hartzean eta bereziki parte hartzeko sistemen inguruan bere iritzia gurekin konpartitzeko.

Herritarren parte-hartzea areagotzeko eta sendotzeko bidean, II. Topaketa honekin beste urrats bat egin dugu aurrera, eta Oscarrek esan zuen bezala, pixkanaka ari gara eraikitzen parte hartzeko arkitektura, egitura, etxea. Baina pertsonarik gabe eta horien arteko harreman egokirik gabe arkitektura hori eraikin hotza eta hutsa besterik ez da izango, eta ahalegindu behar dugu elkarren artean parte hartzeko harremanak izan daitezen, gizarte-ehuna josi eta sarea eratzen. Horretan ari gara, eta horretan aritzeko asmo sendoa daukagu etorkizunerako.

Amaitzeko, eskerrik beroenak eta zorionak eman nahi dizkiet era batera edo bestera lan honetan beren ekarpena egin duten guztiei. Asko izan gara. 50 udaletako 65 lagunek elkarrekin landu eta eraikitakoa da eskuetan duzun txosten honen edukia. Amaitzeko, eskerrak eman dizkiot Hernaniko Udalari, Topaketarako egindako harrengatik eta emandako erraztasun guztiengatik.

1

Parte
hartzeko
systemak

1.1.Lantaldeetan egindakoa

“Herritarrekin” sarea eratzeko prozesuan, 2012ko urtarriletik martxora, agerian geratu zen herriaren tamaina edo biztanle-kopurua oso kontuan hartzeko alderdia zela, sarritan herri horiek antzeko ezaugarriak zeuzkatelako, faktore horrek beste zenbaitek (adibidez, kokaleku geografikoak) baino gehiago eragiten zuelako. Prozesu hartan, herriak taldeka lanean aritu zirenean, sarritan biztanle-kopuruaren arabera antolatu genituen, eta, aurrera begira, baloratu zen positiboa zela etorkizunean ere horrela jardutea.

Sarea eratzeko prozesuan, parte-hartzaileek adierazitako behar nabarmenenetako bat izan zen herri-tamainari ahalik eta gehien egokitutako parte hartzeko sistema eratzea. Horri erantzun nahian, proposatu zen berariazko lantaldeak eratzea, biztanle-kopuruaren arabera. Horrela, lau lantalde sortu ziren:

- 1. Herri txikiak, 0-1.000 biztanle artekoak
- 2. Herri txiki-ertainak, 1.001-5.000 biztanle artekoak
- 3. Herri ertainak, 5.001-10.000 biztanle artekoak
- 4. Herri handiak, 10.000 biztanletik gorakoak

Gero, lehen hiru lantaldeak martxan jarri ondoren, baloratu zen bazeudela herri batzuk hortxe muga zeudenak txiki-ertainen eta ertainen artean, eta erabaki zen muga 5.001 biztanletik 4.001era jaistea eta mugako horiei aukera ematea nahi zuten taldea hautatzeko.

Ondorengo ataletan laburbilduko dugu lantalde bakoitzak egindakoa, tamainaren arabera, herri txikietatik hasita handietara.





1.1.1. Herri txikien lantaldea

PROZESUAREN HELBURUAK

Parte hartzeko prozesu honen helburuak honakoak izan dira:

HELBURU OROKORRA

▸ Gipuzkoako herri txikietako parte hartzeko sistemaren inguruko hausnarketa burutzea, parte hartzea ahalbidetzeko moduak eta baldintzak zehaztuko duten eredu proposamena zehaztuz.

HELBURU ZEHATZAK

- Udalerrri txikietan egiten diren praktika parte hartzaileen gaineko auto-diagnosia egitea.
- Udal dinamikan herritarren parte hartzea sustatzeko moduak eta oinarriak hausnartu eta dauden beharrei erantzuteko bideak topatzeko saiakera burutu.
- Gipuzkoako herri txikietako taldea gorpuztu eta kohesionatu. Bere izaera heterogeneoa ulertu eta errespetatu, interes partekatuak bilatu eta hausnarketari izaera partekatua erantsi.
- Udaletako zinegotzi eta teknikariei aholkularitza tekniko puntuala eskaini herriek lehenetsitako parte hartzeko diseinuetan.

PROZESUAREN URRATSAK

Parte hartzeko prozesu honek diseinu logika jakin bati erantzuten dio. Herri txikietan garatu beharreko parte hartzeko sistema definitzea helburu nagusi izanik, esperientzien auto-diagnosiari garrantzia eskaini zaio marko ideal eta errearen arteko oreka bilatu asmoz.

Prozesuan zehar emandako urratsen hurrenkera honakoa izan da:

- Prozesuarekiko espektatibak esplizitatu
- Auto-diagnosia (zertan ari gara/elementu komunak aztertu)
- Parte hartzeko sistemaren definizioa, aurrera begira abiatu nahi dugun eredu definitzen hasteko asmoz; betiere plano ideala eta erreala (auto-diagnosiak eskaini diguna) uztartuta. Definizio hau mailakatze honi jarraituta burutu dugu:
 - Erronkak
 - Ezaugarriak
 - Erabakitze guneak
 - Parte hartzeko mekanismoak
- Prozesuaren balorazioa. Espektatiben betetze maila. (Prozesua eta emaitza)
- Azken urrats gisa, eta balorazioaren baitan identifikatutako beharra izanik, parte hartzeko dinamikak ezartzeko dauden beharrei nola erantzuteko gogoeta praktikoa burutu dugu.



PARTAIDEAK

Guztira 18 herritako ordezkariak hartu dute parte prozesuan zehar. Parte-hartzearen maila gorabehera izan da, saio batetik bestera desberdintasun anitz egon baitira.

Guztira, 9 herri modu iraunkorrean parte hartu dute (3 saio behintzat), modu honetan Prozesu honek Herri Txikietakoko taldea gorpuzteko balio izan duela esan daiteke.

	1.SAIOA	2. SAIOA	3.SAIOA	4.SAIOA	5.SAIOA	6.SAIOA
Abaltzisketa		X	X	X		
Aduna	X					
Albiztur	X	X	X	X	X	
Alkiza		X				
Altzo	X					
Arama	X	X	X		X	
Baliarrain		X				
Berrobi		X				
Errezil				X		
Ezki-Itsaso		X	X	X	X	
Gaintza		X	X		X	
Gaztelu		X				
Hernalde		X				
Itsasondo	X	X		X	X	
Ikaztegjeta		X				
Mutiloa	X	X	X	X	X	
Orendain		X	X	X	X	
Zerain		X (2)	X	X		
GUZTIRA	6	15	8	8	7	

ABIAPUNTUA. PARTE-HARTZEAREN EGOERA

Herri bakoitzeko esperientzietatik abiatuta, eta norbera inplikaturik dagoen (edota egon den) proiektuaren oinarrian, herri txikietakoko parte-hartzearen egoera islatzeko aldeko eta kontrako faktoreak honela adierazi dituzte partaideek:

ORAIN ARTE LANDUTAKOAREN ASPEKTU POSITIBOAK	ORAIN ARTE LANDUTAKOAREN ASPEKTU NEGATIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Jendearen esker ona - Parte hartzeak erabakiak hartzen laguntzen du - Informazioa eta erabakiak partekatzea zilegitasuna eskaintzen du eta udala eta herritarren arteko gertutasuna sortu - Herri txikietan ematen den komunikazio zuzena (ahoz aho) - Deialdiaren garrantziaz jabetu izana - Batzarreetan lana banatzea. Ondo funtzionatzen dute Herritarrak kudeaketan inplikatzen dira - Parte hartzearekiko gogoia eta ilusioa udaletan 	<ul style="list-style-type: none"> - Jende gutxi eta normalean "beti berdinak" - Jendearen iraunkortasun falta - Gaiak indibidualki ukitzen ez badu azaldu ere ez - Gazteak erakartzeko zailtasunak - Informazio gehiegi eskaintzen da "Bonbardeo" sentsazioa (parte hartzeko eskaintza handia) - Batzarretan jendearen iritzia jasotzeko zailtasunak (metodologia) - Erabakiak hartzeko mekanismo gabezia



Lehenengo hurbilpen orokorraren ostean, eta orain arteko esperientzia parte hartzaile nagusiak aztertuta, "Zertan gabilta egun gure herrietan?" galderari erantzun nahi izan diogu. Nolako formatuak diren nagusi eta ze beharrei erantzuteko planteatzen ditugun erantzun asmoz, asmatzen ari garen hori baloreari jarri eta hutsu-neak birnorabidetzen hasteko.

ZERTAN GABILTA?

INFORMAZIO KUDEAKETA

- Balorazio ona. Gardentasuna eta legitimitatea eskaintzen digu.
- Hobetzeko aspektua: Etxez etxeko komunikazioa sustatzea.

HERRI BATZARRAK

- Gune nagusia dira. Hobetzeko aspektuak:
- Erabakigarriak izateko urratsak ematea
 - Metodologia parte hartzailea (denek iritzia ematea)

BATZORDEAK

Herritarren parte hartzerako Iraunkortasun falta antzematen da, kostatzen da batzordeetara jendea animatzea. (Nola lortu?)

KULTUR EKIMENAK

Parte-hartzearen maila handiagoa izaten da hauetan (Autoantolaketa ereduak garatu ohi da hauetan-jaiak, aisia...)

ERABAKI ESTRATEGIKO ZEHATZAK

- Ekimen parte hartzaile desberdinak (Prozesua/Momentua)

FORMATU PARTE HARTZAILEAK

Noraeza daukagu eta ezagupen falta ere. Honetan trebatzearen garrantzia azpimarratzen da, formatu desberdinen araberako aholkularitza beharrezkoa dugu.

PARTE HARTZEA SUSTATZEKO BEHARRAK

Herri txikietako diagnostik abiatuta, behar hauek detektatu dira:

- Deialdiak eraginkorrak izatea. Komunikazio zuzena garatu herritarrekin.
- Gazteak NOLA hurbildu/erakarri? (hutsune nabaria dago)
- Batzar irekietarako METODOLOGIA parte hartzaileen gabezia (gida)
- Parte-hartzearen Aniztasuna ("BETI BERDINAK" sentsazioa gaintu). Aniztasuna maila desberdinetan sustatzearen beharra dugu: generoa, adina, jatorria, hizkuntza, ideologia politikoak.
- Parte hartzeko iraunkortasuna bermatu/mantentzeko bideen inguruan hausnartzea beharrezko dugu; zaila egiten da inplikazioaren iraunkortasunerako moduetan asmatzea.

PARTE-HARTZEAREN ERRONKAK

Behin diagnosis zehaztuta, parte-hartzearen eremu zabalean jarraitu nahi diren erronkak edo helburuez eztabaidatu da. Hona hemen sorturiko edukia:

OROKORRAK/ESTRATEGIKOAK:

- Kultura parte hartzailea sustatu
- Herri sentimendua (komunitatea) hedatu



- Udaleko boterea herriratzea

KOMUNIKAZIOA:

- Deiak zabaldu etxe guztietara
- Ezer ez ezkutatu, beti egia (Gardentasuna)
- Informazio zehatza ematea eta ahal bada aurrez aurreko komunikazioa lehenetsi

HAUSNARKETA (Barne lanketa):

- Herriaren parte hartzea eta inplikazioa lortzeko hausnarketa eta lana

PARTE-HARTZEAREN FILOSOFIA:

- Parte hartzeko guneek erabakigarritasuna izatea
- Parte hartzeko prozesu iraunkorrak diseinatzea
- Herri plana landu, garatu eta datozen urteetan zer eta nola egin zehaztu
- Gai estrategikoen inguruan (hauek zeintzuk diren zehaztu) herritarren iritzia bilatu (Herri erabakiak)

MEKANISMOAK: (eta Metodologia)

- Gaien eta edukien erakargarritasuna sustatu
- Metodologia/teknika parte hartzaileetan sakontzea (herritarren iritzia biltzeko moduak bilatu)
- Batzar asko egin gabe urtean zehar, jende multzo garrantzitsua biltzea eta inplikazio maila “normal” bat lortzea edozein gaia dugula tartean. (Herri Batzarrak)

AHOLKULARITZA-SISTEMA

Parte hartzeko prozesu honen diseinuaren baitan herri txikiei aholkularitza puntuala izateko aukera eskaini zaie ere, izan abian dituzten proiektuen inguruan edo abiatu nahi dituzten berrien inguruan.

Gipuzkoako herri txiki guztiei egin zaie eskaintza korreo elektronikoa zein telefono bidezko komunikazioan, prozesuaren aurkezpen eta gonbite komunikazioaren baitan.

Lehenengo bi saioetan partaideekin batera aholkularitza sistema definitzeko tartea zabaldu genuen eta hau garatzeko prozedura eta kronograma ezarri. 4 izan dira aholkularitza eskatu duten herriak: Zerain, Mutiloa, Orendain eta Albiztur. Jarraian, egitasmo hauen zehaztasunak eskaintzen dituen koadroa aurkezten da:

HERRIA	EGITASMOA	EGOERA
Zerain	Auzolana iraunkortzako herri antolakuntzarako diseinua	Diseinuaren zehaztapen eta egokitzapen fasean
Mutiloa	Agenda 21aren eraberritzeko antolaketa diseinua	Egitasmo diseinu proposamena aurkeztuta eta udal ordezkariekin batera egokitzapenak eginda
Orendain	Agenda 21aren eraberritzeko antolaketa diseinua	Egitasmo diseinu proposamena aurkeztuta eta udal ordezkariekin batera egokitzapenak eginda
Albiztur	Udal Parte-hartzearen herritarren balorazio egitasmoa	Herri galdetegia egiteko diseinu proposamena helarazita udal ordezkariari. Galdetegia Aztikerrek garatzeko proposamenari erantzuna aztertzen ari da udala (dirulaguntzak).



1.1.2. Herri txiki-ertainen lantaldea

PROZESUAREN HELBURUAK

Parte hartzeko prozesu honen helburuak honakoak izan dira:

HELBURU OROKORRA

▸ Gipuzkoako herri txikietako parte hartzeko sistemaren inguruko hausnarketa burutzea, parte hartzea ahalbidetzeko moduak eta baldintzak zehaztuko duten eredu proposamena zehaztuz.

HELBURU ZEHATZAK

- Udalerrri txiki-ertainetan egiten diren praktika parte hartzaileen gaineko auto-diagnosia egitea.
- Udal dinamikan herritarren parte hartzea sustatzeko moduak eta oinarriak hausnartu eta dauden beharrei erantzuteko bideak topatzeko saiakera burutu.
- Gipuzkoako herri txiki-ertainetako taldea gorpuztu eta kohesionatu. Bere izaera heterogeneoa ulertu eta errespetatu interes partekatuak bilatu eta hausnarketari izaera partekatua erantsi.

PROZESUAREN URRATSAK

Parte hartzeko prozesu honek diseinu logika jakin bati erantzuten dio. Herri txikietan garatu beharreko parte hartzeko sistema definitzea helburu nagusi izanik, esperientzien auto-diagnosiari garrantzia eskaini zaio marko ideal eta errealaren arteko oreka bilatu asmoz.

Prozesuan zehar emandako urratsen hurrenkera honakoa izan da:

- Prozesuarekiko espektatibak esplizitatu
- Auto-diagnosia (zertan ari gara/elementu komunak aztertu)
- Parte hartzeko sistemaren definizioa, aurrera begira abiatu nahi dugun eredia definitzen hasteko asmoz; betiere plano ideala eta erreal (auto-diagnosiak eskaini diguna) uztartuta. Definizio hau mailakatze honi jarraituta burutu dugu:
 - Erronkak,
 - Ezaugarriak,
 - Erabakitze guneak
 - Parte hartzeko mekanismoak
- Prozesuaren balorazioa. Espektatiben betetze maila. (Prozesua eta emaitza)

TALDEA ETA PARTE HARTZAILEAK

Guztira 9 herrietako ordezkariak hartu dute parte prozesuan zehar. Parte-hartzearen maila gorabeheratsua izan da, saio batetik bestera desberdintasun anitz egonik.

Guztira, 4 herrik modu iraunkorrean parte hartu dute (3 saio behintzat, herri ertain txikietako oinarria jartzeko baliagarria izanik).

Hona hemen saio bakoitzeko parte hartzaile kopurua:



	1.SAIOA	2. SAIOA	3.SAIOA	4.SAIOA	5.SAIOA
Anoeta			X	X	
Antzuola		X (2)			
Asteasu			X	X	X
Getaria		X			
Irura	X				
Ormaiztegi		X	X	X	X
Segura			X	X	X
Zaldibia	X	X	X		X
Zizurkil	X	X			
GUZTIRA	3	5	5	4	4


ABIAPUNTUA. PARTE-HARTZEAREN EGOERA

Herri bakoitzeko esperientzietatik abiatuta, eta norberak inplikaturik dagoen (edota egon den) proiektuaren oinarrian, herri txiki-ertainetako parte-hartzearen egoera islatzeko aldeko eta kontrako faktoreak honela adierazi dituzte partaideek:

ORAIN ARTE LANDUTAKOAREN ASPEKTU POSITIBOAK	ORAIN ARTE LANDUTAKOAREN ASPEKTU NEGATIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Udala eta herriko taldeen arteko harremanak erraztu dira - Kultura politiko desberdina sustatzearen sententzia - Udaletxearen ateak zabaldu dira - Gardentasuna - Komunikazio zuzena lantzen ari da udaletxe eta herritarren artean - Gertutasuna - Herritarren boteretzeko kontzientzia lantzen ari da - Herritarren iritzia aintzat hartzen ari diren sententzia zabaldu da - Emaizak (politikak-erabakiak) hobetu dira herritarren babesarekin - Parte-hartzearen kontzeptio (ulerkera) zabaldu da. 	<ul style="list-style-type: none"> - "Betiko" jendea parte hartzen duen sententzia - Parte hartzeko formatuetan ez asmatzearen sententzia - Kultura klientelista (herritarra kexatu eta eskatu) ezin apurtzea (kostatzen da). - Parte hartzea (batzar, bileretan) iraunkorra ez izatea. (Puntualki bai, baina iraunkorki ez). - Dinamika gehiegi dagoen sententzia (udala, diputazioa, mankomunitatea...) - Parte hartzeko gune asko dago, udalaren partetik bonbardeo gehiegi dago. - Herri txikietan pertsona gutxi dago eta batzordeak/egitura gehiegi (zinegotzi bakoitzeko arlo bat baino gehiagoren arduradun). - Herritarrenganako ilusio nola piztu ezin asmatu.

UDAL SOZIOGRAMA

Dinamika honekin udalak bere jardun parte hartzailean herritar sektore desberdinekin duen harreman/gertutasuna neurtzeko ariketa planteatu dugu.



Dinamika honen bitartez honako ondorioak bildu ziren nagusiki:

Udal egitura eta funtzionamenduaren baitan badira urrun sentitzen diren eragile edota sektoreak, aurrerantzean aintzat hartu eta beraiei begirako lanketa berezia egitea eskatzen duena.

- Herriko elkarteekin harremanak sendotu eta lan bateratua garatzea garrantzitsu ikusten da.
- Etorkinak udal dinamikatik isolatuta daude. Ikuspegi paternalista batetik urrunduta gerturatzea garrantzitsu ikusten da.
- Gazteak oro har aldentuta sentitzen dira udaletik eta bere dinamikara hurbiltzeko zailtasun handiak daude. Hurbiltze moduetan eta parte hartzeko formatuetan asmatzea ezinbestekoa da.
- Emakumeak parte hartzeko ohitura gutxiago dute. Errealitate hau aintzat hartu behar da; batez ere nagusien adin tartean ematen da errealitate hau.

PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ZALANTZAK

Herri txiki-ertainetako diagnostik abiatuta, herritarren parte hartzearekiko zalantza hauek detektatu dira:

- Jendeak ez badu parte hartzeko asmorik, zergatik tematu arrakasta izango ez duten gaietan? Iritzi batek dio egungo kultura komunitarioa ahula dela eta jendea iritzia emateko prest badagoela baina epe luzera inplikatzeko ez. Honen aurrean galdetegiak/inkestak badira behar honi erantzuteko modu eraginkorra
- Programa/proiektua eta parte hartzea? Zilegi al da parte hartze bidez erabakitzea berez programa batean bilduta dagoen erabakia? Herritarrak ez al dio balidaziorik eman gai horri? Programaren ikuspegitik (eta programa bakoitzak biltzen duen proiektu politikoa) zer dugu galtzeko eta irabazteko parte hartzeari ateak irekita?
- Errealismoa izan behar du BETI udalaren abiapuntua. Desioak errealitatearekin nahastea arriskutsua izan daitekeela adierazten da, eta, hortaz,
- Abiapuntua, nondik abiatzen garen ezin ahaztu (kontzientzia komunitario ahulduta, udala zerbitzu hornitzaile



gisa baino ez ikusten herritarren gehiengoak)

- Kultura parte-hartzailerik egon ez den herrietan, ez du merezi batzarrekin hastea. Jendearen gogo eta beharrekinekin konektatzea ezinbestekoa da. Jaia/kultura/kirolan badago parte hartzeko eta inplikatzeko motibazioa, gainontzeko kontuetan ez. Hor trantsizio motelagoa egin behar da, bestela jendeak ez du erantzuten, ez duela-ko batzar batean parte hartzeko ohiturarik eta motibaziorik.

PARTE-HARTZEAREN ERRONKAK

Behin diagnosis zehaztuta, herritarren partaidetzan lortu nahi diren erronkak edo helburuez eztabaidatu da.

Hona hemen sorturiko edukia:

OROKORRAK/ESTRATEGIKOAK

- “DENOK GARA UDALA” sentimendua hedatu. HERRI kontzientzia
- Zentralizazioa puskatu. Dena Udalak ez egitea
- Parte-hartzearen onurak ikustarazi

UDALAREN GERTUTASUNA

- Udaleko ateak HERRITARREI ireki
- Herritarrak INTERESA erakutsi eta bertaratu

INFORMAZIO/KOMUNIKAZIO ILDOA LANDU

- Informazio GARDENTASUNA
- Informazioa bateratu-deialdiak
- Iristeko komunikazio tresna egokiak erabili
- Jendea erakarri. Deialdia, ordu egokia, interesa piztu
- Webgunean PHa landu (elkarteak, norbanakoak)

ELKARTEGINTZA SENDOTU

- Elkarrekin interakzioa hobetu. BETI BETIKOAK EZ izatea
- Gertutasuna bilatu sektore gehiagorekin (gazteak, etorkinak, ...)
- Parte hartzeko sarea osatu herrian

UDAL ERABAKIETAN PARTAIDETZA SUSTATU

- Udal erabakietan Herritarrak partaide sentiarazi
- Parte hartzeko sistema aurretik landu. NOLA? NORTZUK? NORENTZAT?
- Herri Batzarrak erabakigune izatea

TALDEA AURRERA BEGIRA

Tamainako lan talde honen existentziaren inguruan galdegin zaie taldekideei, aurrera begirako funtzioen inguruan hausnarketa egin dezaten. Talde honen beharrak norabide honetan aipatu dira:

- Esperientziak partekatu. Herri bakoitzak garatu dituen esperientzia praktikoen gainean azterketa eta hausnarketa egitea.



- Gure taldeko Helburuak zehazteko, helburu partekatuak. Gure taldearen (txiki-ertainak) urteko helburuak (planifikazio gutxienekoa) zehaztu.
- Terapia egiteko. Dauzkagun hutsuneak partekatu eta elkarrengandik ikasi.
- Aholkularitza beharrezkoa dugu, gure aurrekontuek ez digute aholkularitza kontratazioa ahalbidetzen.
- Formakuntza udaleko pertsona guztiei zabaldu (ordezkari politikoak, teknikariak, langileak, ...).

NOLA ANTOLATUKO GARA? NOIZ?

Hona hemendik aurrera talde hau antolatzeko aipatu diren zenbait irizpide:

- Izena aldatu behar diogu taldeari, “Txiki-ertain” kontzepzioak ez dio ondo erantzuten gure errealitateari.
- Talde honetan teknikari/langile falta dugu (orain artekoa)
- Urtean 4 bilera egitea egoki deritzogu
- Harremanak Diputaziotik egin baino eraginkorragoa da herrien artean saretzea. Hurrengo bilerarako herri bakoitzak beste herri bat gonbidatzeko ardura hartzen dugu.
- Ordutegiak. Prozesu honetan ibili garen gehienak liberatuak ez garez hain aintzat hartzea eskatzen da. Larunbat goizak dira aukerarik hoberenak, eta jarraian bazkaria egitea, harremanak sendotzea aldera.
- Martxoaren 2rako jarri da hurrengo hitzordua



1.1.3. Herri ertainen lantaldea

HELBURUAK

- Udaleko funtzionamenduan oinarrituta, herri(eta)ko Parte Hartzeko Sistema diseinatu, sistematizatu eta arautzea
- Parte hartzeko diskurtsoa eraikitzea

Horiekin batera, bestelako helburu batzuk ere bageneuzkan: elkarren berri izatea, herrietako ordezkariak elkarrekin aritzea lanean, herrien arteko harremanak sendotzea...

PROZESUAREN ESKEMA

Hasieran, lantaldea martxan jarri behar genuenean, 4 bilera aurreikusi genituen:

1. bilera: espektatibak lantzeko eta elkarren berri izateko, elkarrengana gerturatzeko.
2. bilera: herrietako parte hartzeko esperientzien mapa egiteko eta Parte Hartzeko Sistemaren osagaiak definitzeko.
3. bilera: azken emaitzaren egitura zehazteko eta Sistemaren mamia lantzeko,
4. bilera: Sistema amaitzeko eta lana nola aurkeztuko genuen zehazteko eta erabakitzeko.

Oro har, aurreikusitako plangintzari jarraitu genion, baina amaieran beharrezkoa izan genuen beste bilera bat:

5. bilera: sistema amaitzeko eta jardunaldian nola aurkeztu genuen erabakitzeko eta prestatzeko.

Taldeko kideak eta asistentzia

HERRIA	1. bilera	2. bilera	3. bilera	4. bilera	5. bilera
Aretxabaleta					
+Astigarraga					
Deba		X			
+Eskoriatza					
+Ibarra					
Lazkao					
Legazpi		X	X	X	X
Lezo					
+Mutriku					
Oiartzun					
Ordizia		X	X	X	X
Orio					
+Soraluze-Placencia					
Urnieta					
Urretxu	X	X	X	X	X
Usurbil	X	X	X	X	X
Villabona		XX			
Zumaia	X	X			
Zumarraga					

+: beheko muga 4.001 biztanlera jaitsi zenean taldera etortzeko aukera izan zuten herriak. ~~Ezabatuta~~: herri handien lantaldera joan zirenak



Asistentzian ikus daitekeenez, herri batzuetako ordezkariak oso aktibo aritu dira lanean; beste batzuek, berriz, noizbait hartu dute parte, ezin izan direnean etorri jakinarazi dute edo berariaz adierazi dute interesatzen zaiela gaia; azkenik, herri batzuetatik ez dugu inolako erantzun edo feedbackik jaso prozesuak iraun duen bitartean.

SAIOETAN EGINDAKOA

1. bilera

Eguna: 2012/06/20

Hasiera-ordua: 18:15

Bukaera-ordua: 20:00

Lekua: Zumaiako Alondegia (kultur etxea)

Gaiak:

1. Sarrera/girotzea
2. Kokatzea (Parte Hartzeko Sarea, tamainako lantaldeak...)
3. Zer egingo dugu? Nola?
4. Parte-hartzea: non gaude?
5. Hurrengo bilera, gaiak, lanak...
6. Balorazioa

2. bilera

Eguna: 2012/09/11

Hasiera-ordua: 17:15

Bukaera-ordua: 20:00

Lekua: Usurbilgo Potxonea

Gaiak:

1. Sarrera
2. Kokatzea
3. Parte hartzeko esperientziak: mapa(k)
4. Parte hartzeko sistemaren osagaiak eta ezaugarriak
5. Hurrengo bilerak, lanak, gaiak...
6. Balorazioa

3. bilera

Eguna: 2012/10/10

Hasiera-ordua: 17:30

Bukaera-ordua: 20:00

Lekua: Ordiziako Barrena

Gaiak:

1. Sarrera
2. Kokatzea
3. Parte Hartzeko Sistemaren osagaiak eta ezaugarriak: lehenestea, sailkatzea, edukiak lantzea...
4. Hurrengo bilera, gaiak, lanak
5. Balorazioa

4. bilera

Eguna: 2012/12/12

Lekua: Urretxuko kultur etxea

Gaiak:

1. Sarrera
2. PHko Sistemaren zirriborroa
3. Hemendik aurrera
4. Saioaren eta prozesuaren balorazioa



5. bilera

Eguna: 2013/01/28

Lekua: Legazpiko Udaletxea

Gaiak:

1. Sarrera
2. PHko Sistemaren edukiak
3. Topaketa eta aurkezpena
4. Balorazioa

Emaitzaren gaineko hausnarketa

Prozesuak balio izan zuen bakoitzaren herrian egin zenaz hausnartzeko, jabetzeko, eta beste herrietan zertan ari ziren jakiteko ere bai; proiektuak eta asmoak, kezak eta arazoak, denak konpartitu genituen, eta askotan terapiarako ere balio izan zuten bilerek, elkarri laguntzeko.

Asko hausnartu eta hitz egin genuen parte-hartzeaz, eta diskurtsoaren oinarri batzuk ere finkatu ziren: zer nahi genuen bagenekien; falta zitzaiguna zen hori lortzeko bideak zehaztea (nola lortuko genuen).

Pixkanaka, parte hartzeko sistemaren osagai nagusiak edo gakoak identifikatu genituen: barne- eta kanpo-komunikazioa, koordinazioa, udalen esku-hartzea eta langileen inplikazioa, parte hartzeko egiturak, beharrezko baliabideak, parte-hartzearen bidez lantzeko gaiak... Horiek guztiak zaintzea eta lantzea beharrezkoa da herriarren parte-hartzea sustatzeko.

Emaitza batera iritsi ginen, baina garbi utzi nahi izan genuen ez zegoela amaituta; aitzitik, zerbait irekia bezala planteatzen genuen, praktikatik eta ikasitakotik betiere aldatu ahal izango zena. Horrela, ikusten genuen kome-ni zela uneak eta guneak aurreikustea egindako lana berrikusteko, osatzeko, aldatzeko, egokitzeko...

1.1.4. Herri haundien lantaldea

Gogoeta- eta eraikitze-prozesu partekatua:

Herri handietarako herritarrek parte hartzeko sistema elkarrekin marraztuz

Gipuzkoako herri handi baten azalean jar gaitezen;

eta demagun herri horretako udalak herritarren parte-hartzea bultzatu eta sustatu nahi duela.

Nola? Zer egin behar du horretarako? Zeintzuk dira eman ditzakeen pausoak?

Galdera horiek izan dira, hain zuzen, Gipuzkoako 10.000 biztanlez gorako herri-talde bateko ordezkariekin burutu berri dugun gogoeta-prozesuaren abiapuntua.

Eta honek elkarrekin egindako ibilbidearen laburpena izan nahi du: batetik, lanketa-prozesuan parte hartu duten herri eta pertsonen lana eta konpromisoa balioan jartzeko; eta, bestetik, elkarrekin eraikitakoa beste herri



batzuentzat inspiragarria eta baliagarria izan daitekeela uste dugulako.

Edukiak honela antolatu ditugu:

1. Gure helburua.
2. Egindako prozesua eta parte-hartzaileak.
3. Lortutako emaitzak.
4. Gogoan hartzeko: lantaldearen “mezuak botilan”.
5. Eskerrik asko!

1. Gure helburua

Zein izan da Gipuzkoako 10.000 biztanlez gorako herri-talde bateko udaletako ordezkariekin egindako gogoeta-prozesuaren helburua?

Gipuzkoako herri handietako udal-ordezkarri batzuekin abian jarritako prozesuak udalerriek eurek “Herritarrekin” sarearen bileretan antzemandako behar bati erantzun eman nahi izan dio. Zehazki, gure helburua izan da:

- **Udal “handi” baterako herritarrek parte hartzeko sistema bat marraztea.** Alegia, herritarren parte hartzea bere egiteko moduan eta kudeaketa publikoan barneratu nahi duen udal batek definitu eta garatu beharreko egitura edo arkitektura lantzea.
- **Marrazketa hori gogoeta eta eraikuntza kolektibo baten bidez egitea.** Hots, Gipuzkoako herri handiekin batera lantzea, elkarrekin, gure abiapuntu propiotik eta aurrera begira dugun ikuspegiarekin.
- **Eta taldeko zein Gipuzkoako beste herri handientzat baliagarria izan daitekeen sistema osatzea.** Ondoren, behin osatutakoan, Gipuzkoako “Herritarrekin” sareak urte hasieran burutu duen II. Topaketan aurkeztu delarik sistema ezagutzera eman, partekatu eta aberasteko. Eta ulertuz gaur egun dakigun eta garenetik osatutako sistema dela; abiapuntu bat; eta ziur etorkizunean denon artean hobetuko duguna.

Eta, era berean, prozesuak bidean beste zenbait helburu landu eta lortzea ere ahalbidetu du. Esate baterako:

- Elkar ezagutzea, partekatzea eta guztion artean eraikitzea.
- Parte hartu duten herri eta udalek parte-hartzearen inguruan duten ibilbidea eta gauzatutako esperientziak trukatea. Eta horren harira, dugun esperientziatik besteontzat baliagarri izan daitezkeen ikasketak ere biltzea.
- Partaidetzazko eraikuntza zer den lehen pertsonan eta taldean esperimintatzea.
- Gogoeta sakona modu atseginean egitea.

Finean, parte-hartzeaz jardun dugu, parte-hartzea aplikatuz eta eginez.

2. Egindako prozesua eta parte-hartzaileak

Adostutako helburua lortze aldera, zer itxura hartu du gogoeta-prozesuak? Nola gauzatu da? Zein udalerri hartu dute parte?

Metodologikoki egindako ibilbidearen laburpena ondokoa da:

- **5 saio lantaldearekin Lasarte-Oriako Kultur Etxean** (bakoitza 3 ordu inguruko iraupenarekin).
 - 1. saioa: 2012ko azaroak 7
 - 2. saioa: 2012ko azaroak 14



- 3. saioa: 2012ko azaroak 21
- 4. saioa: 2012ko abenduak 4
- 5. saioa: 2012ko abenduak 12

- **Pausoz pausoko gogoeta eta eraikuntza kolektiboa, sistemari forma eman eta osatze aldera.** Alegia, sistema bera definitzetik hasi gara, ondoren bere arkitektura edo osagaiak zehaztu eta horietako bakoitza sakontzera iristeko.
- **Lortutako emaitzaren aurkezpen eta kontrastea,** “Herritarrekin” sarearen II. Topaketan.

Parte-hartzaileei dagokienez, deialdi irekia 10.000 biztanle baino gehiago dituzten Gipuzkoako udalei helarazi zien Gipuzkoako Foru Aldundiak –bai lantalderako, baita Topaketarako ere–. Gonbidapen horri erantzunez, prozesuaren protagonistak izan dira, izen-abizenekin:

Lantaldeko parte hartzaileak							
Izena	Herria	Kargua	1. saioa	2. saioa	3. saioa	4. saioa	5. saioa
Esther Lizarralde	Azkoitia	Zinegotzia	x	x		x	x
Zeilia Herrador	Beasain	Zinegotzia	x				
Olatz Mujika	Donostia	Parte hartzeko teknikaria	x	x	x	x	x
Jon Ansa	Errenteria	Komunikazio-ardura		x	x		
Larraitz Sarobe	Lasarte-Oria	Parte hartzeko teknikaria	x	x		x	x
Alaitz Mendizabal	Lasarte-Oria	Zinegotzia		x			x
Ibai Iriarte	Tolosa	Alkatea	x	x			
Garikoitz Lekuona	Tolosa	Hirigintza-teknikaria eta parte hartzeko arduraduna	x	x	x	x	x
Nerea Ollokiegi	Zarautz	Parte hartzeko teknikaria	x	x	x	x	x
Jabier Etxaburu	Zarautz	Zinegotzia				x	

3. Lortutako emaitzak

Zer emaitza lortu ditugu gogoeta-prozesuan?

Zer hartu behar du kontuan herritarrek parte hartzeko sistema bat marraztu nahi duen herri handi bateko udalak?

Lantaldearekin pausoz pauso egindako bidean atal desberdinak jorratuz eta bakoitzean emaitzak lortzen saiatu gara: taldeko udalentsat zein prozesuan parte hartu ez duten beste herri handientzat probetxugarriak eta lagungarriak izan daitezkeen emaitzak.

Hona modu laburtuan:



Herritarrek parte hartzeko sistema		
Jorratutako atalak	Talde-gogoetan landutako galderak	Lortutako emaitzak: Zer atera dugu prozesutik?
Definizioa	<ul style="list-style-type: none">- Zertaz ari gara "sistema" diogunean?- Zer ulertzen dugu "herritarrek parte hartzeko sistemaz"?	<ul style="list-style-type: none">- Herritarrek parte hartzeko sistemaren definizioa
Abiapuntua	<ul style="list-style-type: none">- Herri bateko udalak herritarrek parte hartzeko sistema bat osatu nahi badu, zein da eman beharreko lehen pausoa?- Zein da abiapuntua?	<ul style="list-style-type: none">- Herritarrek parte hartzeko sistema marrazteko abiapuntua
Egitura	<ul style="list-style-type: none">- Zein litzateke sistema horren arkitektura?- Zein osagai ditu herritarrek parte hartzeko sistemak?	Herritarrek parte hartzeko sistemaren egitura. 5 osagaiz osatutako arkitektura: <ul style="list-style-type: none">a. Irizpideak edo ezaugarriakb. Barne-antolaketac. Epe luzerako parte hartzeko plangintzad. Urteroko parte hartzeko agendae. Kanpo-antolaketa
Gomendioak, kontuan hartu beharrekoak	<ul style="list-style-type: none">- Herritarrek parte hartzeko sistema bat marraztu nahi duen udal bati begira, eta definitutako egiturari jarraituz, osagai bakoitzerako zein gomendio, zein irizpide dira kontuan hartu beharrekoak?	<ul style="list-style-type: none">- Sistemaren osagai bakoitzerako prozedurak, gomendioak edo kontuan hartu beharrekoak.



4. Gogoan hartzeko: lantaldearen “mezuak botilan”

Prozesuan parte hartu ez duen herri handi bati egin dugun bideko 3 mezu helarazterik bazenu, zeintzuk lirateke?

Aitortu beharrekoa da lantaldearekin partekatu dugun gogoeta-prozesu hau altxor bat izan dela bere horretan: taldea bera, hizpide izan dugun gaia, elkarrekin eraikitzen joan garena, lortu ditugun emaitzak eta elkarrengandik ikasi duguna... guztiak izan dira prozesuak emandako perlak; eta, era berean, prozesua gure egin dugun bakoitzak gure “motxilan” daramatzagunak, ikasketa gisa.

Prozesu honetan parte hartu ez duten beste herri handietako udalak ere presente izan ditugu bidean. Haiei zuzenduta egin dugu azken ariketa eta ahalegina:

Herri handi bateko udalak herritarrek parte hartzeko sistema marrazteko bidea hasi nahi badu, guk partekatu-tako prozesu honetatik zein 3 ideia nagusi oparituko genizkioke, kontuan har ditzan?

Mezuak, botilan!

Olatz (Donostia)	<ul style="list-style-type: none"> - “Lidergo politikoa”. - “Parte-hartzearen planifikazioa”. - “Antolakuntzan barneratua egotea, transbertsala izatea”.
Nerea (Zarautz)	<p>“Parte-hartzea ez da inprobisatzen! Plangintza-arkitektura behar du. Eta diseinatzen dena “guztien” artean egin behar da”.</p> <p>“Eraikuntza hau ez da porlana eta ordenadoreekin egiten; pertsonekin eratzen da. Eta honek baldintzatuko ditu erabiliko ditugun kodigoak”.</p> <p>“Parte-hartzea ez da borondatearekin bakarrik egiten, baliabideak behar ditu: dirua, denbora, pertsonak, lekuak, tresnak, espazioak...”</p>
Gari (Tolosa)	<p>“Publikoa denaren kudeaketa modu publikoan egiteko modua da part- hartzea. Estilo bat adierazten duen egiteko modu bat. Interes orokorra denarekiko bisio edo ikuspegi bat eskatzen duena eta bisio horren gauzatze praktikoa ahalbidetzen duena”.</p> <p>“Horregatik erronkak herritarren parte-hartzearen bitartez lantzerako orduan bere baitan zeresana duten ikuspegi guztiak aintzat hartzea eskatzen du lehen une batean”.</p> <p>“Eta azkenik erronka/proiektu/prozesu horren parte-hartzearen bidezko gauzatzeak minimo batzuk ziurtatuz, galdera zehatz batzuei erantzun zehatza emanaz egikaritzea eskatzen du. Gaur nola egiten dugun, bihar hala izango delako”.</p>
Larraitz (Lasarte-Oria)	<p>“Udalak parte-hartzearen inguruan duen ideia eta norantza zehaztea. Garrantzitsua alderdi guztiak kontuan hartzea”.</p> <p>“Barne-antolaketa: irizpideak markatu eta departamenduen elkarlana”.</p> <p>“Kanpo-antolaketa: herritarrei begira “etxeko lanak eginda” eta entzuteko gogoz”.</p>
Esther (Azkoitia)	<p>“Parte hartzeko helburu-irizpideak politikoki adostu”.</p> <p>“Barne antolaketa eta koordinazioa egokitu eta inplikazio teknikoak bilatu”.</p> <p>“Plangintza batean helburu eta prozesuak, baliabideak eta jarraipen mekanismoak jaso (hau da, iparra eta mekanismoak markatzea); eta prozesu bakoitzak helburu eta diseinu egokia izatea (alegia, prozesu bakoitzari arreta jartzea). Eta honekin, ekin eta praktikak lagunduko digu”.</p>





1.1.5. Balorazioak

Oro har, hau izan da parte hartu dutenek egindako balorazioa:

HERRI TXIKIEN LANTALDEA

- Beste herrietako esperientziak entzutea aberasgarria
- Helburuak bete dira, prozesu honi hasi aurretik 3-4 herri txiki baginen Sarean genbiltzanak, 10 herri inguruko taldea sendotzeko balio izan du prozesu honek.
- Parte-hartzearen kontzientzia sendotzeko baliagarria izan da.
- Giro eraikitzailea egon da, eskertzekoa.
- Beharren GIDA antzekoa espero dut prozesu honetatik. Hasieratik guzti aurrera NOLA eraman galdetu diot nire buruari, eta horrekin tematuta nago.
- Talde txikietan lana gustura egin dut eta emankorra izan denaren sentsazioa
- Pisutsua (nekagarria)
- Errepikakorra. Eduki asko ez dira berriak izan eta bueltaka ibiltzearen sentsazioa izan dut
- Parte hartze txikia izan da

HERRI ERTAINEN LANTALDEA

Taldekideena

Saio guztien amaieran balorazioa egin genuen: saio bakoitzean kolore desberdineko errotuladorea erabilia, taula berbera bete genuen, zenbait alderdirekiko nola sentitzen ginen (oso triste, triste, pozik edo oso pozik). Oro har, oso balorazio ona egiten genuen. Taldekideok adierazi genuen pena zela hainbeste herri izanda hain gutxi parte hartzea, eta komentatu genuen sarea eratu zenean igual ez zela neurtu behar bezala zenbat herri zeuden benetan interesatuta edo parte hartzeko prest.

Bereziki ondo baloratu genituen bileretako dinamika eta metodologia, eta uste genuen bilerei etekina atera genuen. Oso gustura aritu ginen lanean, eta gutxi izateak izan zuen horretan eragina, konfiantza ere sortu zelako taldekideon artean eta oso giro ona izan genuelako lanerako.

Komentatu genuen terapiarako ere balio izan zutela bilerek, elkarren berri izan eta bakarrik ez geundela jabetzeko.

Azkenik, behin baino gehiagotan azpimarratu genuen taldekideok oso garrantzitsua zela neurri bereko herriak elkartzea, antzeko egoerak bizi genituelako, eta etorkizunera begira ona izango zela elkartzen jarraitzea.

Bideratzailearena

Esperientzia oso positiboa izan zen elkar ezagutzeko eta besteen esperientzien berri izateko, norberaren esperientziez hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko. Oso hezigarria izan zen guztiontzat eta zalantzarik gabe guztiok asko ikasi genuen.

Asistentziari dagokionez, gaizki hasi ginen eta ez genuen asmatu jende berria erakartzen; gero, behin martxan jarrita, are zailagoa izan zen; asistentzia txikiak, ordea, izugarri erraztu zuen lanerako eta harremanetarako giroa. Bilerak oso emankorrak izan ziren.



Emaitzari dagokionez, oso egokia da izan zen, baliagarria beste herri batzuentzat ere.

Bereziki nabarmentzekoa da proiektuan inplikatu zirenen konpromiso handia, aurrera egin zezan eta emaitzara iristeko. Nolanahi ere, batzuetan ez zen erraza lanak garaiz egitea, hautetsiak oso lanpetuta eta beste mila saltsatan ere aritu zirelako.

HERRI HANDIEN LANTALDEA

- “Oso potentea, sakona eta esijentea”.
- “5 saioak, urteko garai honetan, agian politikarientzat gehiegizkoa izan da. Intentsitate handiegia”.
- “Taldeak ahalbidetu du emaitza ona lortzea”.
- “Ez nuen horrelakorik espero. Ba al genekien zertara gentozen? Oso aberasgarria izan da”.
- “Abstrakzio eta ziurtasun-ezaren mailan mugitu gara; horrek taldearengan eta prozesuarengan konfidantza izatea eskatu digu”.
- “Aberasgarria izan da oso beste udalerriekin prozesua partekatzea”.
- “Esparru humanoan, talde “gogorra” izan gara; kide bakoitzaren atzean bada sinismen bat, eta emaitzak badu indar hori”.
- “Eraikuntza kolektibo bat denaren adibidea izan da. “Hau da parte hartzea”.
- “Bakoitzak horrelako prozesua bere herrian egiteko ahalmena izango bagenu...”
- “Sentsazioa dut “zerbait berria” egin dugula; asmatu agian ez, baina bidea egin bai”.
- “Izan eta egon gara egon behar genuenak”.
- “Talde txikia izateak, eta orekatua, lan dinamika erosoak izatea eta gaien sakontzea erraztu du”.
- “Emaitza interesgarria da, baina prozesua bera ere bai”.
- “Orain erronka da hau gauzatzea, ausartak izatea pausoak ematerakoan. Ez gaitezen gelditu filosofatzen horretan, egindako bideak ere lagunduko digulako”.
- “Faltan bota ditut beste herri/profil batzuk”.

1.2. Parte hartzeko sistemak

Lantalde bakoitzak bere kasa jardun du, bere egutegi eta antolareekin, baina helburu berbera bete nahian: tamaina horretako udalerriei baliagarria izango zaien Parte Hartzeko Sistema diseinatzen. Ondorengo orrietan dago jasota lantalde bakoitzak egindako lana, herri txikietatik hasita handietara.

1.2.1. Herri txikien Parte Hartzeko Sistema

Udalerrri txikietan dituzten praktikak aztertu ostean eta euren indargune eta ahulguneen inguruko “argazkia” egin ostean, Aurrera begira garatu nahi den parte hartzeko sistema definitzeko dinamikak burutu dira.

Planifikazio honen baitan etengabeko prozedura izan da abiapuntu dugun errealitatea aintzat hartzea, hau da, zehaztu den definiziora heltzeko trantsiziorako bitartekoen inguruan hausnartzea ere.

Honela, herri txikietako parte hartzeko sistemak atal hauek biltzen ditu:

- Sistemaren ezaugarriak
- Sistema garatzeko behar den egitura
- Erabakiguneen zehaztapena
- Sistema garatzeko behar diren mekanismoak

SISTEMAREN EZAUGARRIAK

Nolako ezaugarriak bildu behar ditu gure parte hartzeko estiloak edo sistemak?

Hona hemen hainbat irizpide:

- Informazioari garrantzia eskaini
- Gardentasuna
- Komunikazio zuzena herritarrekin
- Inplikazioa
- Motibazioa/Erakargarritasuna sustatzea
- Malgua
- Estrategikoki diseinatua, mekanismo definituekin
- Metodologia eta teknika parte hartzaileak garatzeko eskemak/gidak beharrezkoak dira

SISTEMAREN EGITURA

Atal honetan herrietako parte hartzeko egitura zein den eta zein izan behar lukeen adierazten da. Udal egituretatik haratago herri/komunitate osoko antolaketa hartzen da aintzat.

- Udal taldea (Alkatea, zinegotziak, teknikariak...)



- Elkarreak: nekazariak, ehiztariak, gastronomikoak, gurasoak, ganaduzaleak, kultur taldeak, jubilatuek, gazteak, emakumeak...
- Batzorde autonomoak (Jai, guraso)
- Udal batzordeak (zinegotziak)
- Herri batzordeak (Herritarrek osatuak, jarduerak burutzeko)
- Fundazioa (herri batzuetan, gutxitan). Herriko garapen sozio-ekonomikoa
- Herri Batzarrak. Herritarrekin komunikazioa eta eztabaidarako (eta erabakitze) gune nagusia

Egituraren izaera:

- Irekiak eta zabalak
- Ordezkatzaileaketa zehatzak

SISTEMAREN ERABAKIGUNEAK

Parte hartzeko sistemaren definizioaren baitan, gai garrantzitsu bezala ikusi da udal erabakiak non eta nortzuk hartzen diren zehaztea. Hemen aurkezten den emaitza erabateko zehaztasuneko ez bada ere, aurrera begira nozabide teoriko bat marrazten du.

Hona hemen partaideek adostutakoa:

	ZER? GUNEA	NORK/NORTZUK
EPE LABURREKOAK EXEKUTIBO- OPERATIBOAK	UDAL PLENOAK	Beste guneetan landutakoa eta zehaztutakoa jaso, eta onarpen zein bide formala emateko
	ALKATEA: dekretuz, afera txikiak	Alkatea, aurrez adostutako gai eta aferak, aurrez adostutako irizpideen arabera
	GOBERNU BATZORDEA: Plenora eraman aurretik udal barneko egiturak eta rolak informatu (gubernukideak, oposizioa, teknikoak...)	Udal ordezkariak Udal ordezkariak+herritar zehatzak(udal taldearen ingurukoak)
EPE ERDI- LUZEKOAK ESTRATEGIKOAK HERRITARREKIN BATERA	HERRI BATZARRAK (informatiboak+erabakitzaileak): Gai ekonomikoak (aurrekontuak+ordenantza fiskalak) Gai eta proiektu estrategikoak Proiektu bereziak Gai gatazkatsuak (kanpotik datozenak -ikurrinen afera kasu; edota herrian bertan sortzen direnak -herri bideak, hondakinak-)	HERRITARRAK OROKORREAN Udal ordezkariak
	AGENDA 21/ HERRI PLANA (herriko planifikazio estrategikoak definitzeko tresna). Herri guztiak ez dira ideia honekin identifikatuta sentitzen, Agenda 21a ulertzeko eta ezartzeko modu desberdinak daude	Herritarrak: sektoreka, zein lurraldeka Teknikariak Adituak (herriko adituak) Udal ordezkariak (koordinazio rola, antolaketa rola)
	HERRI BATZORDEAK: erabakitzaileak bihurtu, muga bat arte (proiektu batzuk, nahiz sektore batetik etorri, herri gisan erabaki behar dira): informatu, proposamenak aztertu, eztabaidatu, erabakitze irizpideak adostu eta erabaki.	Sektorean interesatutako pertsona eta elkarreak+Udal ordezkariak

**SISTEMAREN PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK**

Atal honetan, bilatzen diren helburuak lortze bidean garatu edota abiatu beharreko parte hartzeko mekanismoak zeintzuk diren aztertu da. Identifikatzeaz gain, NOLA bultzatu proposatzen da jarraian aurkezten den matrizean.

ZER	PARTAIDEAK	ZERTARAKO
PLENOAK	Alkatea eta zinegotziak	Aurrez hartutako erabakiei bide emateko
UDAL/HERRI BATZORDEAK	Sektoreka, herritar interesatuak, eta sektoreko elkarteak (baleude)+ Udal ordezkariak (hauek agian iraunkorki ez, baina bai urtean behin-bitan, adosteko baliabideak, e.a.)	<ul style="list-style-type: none"> - Herria bizirik mantentzeko - Herria-gizartea egituratzeko - Jendea herriko parte senti dadin - Sektoreen arabera, sektore programa beharrak garatzeko
HERRI BATZARRAK/AUZO BATZARRAK	HERRITARRAK OROKORREAN+ UDAL ORDEZKARIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Informatzeko - Proposamen ezberdinak aztertzeko - Eztabaidatzeko - Erabakitze (aurrez irizpide adostuen baitan)
PROZESU PARTE HARTZAILEAK, politikak diagnostikatzeko, definitzeko...	Herriko pertsona inplikatuak, proiektu, plan, programa zehatzak eta estrategikoak definitzeko	Proiektu, plan, programa zehatzak eta estrategikoak definitzeko
Galdetegiak, inkestak	<ul style="list-style-type: none"> - Herritar denak - Etxe denak 	<ul style="list-style-type: none"> - Egoera ezberdinak aztertzeko - Lehentasunak jasotzeko - Proposamenak, iritziak jasotzeko - Ebaluaketak, balorazioak jasotzeko
AGENDA 21	Herritarrak, zinegotziak, udal teknikariak, A21ko teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Planari segida eman - Herri Plana egituratu
HERRI PLANA/PLAN KOMUNITARIOA	Herritarrak, zinegotziak, teknikariak	Gogoeta eta planifikazio estrategikoa
ELKARTEGINTZA		
KONTSULTAK	Herritarrak	Erabakiak hartzeko
WEBGUNEA	Teknikariak	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko/udaleko informazioa - Tramiteak online - Elkarleen gunea - Herritarren txokoa
ALDIZKARIA	Herritarrak + zinegotziak	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko/udaleko informazioa - Elkarleen gunea - Herritarren txokoa



Dinamika honi lotuta, lehenetsi beharreko mekanismoak zeintzuk diren agertzen da atal honen bigarren zatian ere. Hauek parte hartzeko sistemaren oinarritzko bizkarrezurra direla ulertzen da.

ZER BULTZATU/ZER INDARTU?	MAIZTASUNA
Emaizak/ ondorioen sintesia etxeetara bidaltzea, edo nolabait herrian zabaltzea	Legeak 3 hiletik behin zehazten du. Behar denean (bi hiletik behin...)
<p>*Ez dauden kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sektore egiturak sortzea (tokian tokikoak). Muga batekin, eta kantitateari baino, kalitateari lehentasuna emanez. - Aurrekontuak zehaztu batzordeei, autogestio bidea landuz(kopuru bat, proiektu bereziak sortuz gero, negoziazio puntualen bidez saiatu behar) - Definitu batzordeko erabakien mugak, baina erabakigune gisa ulertu ere, (muga batzuen barruan behar bada ere kasu batzuetan) - Herri batzordeen koordinazio gunea: gai ekonomikoak koordinatzeko; herri-komunitate ikuspegia lantzeko 	- Batzordeen arabera.
<ul style="list-style-type: none"> - Informazio hutsetik haratago joatea. - Partaidetza presentzial gehiago (kuantitatiboa) - Partaidetza zuzen gehiago (ekarpen gehiago, e.a.) <p>*Eztabaida: mekanismo honetan informaziotik haratago Joan behar, baina batzar bakoitzak zertarako ematen duen ongi identifikaturik.</p>	Urtean bi gomendatzen dira
<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza prozesu osoan mantentzea - Partaidetza presentziala eta aktiboa - Erabakiak kontsentsuan hartzeko teknikak, mekanismoak, e.a. - Prozesu osoak izan daitezela: diagnostik, ekintza planetara eta kudeaketa partekatura ere. 	Behar denean
<ul style="list-style-type: none"> - Ekarpen indibidualak, bakoitzaren ekarpena - Gero, emaitza kolektiboak zabaltzea eta denei jakinaraztea 	<ul style="list-style-type: none"> - Handia eta sakona, legealdian behin, hasieran - Txikiak eta zehatzak urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> - Lan-taldeak sendotu - Foroak eraginkortu 	
<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza - Lan-taldeak sendotu 	
<p>Gaiak ondo aukeratu behar dira</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irizpideak zehaztu: - Herritarren %50ak parte hartzea (minimoa) - Informazio prozesu gardenak egotea aurreretik - Herri Batzarretan adostasunik ez dagoen gaietan garatuko dira - Kultura politikoa bermatzea beharrezkoa da hauek eraginkorrak izan daitezen. - Beste irizpidea (proposamena): etxeak/familiak izatea bozka unitatea pertsonak izan beharrean; honela herriaren parte hartze ordezkagarria lortzea posible litza-teke, bestela zail samarra. 	
<ul style="list-style-type: none"> - Elkarteen gunea aktibatu - Herritarren txokoa kudeatu 	
Herritarren iritzia	



Aztertutako parte hartzeko mekanismo desberdinetatik honakoak dira lehenetsi direnak. Interes handikoenak diren hauek nola hobetu edo garatzeko zenbait proposamen luzatu dituzte partaideek:

HERRI BATZARRAK:

- 2 maila bereizten dira:
 - Informatiboak
 - Erabakigarriak
- Deialdietan Batzarren IZAERA zehaztu
- Erabakitzailerik direnean PLENOran eramateko konpromisoa hartua izatea
- Funtzionamendu minimoak zehaztu (arauak, errespetua, ...)

AGENDA 21 (HERRI PLANAK):

- Erabilgarria izatea
- Lan-talde sektorialak sortu
- Lan talde hauek dinamizatzeko trebatu
- Honen ostean Batzar Orokorra deitu eta osatu

KONTSULTAK:

- Argi izatea NOIZ konbokatu: irizpideak zehaztu
- Ideia bat: X eurotako inbertsioetik gorako proiektuak erabaki behar denean konbokatu

HERRI ALDIZKARIAK:

- Ekipoa osatu
- Herritarren txokoa sortu eta elikatu
- Aldizkariaren neurriak/maiztasuna planifikatu
- Elkarleen sekzioa sortu



1.2.2. Herri txiki-ertainen Parte Hartzeko Sistema

Gipuzkoako udalherri txiki-ertainetako esperientziak aztertuta eta indargune eta ahulguneen “argazkia” eginda, Aurrera begira nolako parte hartzeko sistema garatu nahi den definitzeko dinamikak burutu dira.

Planifikazio honen baitan etengabeko prozedura izan da abiapuntu dugun errealitatea aintzat hartzea, hau da, zehaztu den definiziora heltzeko trantsiziorako bitartekoen inguruan hausnartzea ere.

Honela, herri txiki-ertainetako parte hartzeko sistemak atal hauek biltzen ditu:

- Sistemaren ezaugarriak
- Sistema garatzeko behar den egitura
- Erabakiguneen zehaztapena
- Sistema garatzeko behar diren mekanismoak

SISTEMAREN EZAUGARRIAK

Nolako ezaugarriak bildu behar ditu gure parte hartzeko estiloak edo sistemak?

Hona hemen hainbat irizpide:

- Helburu garbiak-errealistak izatea
- Interes desberdinak aintzat hartzen dituen
- Pazientziaz hartu beharrekoa
- Parte-hartzearen Planifikazioa egingo duena
- Konfiantza izango duena aldaketa kulturean (pixkanako lortuko dena)
- Dinamikoa izango da
- Herritar guztien berdintasun egoeran oinarrituta egongo da
- Iritzi aniztasunean oinarrituta egongo da
- Kudeaketaren eta komunikazioaren gardentasuna bermatuko du
- Irekia (jendearen sartu-irtenak ahalbidetzen duena) izango da
- Informazio zuzena eskainiko diona herritarrei eta herritarren aportazioak jasotzeko jarrera irekia izango du
- Herri osoari zabalik egongo den udal kudeaketa garatuko du
- Parte hartzeko eskaintza iraunkorra mantendu (zailtasunak daudela jakinda) du
- Parte hartze puntuala aktibatu du
- Elkartegintza sarea sendotuko du
- Herritarrak erabakien partaide sentiaraziko dituen
- Urrunen sentitzen diren sektoreenganako begirune eta deialdi “bereziak” (gazteak, etorkinak eta emakumeak batez ere)
- Herriko gai estrategiko/garrantzitsu identifikatu eta honen arabera estrategiak/mekanismoak definituko dituen



- Erabaki estrategikoetan herritarren partaidetza bilatuko duena prozesu/mekanismo desberdinen bitartez

SISTEMAREN EGITURA

Atal honetan herrietako parte hartzeko egitura zein den eta zein izan behar lukeen adierazten da. Udal egituretatik haratago herri/komunitate osoko antolaketa hartzen da aintzat.

- Talde teknikoa
- Talde politiko/administratiboa (Udal taldea)
- Herritarrak erakarriko dituen batzordeak
- Parte hartzeko taldea (dinamizazio gunea)
- Elkarre/Sektoreen Koordinazio Guneak
- Herritarren ekarpenez osatutako webgunea-aldizkaria (komunikazio batzordea)
- Herri Batzarrak (kasu batzuetan) udal gai orokorrak konpartitzeko espazioa.

SISTEMAREN ERABAKIGUNEAK

Parte hartzeko sistemaren definizioaren baitan, gai garrantzitsu bezala ikusi da udal erabakiak non eta nortzuk hartzen diren zehaztea. Hemen aurkezten den emaitza erabateko zehaztasuneko ez bada ere, aurrera begira norabide teoriko bat marrazten du.

Hona hemen partaideek adostutakoa:

- Udal plenoak
- Udal Batzordeak. Zinegotziak eta herritarrak
- Koordinazio guneak (elkarrekin baterakoak)
- Herri batzarrak. Herritarren artean (asmoa)

SISTEMAREN PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK

Atal honetan, bilatzen diren helburuak lortze bidean garatu edota abiatu beharreko parte hartzeko mekanismoak zeintzuk diren aztertu da. Identifikatzeaz gain, NOLA bultzatu proposatzen da jarraian aurkezten den matrizean.

ZER	ZERTARAKO	ZER INDARTU/ZER BULTZATU?	MAIZTASUNA
UDAL PLENOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Erabakiak formalizatzeko - Herritarrek mozioa aurkezteko aukera 		2-3 hilean behin
UDAL BATZORDEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Eztabaidatzeko - Erabakiak hartzeko - Informatzeko - Proposamenak bideratzeko 	<ul style="list-style-type: none"> - Arautegian izaera IREKIA ematea Batzordeei - Herritarren presentzia handitu - Herritarrek gai ordena (zerrenda) egiteko aukera eman 	15 egun-2 hilabete bitartean



HERRI BATZARRAK (Gai zehatzak-puntualak)	- Informatzeko - Eztabaidatzeko - Erabakiak hartzeko	- Parte hartzaile guztien iritzia biltzeko metodologian trebatu/sakondu - Kopurua hobetu - Deialdia hobetu: Goizez /Arratsaldez	Beharraren arabera
AUZOLANA	- Herri lanak egiteko - Harremanak sustatzeko - Herri kontzientzia garatzeko - Dirua aurrezteko	Auzolanean ZER egingo den Herritarrek erabaki/proposatu (Batzordeetan edo Herri eta Batzarretan)	Beharra dagoenean
PROZESU PARTE HARTZAILEAK	- Proposamenak egiteko - Iritziak ezagutzeko - Erabakiak hartzeko		
AGENDA 21			
KONTSULTAK			
ERREFERENDUMAK	Herri osoari eragingo dionean Posizio garbia ez dagoenean Informazioa bermatzea ezinbestekoa izango da -Erabakiak hartzeko		
INKESTAK/GALDETEGIAK	- Herriko iritzi-termometroa - Proposamenak jasotzeko - Informazioa jasotzeko	- Inkestak jasotzeko moduak hobetzeko (era zuzenagoa)	
ALDIZKARIA	- Informazioa eskaintzeko		
WEBGUNEA	- Informazioa eskaintzeko		
SARE SOZIALAK	- Informazioa eskaintzeko		
BANDOAK	- Informazioa eskaintzeko - Deialdiak zabaltzeko		

ONDORIOAK

Honakoak dira prozesu honetatik antzematen diren zenbait ondorio:

- **Parte hartzea balioan** jartzen ari da udal politikagintzan
- Herritarrak eta udalen arteko gerturatzea sumatzen da
- **Komunikazioa eta informazio gardentasunean** urratsak ematen jarraitzea parte hartzerako oinarri bezala baloratzen da
- Udal herrigintzan “betiko” jende berdinak parte hartzen duen sententzia hedatua
- Zentzu honetan, badaude gerturatzeko eta parte hartzeko zailtasuna eskaintzen duten zenbait sektore:
 - **Herriko elkarteekin** harremanak sendotu eta lan bateratua garatzea garrantzitsu ikusten da.
 - **Etorrinak** udal dinamikatik isolatuta daude. Gerturatze dinamikak abiatzea garrantzitsua da.
 - **Gazteak** aldentuta sentitzen dira udaletik eta bere dinamikara hurbiltzeko zailtasun handiak daude. Hurbiltze moduetan eta parte hartzeko formatuen inguruko hausnarketa beharrezkoa da.
 - **Emakumeak** parte hartzeko ohitura gutxiago dute.



- Parte hartzeko eskaintza oso zabala dela, eta batzutan dinamika gehiegi abiatzen direla; udalak herritarrak parte hartzeko eskaintza gehiegizkoa dela diote batzuk

Honegatik, oso garrantzitsua da errealismotik abiatzea

- **Parte hartzean iraunkortasuna lortzea oso zaila.** Formatu puntualetarako erraztasun gehiago dago.
- **Parte hartze iraunkorra gai zehatza edo sektorialetan** garatzen saiatu behar gara, herritarren interesekin konektatzen delako horietan (hezkuntza, kultura, baserritarrak, ...)
- **Batzordeetako partaidetza hobetu** beharra, malgutasuna batez ere praktikan jarritz.
- **Herri Batzarrek** badute erreferentzi bat, baina **elkargune gisa indartu** behar dira. Tresna gisa balioan jarri eta hauetan parte hartzea garatzeko moduetan sakondu

1.2.3. Herri ertainen Parte Hartzeko Sistema

Sarrera

2012. urtearen hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udaletako ordezkariak “Herritarrekin” Parte Hartzeko Sarea eratu zutenean, sumatu zen beharretako bat izan zen herritarren parte-hartzea bultzatzeko eta bideratzeko baliabideen eta ereduaren premia; 2012rako plangintzan, egin beharreko lanen artean hauxe ezarri zen: “Udalen funtzionamenduan oinarrituz, herriko parte hartzeko sistema diseinatu, sistematizatu eta arautu”, eta horretarako berriazko 4 lantalde eratu ziren, herrien biztanle-kopuruaren arabera.

Lantalde horietako bat 5.000-10.000 biztanle dituzten udalena izan zen, hau da, tartekoa edo tamaina ertaineko udalena. Lehen saioaren ondoren, parte-hartzaileei zegokienez, doikuntza batzuk egin ziren, eta aukera eman zitzaizen taldean parte hartzeko 4.000 biztanletik gora zituzten udalei ere. Horrela, guztira 17 herriko baliako lantaldea eratu zen, eta horietatik, prozesuan zuzenean parte hartu dutenak 7 udal izan dira.

Lau lan-saio egin eta gero, ondoren azalduko den Sistema gauzatu dugu, gure herriek dauzkaten berezitasunak kontuan harturik eta batez ere esperientzia praktikoetatik abiatuta, ikusi eta ikasi dugunean oinarrituta, parte hartzeko kultura zabaltzeko, ezagutu eta are gehiago praktikan jarri nahian tamaina bereko gainerako udaletan.

Jakin badakigu sistema hau ez dela osoa, baina ez daukagu inori lezioak emateko asmorik; aitzitik, ikasteko eta gehiago osatzeko prest gaude, eta besteen esperientzietatik ikasi eta gurea aberasteko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Gipuzkoako Foru Aldundiari lan hau egiteko eta elkarlanerako aukera emateagatik, eta bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu zuzenean edo zeharka lan hau gauzatzen parte hartu edo lagundu duten zinegotzi eta teknikari guztiei.

Parte Hartzeko Sistemaren definizioa eta xedeak

Sistema hau gure udaletan eta udalerrietan herritarrek parte hartzeko aukerak, bideak, kultura... areagotzen edo bultzatzen laguntzen duten elementuen edo prozesuen multzoa da. Elementu edo prozesu horiek guztiak elkarren osagarriak dira eta ahalegindu gara egitura logiko bat izan dezaten, horren arabera antolatzen; nolana ere, elementu edo prozesu horietako bakoitza bakarka hartzea eta lantzea ere badago, baina betiere jakinik besteekin batera izango dela baliagarrien edo eraginkorren.

Sistemako elementu edo prozesuei dagokienez, batzuetan baliabideak edo tresnak dira, beste batzuetan aholkuak edo kontuan hartu beharrekoak, beste batzuetan baldintzak edo parte-hartzea handiagoa izan dadin bete



beharrekoak... Parte Hartzeko Sistema hau, ordea, bere osotasunean, batez ere tresna gisa ulertzen dugu, parte-hartzea bultzatzen, sustatzen, errazten, bideratzen duten osagaien multzo gisa.

Parte Hartzeko Sistemaren bidez udalok herritarren parte hartzeko kultura bultzatu eta areagotu nahi dugu, eta etorkizunean parte hartzeko esperientziak eta kultura praktikan jarri nahi ditugu, lehen asmoak zirenak errealitate bihurtu. Horrela, erabakitzeko ahalmena herriak izatea lortu nahi dugu, gure herriak biziak eta dinamikoak izatea.

Parte Hartzeko Sistemaren bidez udalen eta herritarren arteko harremanak eraldatu nahi ditugu, boterearen banaketa horizontalago bilakatu nahi dugu. Zubiak eraiki eta harremanak egin nahi ditugu udalen eta herritarren artean eta herritarrak subjektu aktibo, inplikatu, konprometitu edo boteredun bihurtu nahi ditugu. Gure herriak behetik gora eraikitakoak izatea nahi dugu, herritarrek horretan dagokien ardura eta erantzukizuna euren gain hartuz. Eredu-aldaketa dakar honek, orain arte nagusi izan denarekin apurtzea, kultura berri bat sortzea, eta horrek denbora eskatzen du. Kultura berri horrek erakundeek gauzak herritarrentzat egitetik, erakundeak eta herritarrak elkarrekin jardutera pasatzea eskatzen du eta eragile guztien arteko ardura banaketa orekatzea. Helburu hori lortzeko, Parte Hartzeko Sistema hau sortu dugu. Horrela, ondorengoak bete nahi ditugu:

GERTUTASUNA

Herritarrengana joan nahi dugu, gerturatu, herritarrekin lan egin, elkarlanean aritu, horretarako borondatea badaukagu; baina oraindik urrun gaude, urruti sumatzen gaituzte edo dituzte herritarrek udalak, kostatzen egiten zaigu elkarlanean aritzea.

Herritarrengana gerturatzeko, informazioa era ulergarrian eman behar zaie herritarrei eta gizarte-elkarteei, eta horretarako bide egonkor, iraunkor eta naturalak ezarri, batez ere komunikaziokoak.

Gakoetako bat harreman pertsonala da, oso garrantzitsuak dira herritarrekin eta elkarteekin edo gizarte-eragileekin.

Auzoei dagokienez, aldian behin bilerak egin behar dira auzoka, baina kontu izan behar da harreman hori ez erabiltzea udalari komeni zaionean bakarrik. Bilera horiek ohikoak izan behar dute, eta udalek aukeratzen jo behar dituzte gune horiek. Auzoei dagokienez, garrantzitsua da udalek solaskide egokiak bilatzea.

Gure tamainako herri gehienetan badaude herritarren ohar, iradokizun, kexa eta abarrekoak jasotzeko eta bideratzeko zerbitzuak edo guneak, erraza da horiek ezartzea, bai aurrez aurrekoa, bai telefono edo webgune bidezkoa ere. Asmatu behar da, ordea, baliabide hori ongi kudeatzen eta batez ere eraginkorra izan dadin, herritarrak udalera jotzeko bide egokia dela ikus dezaten.

KONTZIENTZIAZIOA

Herritarren eta Udalaren arteko rol-aldaketa aldarrikatzen dugu. Gure ustez, herritarrak ez dira zerbitzu-hartzailer soilak, udalak ez dira zerbitzu-emailer soilak. Herritarrek udalen kudeaketan parte hartzea eta eragitea nahi dugu, baina horretarako beharrezkoa da rol-aldaketa, urte askotan gauzatu diren inertziak eta ohiturak aldatu eta argi erakustea zer dagokion bakoitzari.

Kontzientziazioa ez da lortzen bat-batean; aitzitik, denbora luzea behar da, lan handia, eta lortuko dugu pixkanaka, pausoz pauso. Herritarrak pixkanaka erakarri egin behar ditugu, beldurtu gabe. Lortu behar dugu bat egitea gure asmoekin eta parte hartzea, erakutsi behar diegu honela lan eginda emaitza hobekak lortzen direla, egindako lanak zerbaitetarako balio duela.

ANIZTASUNA

Batzuetan herritarren sektore jakin batzuek baino ez dute parte hartzen, eta beste batzuk kanpoan geratzen dira. Gizarteko sektore guztiek parte har dezaten bitartekoak jarri behar ditugu. Horretarako, bereziki zaindu-



ko eta landuko dugu jende-multzo batzuen presentzia. Bereziki erreparatu diogu parte hartzen duen jendearen ezaugarri (sexua, adina, jatorria...) eta behar denean beraiengana joko dugu zuzenean, parte har dezaten ahalegina egingo dugu.

Besteak beste, hauek egin daitezke aniztasuna areagotzeko zenbait neurri edo aholku:

- Ordu-tegiak kontuan hartu behar dira elkartzeko uneak proposatzean. Batzuentzat ordurik egokiena dena okerrera izango da beste batzuentzat. Garrantzitsua da garbi izatea norke parte hartzea nahi dugun, horren arabera proposatzeko ordua.
- Herritarren multzoak edo sektoreak identifikatu, norke parte hartzea nahi dugun aurreikusitu eta horiekin banan-banan hitz egin, ziurtatu presentzia.
- Gaiaren arabera, umeekin ere hitz egin beharko genuke, gaztetxoak ere kontuan izan parte hartzeko prozesuetan, etorkizunean gakoak dira eta. Beraiekin lan egitea lortzen badugu, ohitzen badira parte-hartzearen kultura murgiltzen badira, gazte edo heldu direnean parte hartzen jarraituko dute.
- Haurtzaindegi-zerbitzua jarri martxan, emakume batzuek parte hartu ahal izateko.
- Komunikazioan lan handia egin behar aniztasuna bermatzeko; jendearengana iritsi egin behar dugu.
- Agian etorkinekin beste lan bat egin behar da, nolabait ere 0 estadioa, aurrelanena; gizarteratzeko badauzkate guk ez dauzkagun arazo batzuk, eta horiek kontuan izan behar ditugu.
- Beste alderdi politikoetako ordezkariak dagokienez, batzuetan begi onez ikusten dituzte parte hartzeko prozesuak edo bideak jartzea, baina gero kritiko ageri dira, esaten dute hauteskondeen eta botoen legitimitatea daukatela eta ez daukatela zertan parte hartu edo ez daukatela zertan hitz egin herritarrekin zenbait gai. Gainera, askotan parte hartzeko prozesuen kostua aurpegiratzen digute, kanpoko enpresa bat hartzeak zenbat balio duen. Kritikak kritika, beharrezkoa da ahal dela sentsibiltatea politiko guztietako jendeak parte hartzea sisteman eta prozesuetan.
- Hizkuntzen kudeaketa: gure lehentasun komunikatiboa euskara da, lehenetsi egin behar dugu, baina gero zailagoa da kudeatzea herri erdaldunagoetan (adibidez, Urretxun edo Legazpin). Batzuetan beharrezkoa izango da zenbait baliabide jartzea. Adibidez, Urretxun, plenoetan aldi bereko itzulpena egoten da, kaskoen bidez; herri euskaldun-euskaldunetan (UEMA-n daudenetan, adibidez), dena euskaraz egiten da eta jende erdaldunak atzera egiten du. Horiek ere kontuan izan behar ditugu.
- Parte hartzeko era ez-presentzialak ere kontuan izan behar ditugu Sisteman eta prozesuetan, eta aniztasuna areagotzeko erabili.
- ...

KONPARTITZEA

Parte Hartzeko Sistema hau udal bakoitzak jarri beharko du martxan, hemen eskaintzen ditugun hauetatik bakoitzak ikusi beharko du zer erabili nahi edo behar duen eta gehienetan bestelako laguntzarik gabe jarri beharko ditu martxan. Garrantzitsua da, ordea, esperientziak konpartitzea eta horretarako bideak jartzea edo aurreikustea, udalek elkarren berri izateko, besteak zertan ari diren jakiteko, ondo edo gaizki irteten diren esperientzietatik ikasteko...

Horretarako, baliabide ezin hobea izango da GFAko Sareak abian jarriko duen webgunea; baina, horrez gain, bereziki sustatu beharko litzateke antzeko tamainako ordezkari politikoaren eta teknikarien arteko harreman zuzen eta pertsonalak, esperientziak aurrez aurre bizitzeko eta ezagutzeko aukera. Halaber, esperientziak konpartitzeko gune bikainak dira parte hartzeko topaketa edo jardunaldiak, eta horietaz ere baliatu beharra dago.

Laburbilduz, Parte Hartzeko Sistema honen bidez herritarrek benetan parte hartzea nahi dugu, herritarren parte-hartzea ez dadila izan testimoniala edo itxurakeria hutsa.



Parte Hartzeko Sistemaren ezaugarriak

ESPERIENTZIA PRAKTIKOETAN OINARRITUA

Gero eta esperientzia gehiago ari gara jartzen praktikan, eta horietatik etengabe ikasten dugu eta etorkizunerako irakaspen baliagarriak jasotzen ditugu. Sistema hau osatzeko, gure udaletan edo gertukoetan egindako esperientzietan oinarritu gara.

BEHARRETIK ABIATUTA ETA NAHIEI ERANTZUTEN DIENA

Gure tamainako herriek badituzte ezaugarri bereziak, horietatik nagusia ez izatea ez txikia eta ez handia; gauza batzuetarako herri txikien abantailak eta beste batzuetan herri handienak, eta berdin desabantailak. Gure tamainako herriek ezaugarri berezi batzuk daukate eta Sistemak aintzat hartu behar ditu horiek, batez ere beharrei eta nahiei erantzun behar die.

PARTE-HARTZE IRAUNKORRA

Sistema honen bidez parte-hartze iraunkorra bultzatu nahi dugu, denboran luzatuko dena eta epe laburra gaindituz luzerako apustua egiten duena. Ez ditugu baztertzen dinamika eta ekimen puntualak, baina batez ere epe ertain edo luzera begirako dinamikak eta egiturazko logikak eraldatzea izango da gure xedea.

BALIOETAN OINARRITUA

Sistema honen bidez, gure jardunean presente dauden hainbat balio bultzatu nahi ditugu: elkarlana, adostasuna bilatzea, herritartasuna bultzatzea, konfiantza-giroa, elkar entzuteko eta elkarrengandik ikasteko jarrera, ardura konpartitua, konpromisoa...

PARTE-HARTZE INTEGRALA

Parte-hartzea maila guztietan garatzea nahi dugu: herritarrei informazioa eman eta herritarrengandik informazioa jasotzetik hasita, udalerrietako politika publikoei dagozkien erabakietan parte hartzeraino. Herritarrek erabakietan eta erabaki horien gauzatzean hartuko dute parte, horrela eurek ziklo guztian zehar parte hartuko dutela bermatuz: eztabaidatu, hausnartu, elkarrekin eraiki, erabakiak hartu, planifikatu, gauzatu eta ebaluatu. Halaber, parte-hartzea hasieratik bultzatu nahi dugu, herritarrak inplikatzeko, prozesuaren parte sentitzeko eta



euren talde-identitatea edo identitate kolektiboa sendotzeko.

KOIUNTURA POLITIKOEN GAINETIKOA

Parte Hartzeko Sistemak alderdikeria eta egoera politikoen gainetik egon behar du, ezin da egon kanpotik eragingo dioten gorabeheren edo aldaketen menpe.

SISTEMA ULERGARRIA, ULERTERRAZA

Ahalegin berezia egingo dugu herritarrengana joaten garenean hizkera ulerterraza erabiltzen.

UDAL BAKOITZAREN BEHARRETARA MOLDAGARRIA

Menu bat eskaini nahi dugu, eta bakoitzak har dezala hortik nahi edo komeni zaiona

IREKIA ETA ETENGABE ELIKATUKO DENA

Ez da sistema itxia, baizik eta irekia, egindako esperientziekin osatu eta aldatu egingo dena, tarteka berrikusi eta etengabe hobetu behar dena.

Sistemaren osagaiak eta azalpena

Sistema hau udalen ikuspegitik dago eginda, eta seguru asko azalpenak aldatu egingo lirateke beste norbaiten ikuspegitik eginez gero.

Sistemaren subjektuak

UDALA

Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea da, baina sarritan urrunegi ikusi izan da, ez behar adinako gertutasunez. Sistemaren bidez, udalak eta herritarrek elkarrengana hurreratu nahi ditugu, eta herritarrek udal-tako gestioan eta egunerokoan esku-hartzea.

Udalaren baitan, ondorengoak bereizten ditugu:

- Udal Gobernu eta gainerako alderdi politikoak
- Udal-teknikari eta langileak, oro har, baita bideratzaileak edo kanpo-aholkulariak ere.

HERRITARRAK

Talde bezala antolatu egiten dira.

Rol-aldaketa eskatzen diegu

GIZARTE-ELKARTEAK ETA -ERAGILEAK

Antzina-antzinatik, herritarrek bat egin izan dute helburuak lortzeko. Gizarte-elkarteak eta -eragileak herri bizien adierazle dira eta sustatu eta lagundu egin nahi ditugu, uste dugu udaletatik bultzatu egin behar dela herritarrek elkartzea eta elkarlanean jardutea, aberasgarria dela herriarentzat.

Auzoen errealitatea kontuan hartu beharra eta bereziki landu beharra harremanak: elkartarekin. Pertsona erreferentzialekin, komunikazioarekin...

Parte hartzeko prozesuak eta faseak (diseinua, garapena, deboluzioa, balorazioa)

Parte-hartzea ez da berez edo espontaneoki gertatzen, parte-hartzea gertatzeko edo areagotzeko baldintza



egokiak sortu eta horretarako urrats bakoitza landu eta zaindu behar da, herritarren parte-hartzea kalitatezkoa izan dadin. Urte askotan indarrean egon den ereduak “udalak = zerbitzu emaileak” eta “herritarrek = zerbitzu jasotzaileak” bultzatu du. Uste dugu badela ordua hori aldatzeko eta udaletatik ere kultur aldaketa bultzatu behar dela.

Horretarako, beharrezkoa da parte-hartzeaz hausnartzea, herritarrei parte hartzeko bideak eta baliabideak jartzea, eta parte hartzeko prozesuak izanik parte-hartzea areagotzeko bideetako bat, garrantzitsua da parte hartzeko prozesuetako fase guztiak ongi prestatzea: aurrelanak edo diseinua, prozesuaren garapena, emaitza-aren deboluzioa eta prozesuaren balorazioa.

Besteak baztertu gabe, bereziki azpimarratu nahi dugu diseinuaren fasea. Prozesuan zehar garrantzitsuak izango diren talde, teknikari, herritar, kanpo-aholkularitza... osatzen den lantalde bat osatu behar da diseinua egiteko. Alde batetik, talde honek dinamikoa izan behar du, baina garrantzizkoa da prozesuak eragingo dien talde edo pertsona guztiak ahalik eta ordezkatuenak egotea. Lantalde honetako pertsona bakoitzak bere aurreko esperientzietatik edo beste esperientzietatik ekarpenak egingo ditu. Lantalde honek arduratu behar du prozesuaren diseinu osoaz.

Garapenaren faseari dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaigu Talde Eragile bat sortzea prozesuaren segimendua egiteko eta prozesuan eragiteko. Unean uneko prozesuan erabaki beharko da nork hartuko duen parte, baina gure ustez bertan egongo dira ordezkatuta alderdi politiko edo prozesuaren sustatzaileak, udaleko teknikariak eta arlo/esparru jakin horretako eragile, elkarte edo herritar konprometitua.

Bestalde, bereziki azpimarratu behar dugu prozesuaren amaieran izaten diren deboluzioa eta balorazioa. Prozesuaren amaierara iritsirik, beharrezkoa da egindako lanaren berri ematea herritarrei, hasieran hartutako konpromisoak eta lortutakoa emaitzak zertan diren eta etorkizunean zer ibilbide izango duten. Horretarako, behar diren baliabideak erabiliko dira (bilerak, komunikazioa, argitalpenak...), baina gardentasunez eta zintzo jokatu behar dugu herritarrekiko, herritarrek ikusi behar dute zikloa behar bezala ixten dela.

Halaber, amaierara iritsirik, beharrezkoa da egindako lana baloratzeko eta hobetu beharrekoak eta ikasitakoak identifikatzeko, etorkizunerako baliagarriak izan daitezen.

Sistema bera baloratzeko neurriak edo bitartekoak jarri behar dira, Sistema osatzen dutenekin batera: zinegotziak, herritarrek, elkarteak, teknikari eta langileak...

Udalaren konpromisoa

Argi adierazi behar zaie herritarrei zein den Udalaren konpromisoa Parte Hartzeko Sistemarekiko edo parte hartzeko prozesuekiko, horiek garatzeko edo bermatzeko zer baldintza bete behar diren eta zer mugaren barruan egin behar diren. Horiek garbi adierazi beharko zaizkie hasiera-hasieratik tartean diren guztiei (herritarrei, gizarte-elkarte eta -eragileei, langileei eta teknikariei...).

Prozesuaren sustatzaileek (gehienetan udaletako gobernu-taldeek) argi adieraziko dute prozesua martxan jartzen duen neurrian emaitza ere bere gain hartzeko prest dagoela eta prozesutik irteten dena aintzat hartuko duela.

Udalaren esku-hartzea eta inplikazioa

Sarritan zalantza sortzen da udal-ordezkariek (hautetsiek, teknikariek...) parte hartu behar duten edo ez udalek beraiek antolatutako parte hartzeko prozesuetan. Izan ere, batzuetan teknikariek edo politikariek mugatu edo baldintzatu egin dezakete herritarren parte-hartzea, baina beste batzuetan ezinbesteko informazioa daukate herritarrei laguntzeko.

Prozesua ez da izango Udal Gobernuarena soilik. Irekia egongo da gainerako alderdi guztiei, eta berariaz guneak



sortuko dira informazioa emateko, segimendua egiteko eta parte hartzeko, betiere ere prozesuko balioekin eta helburuekin bat baldin badatoz, jarrera eraikitzailea baldin badute eta oztopo edo balazta izateko asmorik ez baldin badaukate. Kontu berezia izan hasiera-hasieratik inplikatzeko aukera ematearekin, eta ez amaieran eman aukera, dena zehaztuta dagoenean. Zenbateraino hartu behar duten parte gainerako alderdiek alderdi bezala? Herritar guztiek daukate parte hartzeko aukera, beste alderdietakoek ere bai, baina ez alderdiaren izenean. Arriskua dago bilerak pleno txikiak bihurtzeko, eztabaida politikoak. Baina korporazio osoarekin egin behar da lan, besteen ekarpenak jasotzeko. Garrantzitsua da beste alderdietakoak hasiera-hasieratik hartzea aintzat eta parte hartzea prozesuan.

Partaidetzako prozesua antolatzen edo zirriborratzen hasten garenean honetaz hitz egin eta aztertu non eta noiz izan daitekeen baliagarria edo kaltegarria udalaren esku-hartzea.

Zumaiako esperientziatik, lehen urtean egin zen prozesuan udal-ordezkariek ez zuten parte hartu, soilik prozesuaren gidaritza zerman enpresak. Hori, ordea, ez zen oso ondo baloratu, parte hartu zuten herritarrek ordezkarri politikoaren presentzia eskatu zutelako. Azken batean, udal-ordezkariek dira erantzungo diete behar edo nahiei. Beraz, ezinbestekoa da herritarrekin harreman zuzen hori lantzea eta 1. pertsonan jasotzea ekarpenak eta eskariak. Era berean, bidelagun garenez, ordezkarri politiko eta teknikoek, beraiek ere hartu behar dute parte prozesuan.

Goian aipatu bezala, ez da erraza erantzun soil bat ematea. teknikarien kasuan, ahalegin berezia egin behar da eurak erakartzen, askotan erresistentziak izaten baitira. Politikarien kasuan, “eskala txikiko plenoak” eکیدin beharko lirateke. Ahal dela, gobernu-erantzukizuna duten politikariek informazio-emaile edo laguntzaile papera hartu beharko lukete, beste inor konbentzitzen aritu ordez. Hala ere, zaila da paper hori mugatzea, kasuan kasuko egoerez hitz egitera eraman gaitzakeelako.

Alkatearen figura eta presentzia gehiegi eskatzen du jendeak. Adierazi behar dugu taldea garelara, denok plano berean gaudela, ez gaudela gu goian (eta alkatea gorago) eta besteak behean.

Aldundiak “Herritarrekin” prozesuan egindakoa nabarmentzekoa da eta eredia izan daiteke: azalpenak eman,





lantaldeetan utzi hitz egiten eta gero entzuteko itzuli berriz ere.

Jendeak askotan ikusten ditu zinegotziak udala bezala eta ez pertsonak bezala; badirudi zinegotziek ere ezin dutela eduki iritzi propioa, betiere "udala" direla.

Egiturak

Herritarren parte-hartzea errazteko, sustatzeko edo bideratzeko bitarteko edo egiturak sortzen edo lehendik daudenak erabiltzen ditugu. Horietako batzuk Administrazioak aurreikusita dauzka, eta aspalditik erabiltzen dira; beste batzuk, berriz, ez, beharren seinale. Besteak beste, ondorengoak aztertu ditugu:

Udal guztiek dauzkate batzorde informatiboak, gaika antolatuta. Batzorde horietan normalean zinegotziek baino ez dute hartzen parte, eta elkarte edo eragileek, berariaz gonbidatuta eta gai jakinen inguruan. Usurbilen batzorde horiek irekiak dira, edonork (elkarte zein herritar) har dezake parte, eta ondo funtzionatzen dute; horrela, gaiak are gehiago jorratzen dira eta emaitza aberatsagoa izaten da. Pertsona eta elkarte horien parte-hartzea iraunkorra izaten saiatu behar dugu. Deialdi pertsonalizatuak egin behar dira batzorde guztietan. Batzorde hauetatik lantaldeak sor daitezke, bai iraunkorrak edo bai aldi baterakoak.

Zumaian batzorde informatiboetan alderdiek aholkulariak izenda ditzakete, alderdi horren izenean lan egiteko, zinegotzien lana arintzeko... Aholkulari horiek gai horretan adituak edo interesa daukatenak dira.

Deban Zinegotzien Gunea sortu dute. Bertan, zinegotzi guztiak elkartzen dira gai jakin bat lantzeko, eta gai horretan adituak direnak edo jarrera jakin bat dutenak eramaten dituzte (adibidez, gaiak izan daitezke hondakinen kudeaketa, zezenketak...); edozein alderdik dei dezake Gunea.

Udaletan gaikako mahaiak edo foroak ugaritu egin dira: kultura, kirola, berdintasuna... Bitartekoak jarri, jarri dira herri askotan eta horiek martxan jartzeko borondatea badago; baina herritarren presentzia edo parte-hartzea txikia da oraindik, ez dugu lortzen guk nahiko genukeen martxa izatea. Nolanahi ere, gogoratu behar da urratsak pixkanaka eman behar ditugula, eta aldaketa ez dugula lortuko egun batetik bestera. Denbora beharko dugu mahai edo foro hauek baliagarriak diren edo nolako emaitza dakarten ikusteko.

Foroak sortu behar ditugu departamentuetan eta gune horiek benetan erabakigarriak izango direla bermatu. Askotan udalak duen funtzionamendu azkarragatik, soilik gauza jakin batzuk galdetzen dira eta herritarrak sentzazioa dauka udalari interesatzen zaiona bakarrik galdetzen zaiola herriari... Funtzionamendu eta lan egiteko modua aldatu behar dugu.

Gai konkretuen inguruan bilera irekiak antola ditzake udalak (aurrekontuak, hondakinak...) eta bilera horiek baliatu bertaratzen den jendearekin parte hartzeko ariketa bat egiteko gai konkretu horren inguruan taldetxotan ekarpenak edo ideiak jasoz.

Demokrazia zuzena (erreferenduma, herri-galdeketa...) erabiltzeko aukera ere hor dago, baina betiere parte hartzeko plangintza handiago batean txertatuta egongo da, fase bat gehiago izango da.

Udal barruko koordinazioa

Udalerria eta biztanle-kopurua zenbat eta handiagoak, orduan eta handiagoa udaletxea, orduan eta konplexuagoak izaten dira sailak, batzordeak, teknikariak, langileak... Parte hartzeko proiektuak bultzatzean, udala handia bada jende askori eragingo dio eta beharrezkoa izaten da sailek edo politikariek eta langileek elkarren berri izatea eta batez ere koordinatzea. Komeni da koordinazio hori iraunkorra izatea, ez izatea puntuala edo arazoak daudenean bakarrik biltzea; horregatik, beharrezkoa da koordinatzeko egiturak sortzea. Horretarako adibideak badaude Villabonan eta Urretxun: Barne Koordinazioko Bilera eta BKT.



Baliabideak

Parte-hartzea bultzatzeko, ezinbestekoa da behar bezalako baliabideak jartzea. Borondateaz gain, beharrezkoa da baliabide ekonomikoak, pertsonalak, materialak... jartzea.

EKONOMIKOAK

Udalak parte hartzeko baliabide edo bitarteko batzuk jartzeko ez du behar aparteko dirurik, baina beste batzuetarako ezinbestekoak izango dira gastu batzuk eta beharrezkoa izango da diru-partidak aurreikustea aurrekontuetan.

Prozesu batzuetarako agian nahiko baliabide izango dugu udaletan bertan, baina beste batzuetarako beharrezkoak izango da kanpoko laguntza eta hori dirua da.

Halaber, kontuan izan behar da zenbait prozesuk edo jarduerak diru-laguntzaren bat jaso lezaketela (Aldunditik, Jaurilaritzatik...) eta horien berri izan eta lortzea garrantzitsua da, udalek ez hartzeko karga guztia beraien gain.

GIZA BALIABIDEAK

Gure tamainako udaletan giza baliabide ugari ditugu udalen egunerokorako: teknikariak eta langileak. Urte askotan lan egiteko era batean ohitu dira, eta orain guk esaten diegu gauzak beste era batera egin nahi ditugula, beste era batera lan egitea posible dela. Udal-teknikari eta -langile askorentzat parte hartzeko prozesuak aparteko lanak dira, aukera gisa ikusi beharrean arriskutzat edo mehatxutzat jotzen dituzte. Parte hartzeko prozesuak gauzatzeko orduan, udal-teknikariak eta -langileak batzuetan oztopo bihurtzen dira, laguntza izan beharrean.

Garrantzitsua da udaletako langile eta teknikariak hasiera-hasieratik inplikatzeko parte hartzeko prozesuetan eta parte hartzeko kulturaren, prozesuak beraiekin diseinatzea, hau da, ez aurkeztea beraiei jada diseinatuta dagoen zerbait, prozesuak beraienak ere badirela sentitu behar dute, eta emaitzak onerako izango direla. Erakutsi behar diegu erabakiak ezin dituztela soilik beraiek hartu eta herriaren beharrei teknikoki erantzutea dela beraien lana. Teknikariekin ezinbestekoa da barne-komunikazioa eta harreman pertsonalak ondo lantzea. Azkenik, beharrezkoa da teknikari eta langileak parte hartzeko prozesuetan trebatzea. Aztertu zer profiletako jendea dagoen, eta horietako batzuk hautatu, trebatu, parte hartzeko prozesuetan eragile eta bideratzaile izan daitezten.

Azkenik, parte hartzeko prozesuetan askotan behar izaten dira bideratzaile edo dinamizatzaileak. Horietan laguntzeko, herritarrek bilatzea eta trebatzea lehenesten dugu.

MATERIALAK

Parte-hartzea bultzatzeko eta errazteko, ahal den neurrian komeni da udalek baliabideak eskuratzea edo egokitzea, eta horiek aurreikustea ere ezinbestekoa da: jendea elkartzeko lokal eroso eta lanerako modukoak, ordenagailuak eta kanoiak, argazki-kamerak, pantailak, ordenagailua, megafonia, altzariak (eserlekuak)... Askotan badira ekipamendu horiek dituzten lokalak (gehienetan kultur etxeak), baina parte-hartzea areagotzen laguntzen duten neurrian, komeni da horiez guztiez hornitzea eta herritarren eskura jartzea.

Araudia

Herri batzuek dagoeneko onartu dituzte parte hartzeko ordenantzak edo araudiak, herritarrek non eta nola har dezaketen parte legez arautu dute. Beste batzuek, berriz, nahiago dute lehenengo parte-hartzean ibilbidea egin, egindako bideari begiratu eta ondoren arautzea. Gainera, edozer gerta ere, komeni da herritarrek parte hartzeko bideak ziurtatzea edo blindatzea, etorkizunerako ziurtatzea.

Orain egin beharrean, egokiagoa iruditzen zaigu legealdiaren amaierarako egitea. Gure ustez, orain arte legeak ez dira muga izan parte hartzeko prozesuak gauzatzeko, parte-hartzea nola gauzatu den idatziz jasotzea garrantzitsua da etorkizunerako, baina orain ez da lehenetsia. Egokia litzateke prozesu batzuk aurrera eraman



ondoren eta legegintzaldia amaitu aurretik egitea araudia. Esperientzia horrekin hobeto jakingo dugu zeren inguruan arautu behar dugun.

Parte hartzeko era ez-presentzialak

Teknologia berriek aukera ematen dute parte hartzeko beste era batzuk ere jorrazteko: sare sozialak, posta elektronikoa, webgunea... Gaur egun, herritar askok daukate horietarako sarbidea eta sarri-sarri erabiltzen dituzte.

Etorkizunean gero eta garrantzi handiago izango duen tresna izanik, Sarean parte hartzeko era ez-presentziale-rako bideak jarri behar ditugu. Gaur egun mundu birtualean bizi gara gero eta gehiago, eta, gainera, joera gero eta handiagoa da.

Erraza da parte hartzeko prozesu presentzialetako dokumentazioa denen eskura jartzea, ekarpenak egin ahal izateko; nolana ere, inbertsio ekonomikoa eta arreta eskatzen du (webgune dinamiko bat, arduradun bat...). Urretxun webgune berezi bat egin dute parte-hartzearen inguruan, Udalaren webetik kanpo; hor jartzen dira parte hartzeko prozesu guztietan sortzen diren materialak.

Halaber, udalek sare sozialetan presentzia eduki behar dute.

Azkenik, ondo ikusten dugu bide ez-presentzial hau indartzea, baina betiere presentzialen osagarri, presentzialari lehenetsua emanda.

Barne-komunikazioa

Udalaren barruko komunikazioa oso garrantzitsua da parte-hartzea eta parte hartzeko prozesuak behar bezala gauzatzeko. Udal-langileei ez ezik, udaleko alderdi politiko guztiei eman behar zaie asmoen berri, eta ahal baldin bada guztien adostasuna bilatu, elkarlanean jardun.

Parte hartzeko prozesua diseinatzerakoan, egokiena litzateke lantalde bat sortzea, hau da, alderdi politikoekin, udal-teknikariekin eta herritarrekin. Horren ardura zinegotzi batek hartu beharko luke eta prozesu guztia dinamizatu. Ez bada gaitasunik ikusten, kanpo-aholkularitzak dinamizatu beharko luke.

Benetako garrantzia eman nahi badiogu prozesuari aurrez aurreko kontaktua egin behar dugu prozesuan inplikatu nahi ditugun teknikari eta alderdi politikoekin (ez da nahikoa email bat bidaltzea). Bilera batera deitu edo banakako kontaktua egin. Beharrezkoa da prozesuari eman nahi diogun garrantziaz jabetzea bestek.

Batzuetan ahaztu egiten zaigu barne-komunikazioa, baina behar duen garrantzia eman nahi diogu. Gure ustez, lehenengo barruko komunikazioa da, eta gero kanpokoa.

Kanpo-komunikazioa

Gure sisteman ezinbesteko tresna izango da kanpo-komunikazioa. Parte-hartzeak eta komunikazioak elkarrekin joan behar dute. Gakoa da gizarte ez-organizatura heltzea.

Tamaina honetako herri askotan daude komunikazio-arduradunak, edo kanpo-komunikazioak badauka garrantzia eta zaintzen da. Pertsona horiek prozesuaren baitan integratu behar ditugu, ahal baldin bada prozesua bultzatuko duen lantaldearen baitan eta hasiera-hasieratik.

Parte hartzeko proiektuaren komunikazio-plana egitea eta beste kasuetan herrian ohikoak diren baliabideak erabiltzea: gutunak, gonbidapenak, kartelak, bandoak, prentsaurrekoak, prentsa-oharrak...

Herri gehienetan dago udal-aldizkaria edo herri-aldizkaria, eta horretaz baliatu.



Garrantzitsua eta askotan egiten dugun akatsa: lan handia hartzen dugu prozesuan diseinatzen eta ondoren komunikazioko lanei ez diegu behar adinako garrantzia ematen, edo denbora gainera etorri zaigulako edo indarrak prozesuaren beste atal batzuetan gastatu ditugulako.

Behar-beharrezkoa da komunikaziorako giza baliabideak jartzea.

Ez daukagu barneratuta kudeaketaren barruko beste pauso bat dela eta nahitaez egin behar dela prozesuak ondo irteteko.

Udal-aldizkaria ez da nahikoa, bi hilean behin ematea informazioa.

Lan handia egiten dugu aldizkariarekin, eta batzuetan zalantza geratzen zaigu ea egiten dugun ahalegina eta jasotzen ditugun emaitzak bat ote datozen.

Gaiak

Badago parte-hartzea lantzeko edo bultzatzeko borondatea, baina askotan ez dakigu nondik hasi, nola jarraitu... Zalantzak izaten dira zer gai landu behar diren parte-hartzearen bidez eta zein ez, nondik hasia komeni den...

Batzuetan badirudi gai jakin batzuk baino ez direla lantzen parte-hartzearen bidez, eta denak landu daitezke. "Beste" gai batzuk ere jorratu behar ditugu parte-hartzearen bidez: aurrekontuak, arau subsidiarioak.... Galetan ez dugu ikusten mugarik.

Orain arte bazeuden gai batzuk "barruan" lantzeko, herritarrek parte hartu gabe. Gai horiek adituentzat ziren. Orain gai horietara ere zabaldu behar dugu parte-hartzea.

Baina ezin gara ibili beti parte hartzen eta beti parte hartzen. Aurrekontuetan, adibidez, dena eraman behar



dugu edo zati bat? Pertsonalaren gaia lantzea badago parte-hartzearen bidez?

Benetan garrantzitsua da poliki-poliki gauzak zabaltzen hastea. Gauzak ezin dira egin zuritik beltzera, Otik 100era, baizik eta pixkanaka, egiten direnak ondo egin eta betiere pixkanaka aurrerapausoak eman.

Aurrekontuetan, gastuez gain, sarrerak ere azter daitezke parte hartzeko prozesuen bidez.

Bestalde, ahalegin berezia egin da auzoekin harremanak ezartzeko, eta horretarako hainbat esperientzia egin dira, batez ere auzoetara joan eta auzotarrei entzun. Esperientzia horietako gehien-gehienak positiboak izan dira, eta bidea eginda edo bitartekoa jarrita dagoenez, bestelako gaiekin ere jo beharko genuke auzoetara.

Auzoetako bilerak ez dute izan behar soilik auzoko arazoak entzuteko. Herri osoari eragiten dien kontuen aurrean (aurrekontuak, hondakinak...) beharrezkoa da auzoz auzoko bilerak planteatzea gertutasun horrek jende gehiago erakartzen duelako.

Aurrera begira

Prozesuaren amaierara iritsirik eta egindako bideari eta lanari begira, jabetzen gara ez dugula lana amaitu. Proposamen honek hainbat hutsune, gabezia, moldatu beharreko alderdi... badauzka, baina tresna irekia eta moldagarria den neurrian, etorkizunean hobetzeko aukera zabalik utzi nahi dugu, are gehiago laster egin nahi den topaketaren ondoren eta beste lantaldeetakoek zer proposatzen duten ikusita.

Lanean aritu garenon proposamena da 2013ko udara aldera saio bat edo batzuk egitea, elkartu eta aldaketak erabakitzeko.



1.2.4. Herri handien Parte Hartzeko Sistema

Gogoeta- eta eraikitze-prozesu partekatua:

Herri handietarako herritarrek parte hartzeko sistema elkarrekin marraztuz

*Lantaldearen emaitzekin eta "Herritarrekin" sarearen II. Topaketako gogoetekin osatutako dokumenturen bertsio laburtua.
2013ko otsaila*

Gipuzkoako herri handi baten azalean jar gaitezen;
eta demagun herri horretako udalak herritarren parte hartzea bultzatu eta sustatu nahi duela.

Nola? Zer egin behar du horretarako? Zeintzuk dira eman ditzakeen pausoak?

Galdera horiek izan dira, hain zuzen, Gipuzkoako 10.000 biztanlez gorako herri-talde bateko ordezkariekin burutu berri dugun gogoeta-prozesuaren abiapuntua.





Gure helburua

Gipuzkoako 10.000 biztanlez gorako herri-talde bateko udaletako ordezkariekin egindako gogoeta-prozesuaren helburua zein izan da?

Gipuzkoako herri handietako udal-ordezkarri batzuekin abian jarritako prozesuak udalerriek eurek “Herritarrekin” sarearen bileretan antzemandako behar bati erantzun eman nahi izan dio. Zehazki, **gure helburua** izan da:

- **Udal “handi” baterako herritarrek parte hartzeko sistema bat marraztea.** Alegia, herritarren parte-hartzea bere egiteko moduan eta kudeaketa publikoan barneratu nahi duen udal batek definitu eta garatu beharreko egitura edo arkitektura lantzea.
- **Marrazketa hori gogoeta eta eraikuntza kolektibo baten bidez egitea.** Hots, Gipuzkoako herri handiekin batera lantzea, elkarrekin, gure abiapuntu propiotik eta aurrera begira dugun ikuspegiarekin.
- **Eta taldeko zein Gipuzkoako beste herri handientzat baliagarria izan daitekeen sistema osatzea.** Ondoren, behin osatutakoan, Gipuzkoako “Herritarrekin” sareak urte hasieran burutu duen II. Topaketan aurkeztu delarik sistema ezagutzera eman, partekatu eta aberasteko. Eta ulertuz gaur egun dakigun eta garenetik osatutako sistema dela; abiapuntu bat; eta ziur etorkizunean denon artean hobetuko duguna.

Lortutako emaitzak

Zein emaitza lortu ditugu gogoeta-prozesuan eta Topaketan egindako kontrastean? Herritarrek parte hartzeko sistema bat marraztu nahi duen herri handi bateko udalak zer hartu behar du kontuan?

HERRITARREK PARTE HARTZEKO SISTEMA: DEFINIZIOA

Zertaz ari gara? Zer da herri handien ikuspegitik marraztu nahi eta “sistema” hitzez bataiatu dugun hori?

- Herritarrek parte hartzeko sistema diogunean herritarren parte-hartzea bere egiteko moduan eta kudeaketa publikoan barneratu nahi duen udal batek definitu eta garatu beharreko egitura edo arkitekturaz ari gara.

HERRITARREK PARTE HARTZEKO SISTEMA MARRAZTE ALDERA: ABIAPUNTUA

Sistema hori osatu duen herri handi batek, nondik hasi behar du bere ibilbidea? Zein da abiapuntua?

Lantaldearen iritziz, herritarren parte-hartzea bere funtzionamendu eta egiteko estiloan barneratu behar duen udal batek hori lortzeko marraztu behar duen sistema lantzerakoan 2 aurrekari kontuan hartu behar ditu(1):

- Udalak herriaren etorkizunerako duen ikuspegi, bisio, estrategia: herriko eragileekin landua eta partekatua izan behar lukeen bisioa, alegia.
- Udalak herritarren parte-hartzearekiko daukan ikuspegia; hau da, herritarren parte-hartzearen zein definizio daukan oinarri.


Beste modu batera esanda:

- Udalak, dagozkion ardura eta eskumenetatik, bere herriaren etorkizunerako norantza bat, ikuspegi bat, bisio bat izan behar du, horrek emango baitio zentzua parte-hartzeari, eta ez alderantziz. Gainera, bisio hori udal barruko zein kanpoko –finean udalerriko– eragileekin landua eta partekatua izan behar luke. Adibide gisa, herri batzuetan plan estrategikoak dituzte, edo Agenda 21a edo herri gisa etorkizunerako ikuspegi marraztua. Hori ardatz izanik, udalarentzat herritarren parte-hartzea tresna gisa garrantzitsua bada, berau bere funtzionamenduan eta estiloan txertatzeko sistema bat, egitura bat, modu bat definitu beharko du. Eta noski, udal bakoitzak, herri bakoitzak herritarren parte-hartzea ulertzen duenaren arabera izango da sistema hori.

(1) Bi aurrekari hauek udal bakoitzak landu beharrekoak dira, udal bakoitzak egin beharreko gogoetatik, eta horregatik ez dira gogoeta-prozesu honetan zuzenean jorratu.



Beraz, eta modu grafikoan azalduta, herritarrek parte hartzeko sistema bat osatu nahi duen udalaren lehen pausoa edo abiapuntua ondokoa da:



HERRITARREK PARTE HARTZEKO SISTEMA: 5 OSAGAIZ OSATUTAKO ARKITEKTURA

Demagun abiapuntua ongi errotua dugula: hau da, herri handi gisa badugula bisio edo ikuspegi estrategiko bat eta baita herritarren parte hartzea ulertzeko modu bat ere.

Horietan oinarrituz, parte hartzeko sistemaren arkitekturak zein izan behar du? Zeintzuk dira bere osagaiak?

Talde-gogoetaren arabera, 5 dira osagaiak:

- Oinarrizko irizpideak edo ezaugarriak.
- Barne-antolaketa.
- Epe luzerako parte-hartze plangintza.
- Urteroko parte-hartze agenda.
- Kanpo-antolaketa.



Modu grafikoan azalduta:

Herritarrek parte hartzeko sistemaren 5 osagaiak

Sistema hori marrazteko zenbait elementu-osagai landu eta definitu beharko ditu udalak (ez preseski idatzita dauden ordenean):

a. IRIZPIDEAK-EZAUGARRIAK:

- Herritarrek parte hartzeko sistemak bete beharreko irizpideak edo ezaugarriak (udalak duen parte-hartzearen ikuspegia lotuta)

b. BARNE ANTOLAKETA

- Nori dagokio parte hartzeko sistemaren ardura? Zein da haren garapena bermatuko duen barne-antolaketa?

c. EPE LUZERAKO PARTE-HARTZE PLANGINTZA

- Diagnostika: Zein dugu abiapuntua? Parte-hartzearen diagnostika-mapeoa.
- Helburuak: Herritarren parte hartzeko ikuspegitik, zeintzuk dira udaleko helburu erlazionalak?
- Plangintza: Helburu horien arabera, zein izango da parte-hartzearen esparruan udalaren plangintza, bere lan ildo nagusiak?
- Jarraipen eta ebaluazioa: Nola jakin helburu orokorrak betetzen goazen?

d. URTEROKO PARTE-HARTZE AGENDA

- Urterako parte hartzeko agenda: parte-hartzearekiko udalak dituen helburu erlazionalak eta urteko egitasmo-rako helburu substantiboak (lehentasunezko proiektuak, egitasmoak) uztartuz, zein izango da parte-hartze agenda?
- Agenda honek barne hartuko ditu:
 - Ikuspegi erlazionaletik parte-hartzea sustatzeko gauzatu beharreko egitasmoak.
 - Udaleko beste sail eta gaietatik, herritarren parte-hartzearekin kontatuz gauzatu asmo diren proiektu-egitasmoak.
- Jarraipen eta ebaluazioa: Nola jakin gauzatutako egitasmo bakoitzaren helburuak bete ditugun?

e. KANPO-ANTOLAKETA

- Komunikazio-mekanismo eta kanalen mapa (parte-hartzearen oinarriko elementu gisa)
- Mekanismo eta prozesuen mapa: Abiapuntuko diagnostika-mapeoa eta plangintza uztartuz, zein da kanpora begirako parte-hartzearen antolaketa?



OSAGAI BAKOITZERAKO: PROZEDURAK, GOMENDIOAK, KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Nondik hasi sistema hori osatzen? Arkitektura, 5 osagaiak argi izan eta hurrengo pausoa eman nahi duen udalak nondik jo dezake?

Atal honetan osagai bakoitzerako prozedurak, gomendioak, kontuan hartu beharrekoak jasotzen saiatu gara. Gogoeta-prozesuan protagonista izan den lantaldearen esperientzia, ezagutza eta proposamenetik eta II. Topaketan izandako gogoetatik datozenak dira.

Irizpideak edo ezaugarriak:

Irizpideez ari garenean, herritarrek parte hartzeko sistemak bete beharreko ezaugarriez ari gara. Alegia, sistemaren oinarrian egon eta ezinbestez bete beharreko "minimoak", nolabaiteko testuingurua markatzeaz gain udaletik bultzatuko den parte-hartzearen kalitatea ziurtatzen lagunduko dutenak. Gainera, irizpide edo ezaugarri hauek lotura zuzena izango dute, noski, udalak parte hartzearekiko duen ikuspegiarekin.

Eta zeintzuk dira?

- **Udal bakoitzak landu beharko ditu** bere sistemara eta parte hartzeaz duen ikuspegiara egokitutako irizpideak.
- Eta horretarako garrantzitsua da osatze-prozesuan gizarte-eragileak, politikariak, teknikariak... barneratzea. Parte-hartzeaz lantzea, alegia.

Hala ere, adibide gisa eta iada ibilbide bat egin duten udalen esperientzia aprobetxatze aldera, inspiragarriak gerta daitezke Zarauzko Udalak landutakoak.

Zarauzko Udalaren parte hartzeko sistemaren oinarrian dauden irizpideak

OHARRA: 1. eta 2. irizpideek Zarauzko Udalak herritarren parte-hartzeaz ulertzen duena definitzen dute.

3. irizpidea. Udalak bultzatutako herritarren parte-hartzeak plangintza egoki bati erantzun behar dio, honelako galderei erreparatuz: Zertarako? Zein helburu zehatz lortu nahi dira? Nortzuk? Zein arau eta mugekin? Nola? Noiz? Non? Zein baliabiderekkin? Zein informaziorekin? Zein jarraipen eta ebaluaziorekin? Zein udal konpromisorekin?

4. irizpidea. Zarauzko Udalaren herritarren parte-hartze ereduak Udalerriko eragile eta diskurtsoen aniztasunaren presentzia eta parte-hartzea bermatu beharko du. Hau da, edozein parte-hartze mekanismo edo prozesutan diskurtso desberdinen, adin desberdinen, gizon-emakumeen eta udalerriko errealitate desberdinen arteko oreka landu beharko da.

5. irizpidea. Edozein parte-hartze mekanismo edo prozesu diseinatu eta planifikatzerakoan, Zarauzko Udalak bultzatutako herritarren parte-hartzeak argitasunez definitu beharko ditu:

Landuko den edukia edo gaia.

Muga tekniko, ekonomiko edo politikoak edo eta eskuduntza-mugak.

Lortuko diren emaitzekiko udalak hartutako konpromisoak, modu honetan mekanismo edo prozesuen izaera aholkulari edo erabakitzailearen eztabaida gaindituz.

6. irizpidea. Zarauzko Udalak zabalduetako parte-hartze mekanismo edo prozesu bakoitzak eztabaidagaiari buruzko diskurtso desberdinak identifikatzen –irekiera fasea– eta ondoren adostasunak eta emaitzak sortzen –itxiera fasea– lagunduko duen lan-metodologia parte-hartzailea definitu beharko du.

7. irizpidea. Zarauzko Udalak parte-hartze mekanismo edo prozesu desberdinen plangintza egokia egingo du denborak, erritmoak, iraupenak, tokiak eta espazioak –fisiko zein birtualak– kontuan hartuz.

8. irizpidea. Zarauzko Udalak planifikatutako herritarren parte-hartze eredu bermez garatzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonalak, ekonomikoak, informatikoak eta denborari dagozkionak definituko ditu.



9. irizpidea. Zarauzko Udalarentzat ezinbestekoa da eztabaida eta lan parte-hartzailearen edukiari dagokionez beharrezkoa den informazio eta dokumentazio guztia aurrez, garatzeko momentuan eta ondoren eskaintzea. Informazio hau gainera ulergarria, gertukoa eta herritarren hizkuntzara egokitutakoa izango da, betiere ahalbideen eta baliabideen arabera (8. irizpidea).

10. irizpidea. Zarauzko Udalak garatutako parte-hartze mekanismo eta prozesuen etengabeko jarraipen eta ebaluazioa egingo ditu, ikasketak identifikatu eta hobekuntzak barneratzeko helburuz. Horretarako hasieran definitutako helburuak izango dira abiapuntua eta inplikaturako pertsona eta eragileen balorazioak kontuan hartuko dira.

BARNE-ANTOLAKETA:

Sistemaren definizioaren arabera, parte-hartzea udalaren estiloan, egiteko moduan barneratu behar badugu, zeregin honen ardura ondo definitu behar du udalak. Beste hitzetan esanda, parte hartzeko sistema eta udalaren barne-antolaketa uztartu behar dira, eta horrekiko ardurak ondo zehaztu behar dira.

Ba al dugu barne-antolaketari buruzko gomendiorik? Kasu honetan, errezetak baino, lantaldean bildutako burutazioak dira partekatu dezakegun emaitza. Baina esperientzian oinarritutakoak izatearen balioa dutenez, aintzat hartzekoak dira oso.

- Herritarren parte-hartzea bultzatzeak udaletan lan egiteko modu eta estilo berriak eskatzen ditu.
- Lidergo politikoa ezinbestekoa da.
- Lidergo politikoari lotuta, lidergo edo ardura teknikoa beharrezkoa da.
- Hasieratik parte-hartzeari lotutako arautegia baino, egokiago deritzoguz bidea ekiteari.
- Gobernu taldeaz gain, beste talde politikoak (“oposizioa”) ere barneratu behar ditugu herritarrek parte hartzeko sistema marrazteko prozesuan eta bereziki barne-antolaketan.
- Barne-antolamenduari buruz hartutako erabakiak, prozedurak... idatziz jartzea komenigarria da.

Zehaztaperen handiagoz, eta lantaldearen esperientziatik ideia inspiragarriak batuz, ikus jarraian:

Herritarren parte-hartzea bultzatzeak udaletan lan egiteko modu eta estilo berriak eskatzen ditu.

Beste modu batera esanda: “Esan al daiteke herritarren parte-hartzea bultzatuko dugula, parte hartzeko sistema bat udaletxean ezartzeko lan esparrua berriak ezarriko ditugula, udaletxeen lan egiteko ereduak aldatu gabe modu integralean?”. Alegia: “barnea-kanpoa txanpon baten bi aldeak dira. Barrukoa aldatu gabe, kanporantz erlazionatzeko modua aldatzea ez da posible.”

Udal-kudeaketarako estilo berrien bila gogoeta sakona egitea ezinbestekoa da. “Txipa” aldatu behar dugu. Eta orain arteko esperientzien arabera, transbertsalitatea edo zeharkakotasunean egon daiteke gakoetako bat.

Lidergo politikoa ezinbestekoa da.

Parte hartzeko sistemarekiko eta oro har parte-hartze egitasmoekiko udalean lidergo politikoa izatea ezinbestekoa da.

Modua edo formula, udal bakoitzak hautatu edo landu behar du berea: zuzenean alkatetzaren konpromisoa, udal-gobernuarena (talde ikuspegitik), zinegotzigo sendo batekin...

Lidergo politikoari lotuta, lidergo edo ardura teknikoa beharrezkoa da.

Alegia, parte hartzeko gaiekiko ardura izango duen teknikaria, pertsona edo pertsonak ere behar ditugu. Batzuetan parte-hartze teknikariaren forma hartuko du, beste batzuetan bestelako gaietako norbaitek hartu deza-



ke ardura hori... Udal bakoitzaren esku gelditzen den erabakia da.

Hasieratik parte-hartzeari lotutako arautegia baino, egokiago deritzogu bidea ekiteari.

Eta, denbora pasa ahala, eginaren poderioz esperientziak batuz goazen eran, arautegia lantzekotan izan dadila eraiki den zerbait, funtzionatzen duen zerbait denboran mantentzen laguntzeko eta kultura-aldaketa horretan laguntzeko. Honen osagarri egoki deritzogu, bestalde, jada udalek dituzten arauak parte-hartzearen mesedetan egokitzea

Gobernu-taldeaz gain, beste talde politikoak (“oposizioa”) ere barneratu behar ditugu herritarrek parte hartzeko sistema marratzeko prozesuan eta bereziki barne-antolaketan.

Nola? Errezeta magikorik ez dago. Landu beharreko zerbait da, joko politikoa gaindituz modu eraikitzailean parte hartzea jorratuko bada.

Barne-antolamenduari buruz hartutako erabakiak, prozedurak... idatziz jartzea komenigarria da.

Idazte horrek parte hartzea eta honi lotutako lan-modu berriak sistematizatzen lagun dezakeelako, eta balioan jartzen lagundu ere.

EPE LUZERAKO PARTE-HARTZE PLANGINTZA:

Parte-hartzea egiteko modu edo estilo gisa udalaren jardunean barneratu nahi badugu, horrek eskatzen duen aldaera errazteko epe luzerako plangintza egokia egitea ezinbestekoa dela deritzogu. Hauxe litzateke hirugarren osagaia.

Beste hainbat gaitan egin ohi dugunez, epe luzera (4, 5... edo 8 urte barru) parte-hartzearen esparruan zer lortu nahi dugun, gure udalaren norantza zein izatea nahi dugun argi izatea garrantzitsua da.

Eta nola egin parte-hartzearen epe luzerako plangintza? Talde-gogoetari esker prozedura posible bat marraztu dugu. 4 pausoz osatutako prozedura da:

1. Parte-hartze diagnosis-mapeoa egin.

Pauso honen helburua da gure herrian, udaletik parte-hartzearen esparruan egin dena eta gaur egungo egoera zein den ezagutzea. Nolabait abiapuntua finkatzea, “nondik hastera” goazen argi jakitea.

2. Parte-hartze helburuak finkatu.

Udalak parte-hartzearen esparruan dituen helburu erlazionalak argi definitzea.

Adibide bat jarritz: Euskara Planak epe luzera euskararen egoerari lotutako helburuak markatuko ditu (adibidez erabilera maila hainbestean igotzea, ezagutza maila areagotzea...). Ba adibide horri jarraituz, parte-hartzearen esparruan udal gisa lortu nahi duguna definitzea eskatzen du pauso honek.

3. Epe luzerako parte-hartze plangintza egin.

Finkatu ditugun helburuak lortu ahal izateko epe luzera udalak bultzatuko dituen lan-ildo nagusiak definitzean datza pauso honek.

Esate baterako gizarte-mugimendua sendotzea bada helburuetako bat, zein lan-ildo abian jarriko ditu udalak hori lortze aldera?

4. Jarraipena eta ebaluazioa.

Epe luzerako edozein plangintzak etengabeko jarraipena eta ebaluazioa eskatzen ditu, bide zuzenean goazela bermatze aldera (eta, ezezko kasuan, ibilbidea egokitzea ahalbidetzeko).

Horren harira, helburuak, plangintza eta udala egiten doana batera doazen edo ez ikusteko tresnak, adierazleak, ebaluazio-sistema definitu behar du udalak.



Modu grafikoan azalduta:

Epe luzerako parte-hartzearen plangintza (adibidez, 4 urtean behin)

Diagnosia-mapeoa

Abiapuntua: Parte-hartzearen diagnosia-mapeoa.

- Zein da parte-hartzearen ibilbidea eta egoera herrian eta udalean?
- Herritarrek udalaren kudeaketan parte hartzeko egun zein mekanismo daude? Nola funtzionatzen dute? AMIA
- Kanpora begira, soziograma: eragileak, guneak, erlazioak

Parte hartzeko helburuak

Helburu erlazionalak:

- Herritarren parte hartzeko ikuspegitik, zeintzuk dira udaleko helburu erlazionalak, epe luzera?

Plangintza

Plangintza:

- Helburu horien arabera, zein izango da parte-hartzearen esparruan udalaren plangintza? Zeintzuk izango dira lan-ildo nagusiak?

Jarraipena eta ebaluazioa

Jarraipen eta ebaluazioa:

- Nola jakin helburu orokorrak betetzen goazen?
- Adierazleak?

Nola? Udal bakoitzak zehaztu behar du bere bidea, beti ere parte hartzea egiteko moduetan txertatuz; eta udal barruko zein kanpoko eragileak kontuan hartuz.



URTEROKO PARTE HARTZEKO AGENDA

Bagoaz aurrera! Demagun udal gisa egin dugula epe luzerako parte-hartzearen plangintza. Baina datorren urteari begira, zer? Nondik hasi?


Epe motzera taldearen gomendioa da urteroko parte hartzeko agenda prestatzea. Eta pauso honetan agertzen da parte-hartzea zeharkako gaia izatearen eraginetako bat. Izan ere, hurrengo urteroko parte hartzeko agenda egiteak eskatzen du:

1. Batetik, epe luzerako egindako plangintza horretatik datorren urtera begirako lehentasunak markatzea. Alegia, epe luzera begira definitutako lan-ildo eta egitasmo posibleetatik aukeratzea zeintzuk abian jarriko dituen udalak.
2. Baina bada kontuan hartu beharreko beste aldagarri bat ere: parte-hartzea zeharkako gaia izaki, eta egiteko modu bat, izango dira udalaren beste sail eta gaietan (euskara, hirigintza, ogasuna, kultura, ingurumena...) herritarren parte-hartzea barneratuz gauzatu nahi diren proiektu eta egitasmoak. Helburu sustantiboei lotutako parte hartzeko egitasmoak deituko diegu. Ba hauek ere urteroko parte hartzeko agenda horretan kontuan hartzea ezinbestekoa da, parte-hartzea modu egokian kudeatuko bada.

Eta bien batuketak emango dizkigu hurrengo urteroko parte-hartzearen esparruan udalak gauzatzeko egitasmo-lan ildo-proiektu posibleak.

Lantaldearen gomendio bat: "Parte-hartzearen plangintzan hobetu nahi badugu, saia gaitezen eguneroko gauza txikietan txertatzen".

Aipatutakoa, modu grafikoan:



KANPO-ANTOLAKETA

Azken osagaia, kanpo antolaketa: hau da, udaletik kanpora, herrira begira, herritarrek parte hartu ahal izateko udalak abian jarriko dituen komunikazio-mekanismo eta kanal eta parte hartzeko mekanismo eta kanalez ari gara.

Zer esan honi buruz?

Talde-gogoetaren ondorioetako bat da parte-hartzearen kanpo-antolaketa parte-hartzearen plangintzak, urteroko agenda eta abiapuntuko mapeoak baldintzatutakoa izango dela. Hori horrela izanik, ba ote dago herri handi guztientzat baliagarria den “kanpo-antolaketa eredurik”?

Lantaldearen erantzuna, eta atal honetako emaitza, argia da:

- **Parte hartzeko sistemaren kanpo-antolamendurako ez dago errezeta edo “eredu” bakarrik. Udal bakoitzak marraztu behar du berea.** Parte hartzeko sistema osatzeko planteatu dugun prozesua egiteak (oinarrizko irizpideak finkatu, epe luzerako plangintza egin, urteroko parte hartzeko agenda definitu) eramango du udal bakoitza bere kanpo-antolamendua definitzera. Alegia: kanpo-antolamendu posible asko egon daitezke eta denak baliagarriak, kasuan kasu. Era berean, espazio-mekanismo-prozesu anitzak ere planteatu daitezke, asko oraindik asmatu berriak, betiere udal bati dagokion errealitate, ibilbide, erronka eta beharretara egokituko badira.
- **Marrazketa horretan sormena aplikatu beharreko ezinbesteko tresna da.** Udalak herritarrengandik urrun sumatzen eta sentitzen ditugu. Eta horri erantzun emateko arduraren parte hartzea bada ere, udaletik ahalegina egitea dagokigu herritarrentzat erakargarriak, interesgarriak eta baliagarriak diren parte-hartze mekanismo eta egitasmoak martxan jartzeko. Horien artean, gainera, mekanismo edo espazio egonkorrak zein puntualak egon ahal izango dira; gaikakoak; auzo-mailakoak;...

2

II.Topaketa



2.1. Topaketako hainbat datu

Eguna: 2013-02-01.

Lekua: Hernani, AEKren euskaltegia.

Ordutegia: 16:00-20:00.

Deituak: Gipuzkoako udaletako parte hartzeko hautetsi, teknikari eta laguntzaileak.

Gaiak:

1. Harrera eta girotzea
2. Sarrera
3. Oscar Reboloren hitzaldia
4. Lantaldeen aurkezpenak
5. Talde-lana
6. Balorazioa

ZK.	UDALA	IZEN-ABIZENAK	ARDURA
1.	Adunako Udala	Josu AMILIBIA ALSUA	Alkatea
2.	Albizturko Udala	Gregorio IRAOLA	Alkatea
3.	Antzuolako Udala	Markel Azkargorta	teknikaria
4.	Aretxabaletako udala	Ana BOLINAGA	Alkatea
5.	Asteasuko udala	Pilar LEGARRA	Alkatea
6.	Astigarragako Udala	Maite Olaziregi	Zinegotzia
7.	Aztiker	Arkaitz MARTINEZ DE ALBENIZ	Teknikaria/bideratzailea
8.	Aztiker	Enara GARCIA	Teknikaria/bideratzailea
9.	Beasaingo Udala	Zezenia HERRADOR	Zinegotzia
10.	Donostiako Udala	Amaia AGIRREOLEA GOMEZ	Teknikaria
11.	Donostiako Udala	Olatz MUJICA GONZALEZ	Teknikaria
12.	Donostiako Udala	Axier JAKA GOIKOETXEA	Zinegotzia
13.	Elhuyar Aholkularitza	Imanol AZKUE	Teknikaria/bideratzailea
14.	Elhuyar Aholkularitza	Helene ARMENTIA	Teknikaria/bideratzailea
15.	Eskoriatzako Udala	Beñat HERCE	Alkatea
16.	Eskoriatzako Udala	Mari Carmen Arrieta	Teknikaria
17.	Eskoriatzako Udala	Arantza Unzueta	Teknikaria
18.	Eskoriatzako Udala	Igor Ezpeleta	Zinegotzia
19.	Ezkiotsasoko udala	Garikoitz AIESTA	Alkatea
20.	Foru Aldundia	Arantza RUIZ DE LARRINAGA	Zuzendaria
21.	Hernaniko Udala	Luix INTXAUSPE	Alkatea
22.	Hernaniko Udala	Mertxe Gomez	Teknikaria
23.	Hernaniko Udala	Gloria Mendinueta	Zinegotzia
24.	Ibarrako Udala	Jesus PEÑAGARIKANO	Alkatea
25.	Itsasondoko udala	Erkuden MENDIZABAL	Zinegotzia
26.	Lasarte-Oriako Udala	Larraitz SAROBE	Teknikaria
27.	Lasarte-Oriako Udala	Alaitz MENDIZABAL	Zinegotzia



28.	Leitzako Udala	Josune MARZOL	Zinegotzia
29.	Leitzako Udala	Irati BARANDIARAN	Zinegotzia
30.	Lezoko Udala	Mikel ARRUTI	Zinegotzia
31.	Mutiloako Udala	Iñaki UGALDE ALUSTIZA	Alkatea
32.	Nola	Olatz ESTENSORO	Teknikaria/bideratzailea
33.	Oiartzungo Udala	Pello ARAMENDI	Zinegotzia
34.	Ordiziako Udala	Izaro INSAUSTI	Zinegotzia
35.	Orendaingo Udala	Gorka EGIA	Alkatea
36.	Ormaiztegiko Udala	Aitor IRAETA	Zinegotzia
37.	Prometea	Iciar MONTEJO	Teknikaria/bideratzailea
38.	Prometea	Zorione AIERBE	Teknikaria/bideratzailea
39.	Segurako Udala	Axier ALUSTIZA	Zinegotzia
40.	Segurako Udala	Idoia LOPETEGI	Zinegotzia
41.	Tolosako Udala	Garikoitz LEKUONA	Teknikaria
42.	Tolosaldea garatzen	Garbiñe MENDIZABAL	Teknikaria
43.	Unibertsitate Autonomia	Oscar REBOLLO	Irakaslea
44.	Urretxuko Udala	Oihane ZABALETA	Alkatea
45.	Urretxuko Udala	Jon ALTOLAGIRRE ASKASIBAR	Parte-hartze zinegotzia
46.	Urretxuko Udala	Eñaut APAOLAZA	Zinegotzia
47.	Usurbilgo Udala	Alaitz AIZPURUA	Zinegotzia
48.	Villabona	Joxean CUBERO	Teknikaria
49.	Villabona	Nora URBIZU	Zinegotzia
50.	Zarauzko Udala	Nerea OLLOKIEGI	Zinegotzia
51.	Zarauzko Udala	Jabier ETXABURU	Zinegotzia
52.	Zeraingo udala	Arantzazu MUÑOA	Zinegotzia
53.	Zizurkilgo udala	Mikel UGARTE	Laguntzailea
54.	Zumaiako Udala	Maitane AGIRRE	Zinegotzia

Herriak eta parte-hartzaileak

	Herriak	Lagunak
Herri txikiak (1.000 arte)	7	7
Herri txiki ertainak (1.001-4.000)	5+1 (Leitza)	8
Herri ertainak (4.001-10.000)	10	16
Herri handiak (10.000tik gora)	7	13
Mankomunitateak		1
Bideratzaileak, Aldundia, Oscar Rebollo		9
GUZTIRA	30	54

Herrietako ordezkarien ardura

Hautetsiak: 33 (11 alkate+22 zinegotzi)

Laguntzaileak: 1

Teknikariak: 10



2.2. Topaketaren helburuak

Topaketaren bidez helburu hauek bete nahi genituen:

Helburu orokorra:

Berariazko lantaldeek egindako parte hartzeko sistemak ezagutzea, konpartitzea eta osatzea.

Helburu zehatzak:

- Parte hartzeko sistemak kanpoko beste ikuspegi kualifikatu batekin osatzea.
- Norberaren ikuspegia beste batzuenarekin zabaltea eta aberastea.
- Bakarka aritu diren lantaldeetako kideak elkartzea.
- Herritarrekin Sarean edo lantaldeetan parte hartu ez zuten herriak lehen aldiz gerturatzea eta etorkizuneko inplikatzeko lantaldeetan.

2.3. Topaketaren planteamendu metodologikoa

Topaketaren bidez, batez ere erakutsi eta osatu nahi genuen, eta orduan garbi genuen Topaketan lekua izan behar zutela batetik azalpenek eta bestetik egindakoa osatzeko edo aberasteko unek. Halaber, garrantzitsua iruditzen zitzaigun kanpoko erreferentzia garrantzitsu baten ikuspegia ere izatea, egiten ari garena osatzeko eta bide onetik goazela ziurtatzeko.

Horrela, II. Topaketa nola izango zen zehazten hasi ginenean, bi une nagusi aurreikusi genituen bideratzaileok eta GFako zuzendariak, berariaz egin genuen bileran:

1. Oscar Rebolloren hitzaldia.
2. Lantaldeek egindako lanetik abiatuta, talde-lanaren bidez sistemak osatzea edo aberastea.

Topaketaren eguna eta orduari dagokionez, otsailaren 1a, ostiral arratsaldean egitea erabaki genuen, batez ere parte hartzea nahi genuenetako askok udaletik kanpo egiten dutelako lan goizetan, eta arratsaldea libratzea errazagoa zelako. Halaber, horrek aukera ematen zuen Topaketa amaitutakoan elkarrekin jarraitzeko harremanak lantzen, eta aurreko eskaera bati erantzunez, sagardotegian afaltzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek.

Topaketari dagokionez, zati nagusi hauek aurreikusi genituen:

1. **Harrera, izen-ematea:** iritsi ahala, ongi etorria eman eta parte-hartzaileen datuak jasoko genituen, ohi bezala. Pegatinak ematea aurreikusi genuen, bakoitzari bere izenarekin eta kolore desberdinarekin (biztanle-kopuruaren arabera herrien koloreak, ikus asistentzia-taula). Halaber, “2012. Urtearen balorazioa eta 2013rako plangintza” txostena (Zumaiakoa) banatu genuen.
2. **Girotzea:** parte hartuko zuten batzuk hasiera-hasieratik dabilta Sarean; beste batzuk, berriz, berriak ziren, inoiz ibili gabeak. Horregatik, girotzeko ariketak, batez ere, izan behar zuen jendea harremanetan jartzeko eta hasiera-hasieratik denei parte hartzeko aukera emateko, hitz egiteko eta entzuteko. Halaber, arina eta azkarra ere izan beharra zeukan, ez baikeneukan denbora askorik eta jende asko espero baikenuen.
3. **Oscar Rebolloren hitzaldia.** Irakasle katalana aditua da parte hartzeko sistemetan, eta aukera bikain hau aprobetxatu beharra zegoen hitza emateko eta parte hartzaileei galderak egiteko.
4. **Lantaldeen aurkezpena:** lantalde bakoitzak bere lana aurkeztea, nahi zuen baliabide eta euskarrien bidez.



5. **Talde-lana:** biztanle-kopuruaren araberako ohiko 4 lantaldeak egitea, eta herri bakoitzak berean edo nahi zuenean kokatu behar zuen. Besteak beste, hauek ziren helburuak: talde bakoitzean landutakoa parte hartu ez zutenekin partekatzea eta ongi azaltzea, patxadaz eta lasai, eta tarte bat hartu zalantzak argitzeko edo galderetarako; taldekideen ikuspegia, iritzia... jasotzea eta beraien udalerrietan prozesua garatzeko “txispa” pizten saiatzea; beste lantaldeetako lanetatik gurerako aprobetxagarria dena identifikatzea; 2013rako asmoen berri eman eta zer lan egin daitezkeen aurreikustea...

6. **Plenaria:** talde-lanaren ondoren, aurreikusi genuen denok elkartzea berriz ere, taldeetan egindakoa konpartitzeko.

7. **Balorazioa:** amaitzeko, saioa baloratzea aurreikusi genuen.

8. **Agurra.**





2.4. Topaketak emandakoa

2.4.1. Girotzeko ariketa eta sarrera

Hasteko, elkar ezagutzeko ariketa bat egin genuen, girotzeko. Papertxo txiki bana eman genien, ondorengoa- rekin:

(papera alde batetik)

IRIZPIDEA/BALDINTZA	IZENA eta HERRIA

Gelatik pasillora irten, eta agindu genien hurrenez hurren irizpide hauek betetzen zituzten pertsonak aurkitzeko:

- Bilatu behar duzue ezagutzen ez duzuen eta hautetsia den norbait, eta paperean apuntatu izena
- Bilatu behar duzue ezagutzen ez duzuen eta hautetsia ez den norbait, eta paperean apuntatu izena
- Bilatu behar duzue ezagutzen ez duzuen norbait, galdetu zer espektatibarekin etorri den eta hori idatzi atzealdeko orrian

(papera beste aldetik)

ESPEKTATIBA

Besteak beste, hauek apuntatu zituzten parte-hartzaileek:

Baloratu orain artekoa Beste herriengandik ikasi	Kataluniakoa berria ote den eta gu nola gabiltzan gai hauetan	Jendea ezagutu. Beste lekuetan zer egiten ari den	Elkar ezagutzea. Ezagunena konpartitu. Lan kolektiboa egin
Tamaina ezberdinetako herrien parte hartzeko sistema ezagutzea	Saio emankorra. Lan taldea sendotzeko aukera	Ikustera, ezagutzera zer lortu den	Aurrera begirako tresna baliagarriak ezagutzea
Elkar ezagutzea. Dakiguna konpartitu. Lan kolektiboa egin	Orain arte gindakoaren balorazioa eta ikastea gaintzekoengandik	Erantzun bila	Parte hartzeko lantaldeak osatzeko teknikak ezagutzea
Zerbait ikastera	Jendea ezagutu. Sarean egin dena ezagutzea	Ikasi eta ikasi	Ikastea, beste herrietako esperientziak ezagutu
GFAk eta herriak zer egiten duten jakitea	2013ko asmoak. Donostia trukatzeko herrien artea	Tamaina desberdinetako herrien parte hartzeko sistemak ezagutzea, eta aurtengo lanaren balorazioa jakitea	Tamaina desberdineko herrien parte hartzeko modu onak ezagutzea. Aurten egindako lana ezagutzea



Beste herrietan zer egin duten ezagutzea. Jakin-mina, hizlariarengatik	Jendeari entzun, konpartitu. Sarea egin	Ondo pasatzea ezer baino gehiago	Saio interesgarria eta ondo pasatzea. Egindako lana ezagutarazi, besteena ezagutu
Kontrastatu bakoitzaren kasuistika, elkarlana nola burutu, afari polita izatea	Ikastea ondorioakà aplikatu ahal izateko Jendea ezagutzea	Udal herrien gogoeta partaidetzari buruz	Azalpenak jendeak ulertu eta aintzat hartzea Harremanak egitea
Praktikan jarri diren esperientziak ezagutu Jendea dinamizatzeko ekin-tzak ezagutu	Taldeetan zer landu den jakiteko (talde txiki eta er-tainetan) Aurrekontuez besteko lan-taldeetan zer egin den jakin	Parte hartzeko prozesua martxan jartzeko. Prestakuntza bila	Tamaina ezberdinetako herrien esperientzia
Jakin nahia. Zer den parte-hartzea	Orain arteko ibilbidea. Nola bete jarraipena	Hizlariari entzutea zer ideia dituen edo, ea zerbait berria esaten duen	Tamainako herriek egin dutenari buruzko informazioa
2013ko plangintza finkatzea	Esperientziak jasotzea (parte hartzekoak)	Ikastea, esperientziak trukatzea	Ikastea, esperientziak trukatzea

Ondoren, Herritarren Partaidetzarako zuzendariak ongi etorria eman du, Topaketa kokatu du eta arratsaldean jorratuko diren gaien berri eman du. Azkenik, OscarRebollo aurkeztu du eta hitza eman dio.

2.4.2. Oscar Rebolloren hitzaldia

Interneten dago ikusgai, helbide honetan: <http://www.youtube.com/watch?v=bCJogFUNeA8>

2.4.3. Lantaldeen aurkezpenak

HERRI TXIKIAK

0.- PROZESUA. TALDEA ETA URRATSAK (ARKAITZ)

- 5 saio
- 20 partaide. 18 herri
- Partaideen profila: Alkateak eta gizonezkoak gehiengoa
- Prozesuaren urratsak: Zertan gabilta?; Erronkak; Ereduaren definizioa

1.- ZERTAN GAUDE? (IÑAKI)

ZERTAN GABILTA?

INFORMAZIO KUDEAKETA

Balorazio ona. Gardentasuna eta legitimitatea eskaintzen digu.

HERRI BATZARRAK

Gune nagusia dira. Hobetzeko aspektuak:

- Erabakigarriak izateko urratsak ematea
- Metodologia parte hartzailea (denek iritzia ematea)

**BATZORDEAK**

Herritarren parte hartzerako iraunkortasun falta antzematen da, kostatzen da batzordeetara jendea animatzea.

KULTUR EKIMENAK

Parte-hartzearen maila handiagoa izaten da hauetan (Autoantolaketa ereduak garatu ohi da hauetan-jaiak, aisia...)

ERABAKI ESTRATEGIKO ZEHATZAK

Ekimen parte hartzaile desberdinak garatu dira (Prozesua/Momentua)

FORMATU PARTE HARTZAILEAK

Noraeza daukagu eta ezagupen falta ere. Honetan trebatzearen garrantzia azpimarratzen da, formatu desberdinen araberako aholkularitza beharrezkoa dugu.

1.2.- Ondorioak

ORAIN ARTE LANDUTAKOAREN ASPEKTU POSITIBOAK	ORAIN ARTE LANDUTAKOAREN ASPEKTU NEGATIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> - Jendearen esker ona - Informazioa eta erabakiak partekatzea zilegitasuna eskaintzen (gertutasuna) - Herri txikietan ematen den komunikazio zuzena (ahoz aho) - Batzordeetan lana banatzea. - Parte hartzearekiko gogoia eta ilusioa udaletan 	<ul style="list-style-type: none"> - Jende gutxi eta normalean "beti berdinak" - Jendearen iraunkortasun falta - Gazteak erakartzeko zailtasunak - Batzarretan jendearen iritzia jasotzeko zailtasunak (metodologia) - Erabakiak hartzeko mekanismo gabezia

2.- ZER LORTU NAHI DUGU? (ARANTZAZU)

2.1.- PARTE-HARTZEAREN ERRONKAK

OROKORRAK/ESTRATEGIKOAK:

- Kultura parte hartzailea sustatu
- Herri sentimendua (komunitatea) hedatu
- Udaleko boterea herriratzea

KOMUNIKAZIOA:

- Deiak zabaldu etxe guztietara
- Ezer ez ezkutatu, beti egia adieraztea (Gardentasuna)
- Informazio zehatza ematea eta ahal bada aurrez aurreko komunikazioa lehenetsi

PARTE-HARTZEAREN FILOSOFIA:

- Parte hartzeko guneek erabakigarritasuna izatea
- Parte hartzeko prozesu iraunkorrak diseinatzea
- Herri plana landu, garatu eta datozen urteetan zer eta nola egin zehaztu
- Gai estrategikoen inguruan (hauek zeintzuk diren zehaztu) herritarren iritzia bilatu (Herri erabakiak)

MEKANISMOAK: (eta Metodologia)

- Gaien eta edukien erakargarritasuna sustatu
- Metodologia/teknika parte hartzaileetan sakontzea (herritarren iritzia biltzeko moduak bilatu)



- Batzar asko egin gabe urtean zehar, jende multzo garrantzitsua biltzea eta inplikazio maila “normal” bat lorzea edozein gaia dugula tartean. (Herri Batzarrak)

3.- NOLA LORTU NAHI DUGU? (GORKA)

3.1.- Egitura:

Udal egituretatik haratago herri/komunitate osoko antolaketa hartzen da aintzat.

- Udal taldea (Alkatea, zinegotziak, teknikariak...)
- Udal batzordeak (zinegotziak)
- Herri batzordeak (Herritarrek osatuak, jarduerak burutzeko)
- Herri Batzarrak. Herritarrekin komunikazioa eta eztabaidarako (eta erabakitzeko) gune nagusia
- Elkar-teak: nekazariak, ehiztariak, gastronomikoak, gurasoak, ganaduzaleak, kultur taldeak, jubilatuek, gazteak, emakumeak...
- Fundazioa (herri batzuetan, gutxitan). Herriko garapen sozio-ekonomikoa
- Egituraren izaera:
 - Irekiak eta zabalak
 - Ordezkatzaileak eta zehatzak

3.2.- Erabakiguneak:

ZER? GUNEA	NORK/NORTZUK
HERRI BATZARRAK (informatiboak+erabakitzzaileak): - Gai ekonomikoak (aurrekontuak+ordenantza fiskalak) - Gai eta proiektu estrategikoak - Proiektu bereziak - Gai gatazkatsuak (kanpotik datozenak -ikurrinen afera kasu;- edota herrian bertan sortzen direnak -herri bideak, hondakinak-)	- HERRITARRAK OROKORREAN - Udal ordezkariek
AGENDA 21/ HERRI PLANA (herriko planifikazio estrategikoak definitzeko tresna). Herri guztiak ez dira ideia honekin identifikatuta sentitzen, Agenda 21a ulertzeko eta ezartzeko modu desberdinak daude	- Herritarrak: sektoreka, zein lurraldeka - Teknikariak - Adituak (herriko adituak) - Udal ordezkariek (koordinazio rola, antolaketa rola)
HERRI BATZORDEAK: erabakitzzaileak bihurtu, muga bat arte (proiektu batzuk, nahiz sektore batetik etorri, herri gisan erabaki behar dira): informatu, proposamenak aztertu, eztabaidatu, erabakitzeko irizpideak adostu eta erabaki.	- Sektorean interesatutako pertsona eta elkar-teak+Udal ordezkariek
UDAL PLENOAK	- Beste guneetan landutakoa eta zehaztutakoa jaso, eta onarpen zein bide formala emateko
ALKATEA: dekretuz, afera txikiak	- Alkatea, aurrez adostutako gai eta aferak, aurrez adostutako irizpideen arabera
GOBERNU BATZORDEA: Plenora eraman aurretik udal barneko egiturak eta rolak informatu (gubernukideak, oposizioa, teknikariak...)	- Udal ordezkariek - Udal ordezkariek+herritar zehatzak (udal taldearen ingurukoak)



3.3.- Parte hartzeko mekanismoak:

ZER	PARTAIDEAK	ZERTARAKO
UDAL/HERRI BATZORDEAK	Sektoreka, herritar interesatuak, eta sektoreko elkarteak (baleude)+ Udal ordezkariak (hauek agian iraunkor-ki ez, baina bai urtean behin-bitan, adosteko baliabideak, e.a.)	<ul style="list-style-type: none"> - Herria bizirik mantentzeko - Herria-gizartea egituratzeko - Jendea herriko parte senti dadin - Sektoreen arabera, sektore programa beharrak garatzeko
HERRI BATZARRAK/AUZO BATZARRAK	HERRITARRAK OROKORREAN+ UDAL ORDEZKARIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Informatzeko - Proposamen ezberdinak aztertzeko - Eztabaidatzeko - Erabakitzeko (aurrez irizpide adostuen baitan)
PROZESU PARTE HARTZAILEAK, politikak diagnostikatzeko, definitzeko...	Herriko pertsona inplikatuak, proiektu, plan, programa zehatzak eta estrategikoak definitzeko	Proiektu, plan, programa zehatzak eta estrategikoak definitzeko
Galdetegiak, inkestak	<ul style="list-style-type: none"> - Herritar denak - Etxe denak 	<ul style="list-style-type: none"> - Egoera ezberdinak aztertzeko - Lehentasunak jasotzeko - Proposamenak, iritzia jasotzeko - Ebaluaketak, balorazioak jasotzeko
AGENDA 21 HERRI PLANA/PLAN KOMUNITARIOA	Herritarrak, zinegotziak, udal teknikariak, A21ko teknikaria Herritarrak, zinegotziak, teknikariak	<ul style="list-style-type: none"> - Planari segida eman - Herri Plana egituratu - Gogoeta eta planifikazio estrategikoa
AUZOLANA	Herritarrak	<ul style="list-style-type: none"> - Herri lanak burutu - Kontzientzia komunitarioa garatu
KONTSULTAK	Herritarrak	Erabakiak hartzeko
ALDIZKARIA	Herritarrak + zinegotziak	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko/udaleko informazioa - Elkartearen gunea - Herritarren txokoa
Udal plenoak		
Undal bandoak		
Webgunea		
Elkartegintza		



ZER BULTZATU/ZER INDARTU?	MAIZTASUNA
<p>*Ez dauden kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sektore egiturak sortzea (tokian tokikoak). Muga batekin, eta kantitateari baino, kalitateari lehentasuna emanez. - Aurrekontuak zehaztu batzordeei, autogestio bidea landuz(kopuru bat, proiektu bereziak sortuz gero, negoziazio puntualen bidez saiatu behar) - Definitu batzordeko erabakien mugak, baina erabakigune gisa ulertu ere, (muga batzuen barruan behar bada ere kasu batzuetan) - Herri batzordeen koordinazio gunea: gai ekonomikoak koordinatzeko; herri-komunitate ikuspegi lantzeko 	Batzordeen arabera.
<ul style="list-style-type: none"> - Informazio hutsetik haratago joatea. - Partaidetza presentzial gehiago (kuantitatiboa) - Partaidetza zuzen gehiago (ekarpen gehiago, e.a.) <p>*Eztabaida: mekanismo honetan informazioetik haratago Joan behar, baina batzar bakoitzak zertarako ematen duen ongi identifikaturik.</p>	Urtean bi gomendatzen dira
<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza prozesu osoan mantentzea - Partaidetza presentziala eta aktiboa - Erabakiak kontsentsuan hartzeko teknikak, mekanismoak, e.a. - Prozesu osoak izan daitezela: diagnostik, ekintza planetara eta kudeaketa partekatura ere. 	Behar denean
<ul style="list-style-type: none"> - Ekarpen indibidualak, bakoitzaren ekarpena - Gero, emaitza kolektiboak zabaltzea eta denei jakinaraztea 	Handia eta sakona, legealdian behin, hasieran Txikiak eta zehatzak urtean behin
<p>Lan-taldeak sendotu Foroak eraginkortu Partaidetza Lan-taldeak sendotu</p>	
<p>Auzolanerako deia Auzolanaren antolaketa</p>	
<p>Gaiak ondo aukeratu behar dira</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irizpideak zehaztu: <ul style="list-style-type: none"> · Herritarren %50ak parte hartzea (minimoa) · Informazio prozesu gardenak egotea aurretik · Herri Batzarretan adostasunik ez dagoen gaietan garatuko dira · Kultura politikoa bermatzea beharrezkoa da hauek eraginkorrak izan daitezen. · Beste irizpidea (proposamena): etxeak/familiak izatea bozka unitatea pertsonak izan beharrean; honela herriaren parte hartze ordezkarria lortzea posible litzateke, bestela zail samarra. 	
<p>Herritarren iritzia</p>	



4.- PARTE-HARTZEAREN ONDORIOAK (ARKAITZ)

- Parte-hartzearen garrantzia. Ilusioa eta gogoa
- Udala zabaltzen ari da. Eragile baloratua herrian
- Udal herrigintzan “betiko” jende berdinak parte hartzen duen sentazioa hedatua
- Ahoz ahoko eta etxez etxeko komunikazioa naturala da. Etxea da parte hartzeko unitatea (deialdietarako)
- Parte hartzeko eskaintza oso zabala dela, eta batzuetan dinamika gehiegi abiatzen dira
- Batzordeetako partaidetza hobetu beharra, ez baitaude sustraituak. Inplikazio gune iraunkorrak behar dituzte
- Herri Batzarrak tresna parte hartzaile nagusia dira. Metodologia parte hartzailetan trebatzeko beharra dago. Batzarrak erabakigarriak izateko urratsak eman nahi dituzte
- Auzolana funtzionatzen duen tresna da. Iraunkortu behar da, eta autogestio tresna gisa funtzionatu
- Herri Planak (epe luzeko estrategiak) herritarrekin egitearen beharra azpimarratzen dute

Ondoren, bertso hauek abestu genituen guztion artean:

Doinua: 8ko handia

*Eredu berri baten ametsak
Ilusioa piztu arren
Hastea beti zaila izaten da
Bai orain eta bai lehen
Araman hasi, Zerainen segi
Eta amaitu Orendainen
Herri txikitan parte hartzea
Bultzatzeko elkartu ginen*

*Hori dela eta bide horretan
Lanketa asko egin ditugu
Ta ikusten denez egin den lanak
Bere fruitua eman du
Eduki arren gure artean
Buruak adina aburu
Denen beharra daukagula
Garbi ohartu gera gu*

*Nahiz eta bozkaz hauta gaituzten
Gure herriaren ahaldun
Ez deu nagusi izaterik nahi
Baizik kide edo lagun
Herri txikiak izanagatik
Gogo handiz gau eta egun
Herriarentzat herritarrekin
Lanean jarrai dezagun*



HERRI TXIKI-ERTAINAK

0.- PROZESUA. TALDEA ETA URRATSAK (ARKAITZ)

- 5 saio
- 12 partaide. 9 herri
- Partaideen profila: Zinegotziak gehienak (PHaren nolabaiteko ardura). emakume/gizon oreka
- Prozesuaren urratsak: Zertan gabilta?; Erronkak; Ereduaren definizioa

1.- ZERTAN GAUDE?

1.1.- Ari gara... (Axier eta Aitor elkarrizketa)

DEMOKRAZIA ORDEZKATZAILEA	DEMOKRAZIA PARTE HARTZAILEA	DEMOKRAZIA ZUZENA
<ul style="list-style-type: none"> - Informazioaren kudeaketa - Herri batzarrak - Galdetegiak (proposamenak jaso) - Eragileekin bilerak 	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrekontu parte hartzaileak - Prozesu parte hartzaileak (erabaki zehatzak- armarria) - Batzordeak 	<ul style="list-style-type: none"> - Auzolana

1.2.- Ari gara... (Axier eta Aitor elkarrizketa)

INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> - Udala eta Herriaren arteko GERTUTASUNA lantzen - Herri txikiak izatea (elkar ezagutu) - Komunikazio bitartekoen GARDENTASUNA - Jai/Aisialdi... Batzordeek funtzionatzen dute - Herriko taldeekin Harremanak hobetu - PARTE-HARTZEA ulertzen goaz - Parte hartze PUNTUALERAKO erantzun ona 	<ul style="list-style-type: none"> - “Betiko jendeak” parte hartu - Parte hartze iraunkorra izateko zailtasuna - Dinamika gehiegi - Ikuspegi komunitariorik (herri kontzientzia) ez izatea - Herritarrengan parte hartzeko ILUSIOA ez piztea - Parte hartzeko FORMATUETAN argitasun falta - Alderdietatik haratago (Plenoa) ERABAKITZEKO zalan-tzak (Nork eta Nola hartu erabakiak?)

2.- ZER LORTU NAHI DUGU? (PILAR)

2.1.- PARTE-HARTZEAREN ERRONKAK

OROKORRAK/ESTRATEGIKOAK

- “DENOK GARA UDALA” sentimendua hedatu. HERRI kontzientzia
- Zentralizazioa puskatu. Dena Udalak ez egitea
- Parte-hartzearen onurak ikustarazi

UDALAREN GERTUTASUNA

- Udaleko ateak HERRITARREI ireki

INFORMAZIO/KOMUNIKAZIO ILDOA LANDU

- Informazio GARDENTASUNA



- Jendea erakarri. Deialdia, ordu egokia, interesa piztu

ELKARTEGINTZA SENDOTU

- Elkarrekin interakzioa hobetu. BETI BETIKOAK EZ izatea
- Gertutasuna bilatu sektore gehiagorekin (gazteak, etorkinak, ...)
- Parte hartzeko sarea osatu herrian

UDAL ERABAKIETAN PARTAIDETZA SUSTATU

- Udal erabakietan Herritarrak partaide sentiarazi
- Herri Batzarrak erabakigune izatea

3.- NOLA LORTU NAHI DUGU? (AXIER ETA AITOR ELKARRIZKETA)

3.1.- Egitura:

- Talde teknikoa (politikariak + langileak + laguntzaileak)
- Herritarrak erakarriko dituen batzordeak
- Herri Batzarrak (kasu batzuetan) udal gai orokorrak konpartitzeko espazioa.
- Parte hartzeko taldea (dinamizazio gunea)
- Elkarre/Sektoreen Koordinazio Gunea
- Herritarrez osatutako webgunea-aldizkaria (komunikazio batzordea)

3.2.- Parte hartzeko mekanismoak:

ZER	ZERTARAKO	ZER INDARTU/ZER BULTZATU?	MAIZTASUNA
ALDIZKARIA	- Informazioa eskaintzeko		
WEBGUNEA	- Informazioa eskaintzeko		
SARE SOZIALAK	- Informazioa eskaintzeko		
BANDOAK	- Informazioa eskaini - Deialdiak zabaltzeko		
UDAL BATZORDEAK	- Eztatxatatzeko - Erabakiak hartzeko - Informatzeko - Proposamenak bideratzeko	- Arautegian izaera IREKIA ematea Batzordeei - Herritarren presentzia handitu - Herritarrek gai-ordena (Zerrenda) egiteko aukera eman	15 egun-2 hilabete bitartean
HERRI BATZARRAK (Gai zehatzak-puntualak)	- Informatzeko - Eztatxatatzeko - Erabakiak hartzeko	- Parte hartzaile guztien iritzia biltzeko metodologian trebatu/sakondu - Kopurua hobetu - Deialdia hobetu: Goizez, Arratsaldez	Behararen arabera
AUZOLANA	- Herri lanak egiteko - Harremanak sustatzeko - Herri kontzientzia garatzeko - Dirua aurrezteko	Auzolanean ZER egingo den Herritarrek erabaki/proposatu (Batzordeetan edo Herri eta Batzarretan)	Beharra dagoenean



PROZESU PARTE HARTZAILEAK	- Proposamenak egiteko - Iritziak ezagutzeko - Erabakiak hartzeko		
INKESTAK/ GALDETEGIAK	- Herriko iritzi-termometroa - Proposamenak jasotzeko - Informazioa jasotzeko	- Inkestak jasotzeko moduak hobetzeko (era zuzenagoa)	
ERREFERENDUMAK/ KONTSULTAK	Herri osoari eragingo dionean Posizio garbia ez dagoenean Informazioa bermatzea ezin- bestekoa izango da -Erabakiak hartzeko		
UDAL PLENOAK	- Erabakiak formalizatzeko - Herritarrek mozioa aurkezte- ko aukera		2-3 hilabetero

4.- PARTE-HARTZEAREN ONDORIOAK (ARKAITZ)

- Parte hartzea balioan jartzen ari da udal politikagintzan
- Herritarrak eta udalen arteko gerturatzea sumatzen da
- Komunikazioa eta informazio gardentasunean urratsak ematen jarraitzea parte hartzerako oinarri bezala baloratzen da
- Udal herrigintzan “betiko” jende berdinak parte hartzen duen sentrazioa hedatua.
- Zentzu honetan, badaude gerturatzeko eta parte hartzeko zailtasuna eskaintzen duten zenbait sektore:
 - **Herriko elkarteekin** harremanak sendotu eta lan bateratua garatzea garrantzitsu ikusten da.
 - **Etorkinak** udal dinamikatik isolatuta daude. Gerturatze dinamikak abiatzea garrantzitsua da.
 - **Gazteak** aldentuta sentitzen dira udaletik eta bere dinamikara hurbiltzeko zailtasun handiak daude. Hurbiltze moduetan eta parte hartzeko formatuen inguruko hausnarketa beharrezkoa da.
 - **Emakumeak** parte hartzeko ohitura gutxiago dute.
- Parte hartzeko eskaintza oso zabala dela, eta batzuetan dinamika gehiegi abiatzen direla; udalak herritarrak parte hartzeko eskaintza gehiegizkoa dela diote batzuk
- Honegatik, oso garrantzitsua da errealismotik abiatzea
- Parte-hartzean iraunkortasuna lortzea oso zaila. Formatu puntaletarako erraztasun gehiago dago.
- Parte hartze iraunkorra gai zehatza edo sektorialetan garatzen saiatu behar gara, herritarren interesekin konektatzen delako horietan (hezkuntza, kultura, baserritarrak, ...)
- Batzordeetako partaidetza hobetu beharra, malgutasuna batez ere praktikan jarritz.
- Herri Batzarrek badute erreferentzi bat, baina elkargune gisa indartu behar dira. Tresna gisa balioan jarri eta hauetan parte-hartzea garatzeko moduetan sakondu.

HERRI ERTAINAK

Egindako bidea

Prezi bidezko proiektio baten bidez, taldeak egin zuen bidea errepasatu genuen: helburuak, eskema, bilerak, parte-hartzaileak, lortutakoa... (ikus txosten honetako 2.1.3.).

Parte hartzeko sistema

Ondoren, parte hartzeko sistemaren ezaugarriak eta edukiak zehazteko, ariketa bat egin genuen, azalpenekin eta guztien parte-hartzearekin.


4001-10.000 tamainako lantaldearen parte hartzeko sistema azaltzen hasiko gara orain, baina, egia esan, horrenbeste bilera eta lan egin dugunez, aurkezpen egunera nahiko nekatuta iritsi gara eta azalpenak emateko, zuen laguntza beharko dugu.

Hasteko kartel batzuk banatuko ditugu zuen artean, baina aurrerago azalduko dizuegu zertarako diren. Hartu bakoitzak kartel bat eta adi egon!

Orduan, has gaitezen bada, langetarekin... Lehendabizi, galdera batzuekin hasiko gara...

DEFINIZIOA ETA XEDEAK

Nola definitzen dugu parte hartze sistema?





DEFINIZIOA

- Sistema hau da elementuen edo prozesuen multzoa gure udaletan herritarrek parte hartzeko aukerak, bi-deak, kultura... areagotzeko edo bultzatzeko.
- Sistema hau tresna gisa ulertzen dugu.

Zein helburu ditugu parte hartze sistemarekin?

HELBURUAK

- Herritarren parte hartzeko kultura bultzatu eta areagotzea.
- Erabakitzeke ahalmena herriak izatea, herri biziak eta dinamikoak izatea.
- Udalen eta herritarren arteko harremanak eraldatzea, boterearen banaketa horizontalagoa izatea.
- Zubiak eraikitzea eta harremanak egitea udalen eta herritarren artean, eta herritarrak subjektu aktibo, inplikatu, konprometitu edo boteredun bihurtzea.
- Gure herriak behetik gora eraikitakoak izatea, herritarrek horretan dagokien erantzukizuna euren gain hartuz.

Definizio eta sistemarekin ados al gaude? Zerbait gehiago gaineratuko al zenukete? Oso polita, eta denok ados gaude esandako definizio eta helburuekin, ezta? Baina, hau guztia zertarako? Zer lortu nahi dugu?

LORTU NAHI DUGUNA

Gertutasuna

- Herritarrengana gerturatu nahi dugu, herritarrekin lan egin, elkarlanean. Horretarako:
 - Informazioa era ulergarrian eman behar zaie herritarrei eta gizarte-elkarteei.
 - Harreman pertsonala gakoa da.
 - Auzoak: aldi behin bilerak.
 - Herritarraren arretarako zerbitzuak ondo kudeatzea.

Kontzientziazioa

- Beharrezkoa da herritarren eta Udalaren arteko rol-aldaketa. Herritarrak ez dira zerbitzu-hartzaile soilak, udalak ez dira zerbitzu-emaile soilak.
- Kontzientziazioa pixkanaka lortuko dugu pausoz pauso.

Aniztasuna

- Gizarteko sektore guztiek parte hartzeko bitartekoak jarri behar ditugu.
- Herritarren aniztasuna areagotzeko hauek izango ditugu kontuan: ordutegiak, herritarren multzoak edo sektoreak identifikatu, umeekin/gazetxoekin ere hitz egin, haurtzaindegi-zerbitzua jarri martxan, komunikazioa ondo landu, hizkuntzak kudeatu, parte hartzeko era ez-presentzialak ere kontuan izan...

Konpartitzea

- Garrantzitsua da esperientziak konpartitzea.
- Baliabide ezin hobea izango da GFAko Sareak abian jarriko duen webgunea.
- Bereziki sustatu antzeko tamainako ordezkari politikoen eta teknikarien arteko harreman zuzen eta pertsonalak, esperientziak aurrez aurre bizitzeko eta ezagutzeko aukera.

Hurrengo zati honetan, osagaien inguruan hitz egingo dugu. Zein dira, gure ustez, parte hartzeko sistemaren osagaiak?



Baina honetarako zuen txanda iritsi da... tatxan... ez pentsa ahaztu ginenik! Dinamika sinple bat prestatu dugu. Jarraian, guk identifikatu ditugun osagaien inguruan azalpenak emango ditugu eta bakoitzaren gazta zati txiki batekin, PARTE HARTZE SISTEMA HANDI BAT osatuko dugu.

Beraz, osagaien inguruko azalpenak ematen hasiko naiz eta norberak bere gazta zatiko kontzeptuaz hitz egiten ari garela konturatzean, altxatu eta osatu gazta.

OSAGIAK

SUBJETUAK

Nork, zeinek hartuko du parte Sistema honetan? Guk subjektu hauek identifikatu ditugu

Udala

Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea da, eta are gehiago gerturatu nahi ditugu. Udalaren baitan, bi multzo bereizten ditugu: batetik, udal-gobernua eta gainerako alderdi politikoak; bestetik, udal-teknikari eta langileak, oro har, baita bideratzaileak edo kanpo-aholkulariak ere.

Herritarrak

Talde bezala antolatu egiten dira, eta rol-aldaketa eskatzen diegu.

Gizarte elkarteak eta eragileak

Gizarte-elkarteak eta -eragileak herri bizien adierazle dira eta sustatu eta lagundu egin nahi ditugu.

FASEAK

Parte-hartzea ez da berez edo espontaneoki gertatzen, parte-hartzea gertatzeko edo areagotzeko baldintza egokiak sortu eta horretarako urrats edo fase bakoitza landu eta zaindu behar da, herritarren parte-hartzea kalitatezkoa izan dadin.

Garrantzitsua da parte hartzeko prozesuetako fase guztiak ongi prestatzea: aurrelanak edo diseinua, prozesuaren garapena, emaitzaren deboluzioa eta prozesuaren balorazioa.

Besteak baztertu gabe, bereziki azpimarratu nahi dugu diseinuaren fasea.

UDALAREN KONPROMISOA

Argi adierazi behar zaie herritarrei zein den Udalaren konpromisoa Parte Hartzeko Sistemarekiko edo parte hartzeko prozesuekiko, zer baldintza bete behar diren eta zer mugaren barruan egin behar diren. Udalak adierazi behar du emaitza bere egiteko borondatea daukala, aintzat hartuko duela.

UDALAREN ESKU-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA

Sarritan zalantza sortzen da udal-ordezkariek (hautetsiek, teknikariek...) parte hartu behar duten edo ez. Bestalde, prozesua ez da Udal Gobernuarena soilik, eta zabalik egon behar du gainerako alderdi guztiei. Partaidetzazko prozesua antolatzen edo zirriborratzen hasten garenean honetaz hitz egin eta aztertu non eta noiz izan daitekeen baliagarria edo kaltegarria udalaren esku-hartzea.

EGITURAK

Herritarren parte-hartzea errazteko, sustatzeko edo bideratzeko bitarteko edo egiturak sortzen edo lehendik daudenak erabiltzen ditugu. Horietako batzuk Administrazioak aurreikusita dauzka, eta aspalditik erabiltzen dira; beste batzuk, berriz, ez, beharren seinale. Besteak beste, ondorengoak aztertu ditugu: batzorde informatiboak, alderdien aholkulariak, Zinegotzien Gunea, gaikako mahaiak edo foroak, bilera irekiak, demokrazia zuzeneko esperientziak...

UDAL BARRUKO KOORDINAZIOA

Udalerria eta biztanle-kopurua zenbat eta handiagoak, orduan eta konplexuagoak izaten dira sailak, batzordeak,

teknikariak, langileak... Parte hartzeko proiektuak bultzatzean, udala handia bada jende askori eragingo dio eta beharrezkoa izaten da sailek edo politikariek eta langileek elkarren berri izatea eta batez ere koordinatzea. Komeni da koordinazio hori iraunkorra izatea.

BALIABIDEAK

Parte-hartzea bultzatzeko, ezinbestekoa da behar bezalako baliabideak jartzea. Borondateaz gain, beharrezkoa da baliabide ekonomikoak, pertsonalak, materialak... jartzea.

ARAUDIA


Herri batzuek dagoeneko onartu dituzte parte hartzeko ordenantzak edo araudiak, herritarrek non eta nola har dezaketen parte legez arautu dute, baina egokiagoa iruditzen zaigu legealdiaren amaierarako egitea. Orain arte legeak ez dira muga izan parte hartzeko prozesuak gauzatzeko, parte-hartzea nola gauzatuko den idatziz jasotzea garrantzitsua da etorkizunerako, baina egokia litzateke prozesu batzuk aurrera eraman ondoren eta legegintzaldia amaitu aurretik egitea araudia.

PARTE HARTZEKO ERA-EZ PRESENTZIALAK

Teknologia berriek aukera ematen dute parte hartzeko beste era batzuk ere jorrazteko: sare sozialak, posta elektronikoa, webgunea... , hau da parte hartzeko era ez-presentzialak. Ondo ikusten dugu bide horiek indartzea, baina betiere presentzialen osagarri, presentzialari lehentasuna emanda.

BARNE-KOMUNIKAZIOA

Udalaren barruko komunikazioa oso garrantzitsua da parte-hartzea eta parte hartzeko prozesuak behar bezala gauzatzeko. Udal-langileei ez ezik, udaleko alderdi politiko guztiei eman behar zaie asmoen berri, eta ahal baldin bada guztien adostasuna bilatu, elkarlanean jardun.





KANPO-KOMUNIKAZIOA

Gure sisteman ezinbesteko tresna izango da kanpo-komunikazioa. Parte-hartzeak eta komunikazioak elkarrekin joan behar dute. Gakoa da gizarte ez-organizatura heltzea.

GAIAK

Zalantzak izaten dira zer gai landu behar diren parte-hartzearen bidez eta zein ez, nondik hastea komeni den... Batzuetan badirudi gai jakin batzuk baino ez direla lantzen parte-hartzearen bidez, eta denak landu daitezke: aurrekontuak, arau subsidiarioak.... Gaietan ez dugu ikusten mugarik.

Benetan garrantzitsua da poliki-poliki gauzak zabaltzen hastea. Gauzak ezin dira egin zuritik beltzera, Otik 100era, baizik eta pixkanaka, egiten direnak ondo egin eta betiere pixkanaka aurrerapausoak eman.

Ez da horren zaila izan ezta? Ikusi duzue, guztion artean, bakoitzak bere aportaziotxoa eginez, osatu dugu parte hartze sistema. Hala ere...

Prozesuaren amaierara iritsirik eta egindako bideari eta lanari begira, jabetzen gara ez dugula lana amaitu. Proposamen honek hainbat hutsune, gabezia, moldatu beharreko alderdi... badauzka, baina tresna irekia eta moldagarria den neurrian, etorkizunean hobetzeko aukera zabalik utzi nahi dugu, are gehiago laster egin nahi den topaketaren ondoren eta beste lantaldeetakoek zer proposatzen duten ikusita.

Lanean aritu garenon proposamena da 2013ko udara aldera saio bat edo batzuk egitea, elkartu eta aldaketak erabakitzeko.

Eta gure aurkezpenak arrastoa izan dezan, guztiontzako GAZTA HANDI bat ekarri dugu, eta gonbidatzen zaituztegu dastatzera, konpartitutakoa beti gozoagoa izaten baita!



HERRI HANDIAK

Nerearen aurkezpeneko ideia nagusiak:

Bidaia edo elkarrekin egindako prozesu honen sorburua herri handiek sare honetan azaleratutako behar/eskaera batean dago: “Herri handietako udalentsako herritarrek parte hartzeko sistema bat behar dugu” izan zen abiapuntua.

Hor planteatu zitzaigun lehen zalantza, lehen “zulo beltza”: zertaz ari gara? Zer ulertzen dugu herritarrek parte hartzeko sistema batez ari garenean? Elkarrekin egindako gogoetatik adostu genuen taldearen erantzuna: herritarren parte-hartzea udalaren eta herri-kudeaketan barneratzea ahalbidetuko duen estilo berri baterako sistema, egitura, arkitektura marraztea.

Eta segidan: nola marraztu sistema hori? Gure jardunean beste estilo bat aplikatu nahi badugu, zein arlo, zein elementu... dira landu beharrekoak, eta nola? Non dago errezeta?

Bideko iluntasunean 7 argi, gure ustez herritarrek parte hartzeko sistema batek (gaur garenetik eta dakigunetik) izan behar dituen 7 ardatz aurkitu ditugu. Argi edo ardatz horietako batzuentzat errezeta edo gomendio posible batzuk identifikatzeko gai izan gara; eta, aldiz, beste batzuetan, erronka berriak, landu beharreko galdera berriak sortu zaizkigu.

7 ardatz horiek dira:

1- HERRI-BISIOA. Herritarrek parte hartzeko sistema bat marraztu nahi duen udalak lehenik herri gisa bisio bat izan behar du, norantza bat.

2- UDALAK-HERRIAK PARTE-HARTZEA ULERTZEKO DUEN MODUA. Bisio horri lotuta, sistemaren oinarria izango den parte-hartzearen definizioa ere eraiki behar du. Udal-herri bakoitzak bere definizioa, propioa, irizpide batzuetan islatu daitekeena.

3- BARNE-ANTOLAKETA da 3. ardatza: ba ote dugu parte-hartzea kanporantz, herritarrengana zabaltzerik, “etxe” barruan, udal-antolakuntzan estilo berri bat landu gabe? Lanerako, erlazionatzeko eta elkarlanerako estilo berriak udalen barne-antolakuntzan ere barneratu behar ditugu, eragile guztien parte-hartzearekin. Eta arlo hau aurrera begira landu beharreko erronka potoloa dela deritzogu.

4-5- PLANGINTZA. Parte hartzeak plangintza eskatzen du; ezin da inprobisatu. Eta plangintza, gainera, 2 planotan: epe luzera eta epe motzera. Udal-kudeaketako beste hainbat gaitan egin ohi dugunez (euskara, kultura...), herritarren parte-hartzearen beraren epe luzerako plangintza osatu behar dugu (diagnosia, zer lortu nahi dugun eta horretarako landu beharreko lan-ildo nagusiak); eta, ondoren, epe luzerako ikuspegi hori urteroko eskalara ekarri, kontuan hartuz parte-hartzea zeharkako gaia dela. Ardatz hauetan, eta gaur dakigunetik, gure udalentsat baliagarria eta aplikagarria izan daitekeen metodologia edo prozedurak landu ditugu.

6- KANPO-ANTOLAKETA da azken aurreko ardatza. Alegia, udaletik kanpora, herrira begira, aurreko guztia ahalbidetzeko zein komunikazio-kanal eta -bide eta zein parte hartzeko espazio, gunek, prozesu, egitura... marraztuko diren. Ardatz honi forma ematea izan ohi da askotan gure kezka nagusia. Aldiz, gure iritziz aurreko guztiak baldintzatuko du kanpo-antolaketa, eta, gainera, udal-herri bakoitzak berea, propioa, marraztu behar du.

7- PERTSONAK: pertsonak dira, hain zuzen, sistemari lotura, izaera eta zentzua ematen dioten azken ardatza. Marrazten saiatu garen parte hartzeko sistemak pertsonekin eta pertsonentzat egiten dugu. Erakuntza hau ez da porlana eta ordenagailuekin egiten; pertsonekin eratzen da. Eta honek baldintzatuko ditu erabiliko ditugun kodigoak.



Alegia, laburbilduz:

Sareak eta hemen gauden herriek planteatutako eskaera aitzakia izan da sakoneko gogoeta bat egiteko, herri-tarrek parte hartzeko sistemaren inguruan. Eta gogoeta horretan aurrerantz egiteko 7 argi, 7 ardatz identifikatu ditugu, taldearen esperientzia eta gaur egungo ezagutza oinarri izanik: batzuetan erantzunez osatutako argiak; eta beste batzuetan galdera, erronka berriak planteatzen dituztenak.

Guretzat lortutakoa abiapuntu berri bat da; jarraipen bat, eskatzen duena. Eta horren lekuko izan daitezke bi-daiaren amaieran, ondorio gisa, gutako bakoitzak hitzez ateratako ondorioak: zuekin partekatzen ditugun mezuak, botilan, 7. izarrean ezkerretara.

Eta orduan, bideoa.



ZAZPIGARREN IZARREAN EZKERRERA

Ustez Lurrean geunden, Lurra planetako herritarrak baikara. Eta ustez dena argi zegoen, denak zuen zentzua gure munduan. Aldiz, Foru Aldundiak proposatutako erronka ez zen nolana hikoia, eta, horregatik, ordezkatzeko genituen herrirentzat baliagarria izango litzatekeen parte hartzeko sistema egokiena topatzeko asmoz, Google Maps-en azaltzen ez diren koordenadetan eta noranzkoetan barrena elkarrekin bidaiatzeari ekin genion.

Ohiko kontua, hasi eta berehala, gure arteko eztabaidan murgildu ginen, norberarena zela sistema egokiena defendatzen eta geurea zela bide zuzena ondokoari ikustarazi nahian. Konturatu orduko noizbait entzun, baina inoiz ikusia ez genuen zulo beltz batean murgilduta geunden.

Hasiera batean, gure herriak eta Lurra bera, Eguzki Sistemak biltzen zituela uste genuen. Eta sistema horretan



gu ginela sistemaren ardatzak, sistemari zentzua ematen genionak; gu ginela erdigunea eta gure baitan jira-birran bueltaka zebilela sistema guztia, baita ondoko bidaidea bera ere. Gure ahotsak zuela oihartzun gehien eta, beraz, entzuten ez zena ez zela.

Aldiz, eztabaidan zehar sakontzeak norberaren sistemaren arkitektura eta gakoak zeintzuk diren aztertzer eta argitzera eraman gintuen eta ohartu ginen ez ginela gu gure Munduko erdigunea, Lurra planeta Eguzki Sistemarena ez den bezala. Eta ohartu ginen, baita ere, gurea beste sistema zabalago baten baitan kokatutako sistema zela. Eta osotasun hori zela norberarenari egiazko zentzua ematen ziona.

Bidaia bat abiatu genuen, noranzko jakinik gabeko bidaia bat, nork bere ipar-orratza eskuan zuela eta zulo beltzean sartu ginen eta bertan galdu ere bai denok, une luze batean.

Zulo beltz hartan argi-izpi ezberdinak inguratzen gintuzten, baina bakar batek ez zuen nahiko indarrik denon artean eraiki eta jarraitu beharreko bidea argiztatzeko. Eta uste genuen guztien artetik bat aukeratu beharra genuela zulo beltzetik irteteko. Baina hain zen berezia guztiek zuten dir-dira eta distira, azkenerako, bat bakararra aukeratu beharrean, guztiak geure egitea adostu genuen.

Eta adostasun horrek, argi izpi ezberdinez osatutako adostasun horrek, bide berria erakutsi zigun eta espazio berri baterantz eraman gintuen, parte hartzeko sistema berri baterantz. Eta egia osoa esan behar bada, esango dizuegu ez dakigula zer izen duen eta non kokatuta dagoen, baina bertan ikusi duguna izugarri gustatu zaigula, hori bai, esan diezazukegu.

Baina non dagoen esateko tematzen bazarete, argi erantzungo dizuegu: begira ezazue zuen lepo gaineko zerura eta hantxe izango duzue! Zazpigarren izarrean ezkerrera!!

2.4.4. Talde-lanean

HERRI TXIKIAK. Topaketak. Lan Saioa.



Parte hartzaileak:

Iñaki Ugalde - Mutiloako alkatea
Erkuden Mendizabal - Itsasondoko zinegotzia
Gorka Egia - Orendaingo alkatea
Gregorio Iraola - Albizturko alkatea
Arantzazu Muñoa - Zeraingo zinegotzia
Josu Amilibia - Adunako alkatea
Garbiñe Mendizabal - Tolosaldea Garatzen
Enara Garcia - Aztikerreko dinamizatzailea

TAMAINAKO TALDEA AURRERA BEGIRA. ETA ZERTARAKO?

Orokorrean, taldea mantentzearen aldeko jarrera erakutsi dute partaideek, hemendik aurrera ikuspegi praktikoak lantzeko helburu nagusiarekin.

Zertarako talde hau?

Oso argi erakutsi dute teoriatik praktikarako jauzia egiteko urtea dela 2013a. Honako helburuak aipatu dira:

- Herri txikietan lantzen ari diren adibide praktikoak ikusteko eta horien gainean hausnarketa egin eta ikasteko.
- Innobatzeko. Modu berriak sortu behar dira, egiteko modu berriak.
- Herri txikietako estrategiak ezberdinak konparatu eta elkarrengandik ikasteko.
- 2013an lan-saio monografikoak egitea proposatzen dute, gai bat landu saio bakoitzean. Lantzeko dauden



gaien artean honakoak proposatu dira:

1. Herri-batzarrak
2. Agenda 21
3. Gazteak nola erakarri
4. Komunikazioaren gaia landu

Nola antolatu eta noiz

Orokorrean, 3 hilean behingo maiztasunarekin biltzea ondo ikusi da, baina beharraren arabera hori moldatu beharko dela aipatu da. Herri txikietakoak saltsa guztietan daude, eta ez dute baliabide askorik.

Hurrengo saioaren aurretik lan bat egin beharko litzateke. Teknikari batek emailez udal bakoitzean 2013an landuko diren gaiak jaso beharko lituzke.

Lehen saioan agenda 21aren gaia izatea proposatu da. Saioan bertan herri bakoitzak dituen zailtasunak, etab. agertuko dira eta elkarren artean gainditzeko aukerak aztertuko dira.

Saio honetan bertan hurrengo gaia aukeratuko da, eta lekua eta data zehaztu.

- Saioko data: lehena, martxoan azken asteburuan izatea proposatu da, larunbat goizean.

HERRI TXIKIAK+TXIKI-ERTAINAK LANTALDE BATERATUA

Proposamena aztertu da. Hona hemen partaideen iritziak:

Aukerak

- Elkarren artean konpartitzea. Arazoak, zailtasunak eta erronkak nahiko antzekoak dira.
- Freskura ere behar da, jende berria...

Oztopoak

- Jende gutxiago elkartzea eragin dezake.
- Lehenik txikiak diren besteengana iritsi beharko litzateke, eta gero zabaldu.
- Talde txikiak ere aukera ematen du, elkar ezagutzea, gertutasuna... lantzeko.

HERRI TXIKI-ERTAINAK. Topaketak. Lan Saioa.

Parte hartzaileak:

Axier Alustiza - Segurako zinegotzia
Idoia Lopategi - Segurako zinegotzia
Aitor Iraeta - Ormaiztegiko zinegotzia
Pilar Legarra - Asteasuko alkatea
Markel Azkargorta - Antzuolako udal langilea
Josune Marzol - Leitzako zinegotzia
Arkaitz Martinez de Albeniz - Aztikerreko dinamizatzailea

ZER IKUSI/IKASI DUGU BESTE TALDEETATIK?

- Planifikazioaren beharra. Udaleko gainerako arloekin egiten dugun moduan, parte-hartzearen urteko planifikazioa egin beharra dugu.



- Parte-hartzea zeharkako arlo gisa landu behar dugu. Udal-egituraren barne-koordinazioa sustatzea garrantzitsua izango da, ez soilik pertsona baten ardura izatea.
- Udal-teknikari eta -langileen trebakuntzaren beharra parte-hartzearen eremuan. Parte-hartzea ildo integrala eta zeharkakoa izatea bermatzeko teknikari/langileen inplikazioa sustatu behar dugu eremu honetan ere.
- Subjektuak ondo identifikatzea garrantzitsua izango da; alegia, parte-hartzea ezin da DENA DENENTZAT aplikatu, sektorialagoa izan behar du eta interes-taldeak ondo definitu.

HERRI TXIKI-ERTAINEN TALDEA AURRERA BEGIRA

ZERTARAKO BEHAR DUGU TALDE HAU?

Talde honen beharrak norabide honetan aipatu dira:

- Esperientziak partekatu. Herri bakoitzak garatu dituen esperientzia praktikoaren gainean azterketa eta hausnarketa egitea.
- Gure taldeko helburuak zehazteko, helburu partekatuak. Gure taldearen (txiki-ertainak) urteko helburuak (gutxieneko planifikazioa) zehaztu.
- Terapia egiteko. Dauzkagun hutsuneak partekatu eta elkarrengandik ikasi.
- Aholkularitza beharrezkoa dugu, gure aurrekontuek ez digute aholkularitza kontratatzea ahalbidetzen.
- Trebakuntza udaleko pertsona guztiei zabaldu (ordezkari politikoak, teknikariak, langileak...).

NOLA ANTOLATUKO GARA? NOIZ?

Hona hemendik aurrera talde hau antolatzeke aipatu diren zenbait irizpide:

- Izena aldatu behar diogu taldeari, "Txiki-ertain" kontzeptioak ez dio ondo erantzuten gure errealitateari.
- Talde honetan teknikari/langileak falta ditugu (orain artekoan).
- Urtean 4 bilera egitea egoki iruditzen zaigu.



- Harremanak Diputaziotik egitea baino eraginkorragoa da herrien artean eratzea sarea. Hurrengo bilerarako herri bakoitzak beste herri bat gonbidatzeko ardura hartu dugu.
- Ordutegiak. Prozesu honetan ibili garen gehienak liberatuak ez garez hain aintzat hartzea eskatzen da. Larunbat goizak dira aukerarik onenak, eta jarraian bazkaria egitea, harremanak sendotze aldera.
- Martxoaren 2rako jarri da hurrengo hitzordua.

HERRI TXIKIAK ETA TXIKI-ERTAINAK. TALDE BATERATUA SORTU

Herri txikiekin batera taldea sortzeko aukeraren aurrean, jarraian aipatzen dira jasotako iritziak:

- Herri txikien alderatuta berezitasun eta ezaugarri propioak dituztela baloratu da. Horregatik, ez da egoki ikusi bi taldeak bateratzea, baina taldea handitzeko zailtasunek jarraitzen badute, pentsatu beharreko aukera izango da.
- Talde honen (txiki-ertainak) hutsunea partaideen kopuru murrizta da.
- Beste batek adierazi du lanketa bateratua egin daitekeela (hausnarketa konpartituak), baina helburuak zehazteko orduan eremu propioa behar dutela herri txiki-ertainek.

Herri ertainak (4.001-10.000). Lan-saioa

Asistentzia

Aretxabaleta	x	Ana Bolinaga (alkatea)
Astigarraga	x	Maite Olaziregi (zinegotzia)
Deba		
Eskoriatza	x x x x	Beñat Herce (alkatea) Mari Carmen Arrieta (teknikaria) Igor Ezpeleta (zinegotzia) Arantza Unzueta (teknikaria)
Ibarra	x	Jesus Peñagarikano (alkatea)
Lazkao		
Legazpi		
Lezo		
Mutriku		
Ordizia	x	Izaro Insausti (zinegotzia)
Orio		
Soraluze		
Urnieta		
Urretxu	x	
Usurbil	x	Alaitz Aizpurua (zinegotzia)
Villabona	x	Nora Urbizu (zinegotzia) Joxean Cubero (teknikaria)
Zumaia	x	Maitane Agirre

(beltzez, lehendik noizbait arituak lantaldean; berdez, berriak)

**Egindako lana**

Berez, asmoa zegoen lantaldeak egindako sistema aztertzeke, osatzeko, aberasteko..., baina ez genuen izan denbora askorik. Horregatik, lehenengo sistemaren gainean aritu ginen, eta, ondoren, aurrera begira (2013ko bileretan) lantaldean zer gai landu genuen ikusi genuen.

Hasteko, tarte bat hartu genuen azaletik baldin bazen ere sistema aztertzeke, eta ondorengoak adierazi ziren:

- Definitu beharra dago zer ateratzen den parte hartzera eta zer ez? Horrek gero frustrazioa eragin dezake herritarrengan
- Parte hartzeko prozesuen legitimitatea edo zer den horietan erabakigarria, norena den ahalmena. Legitimitatea eman behar zaio guneari?
- Parte hartzen ere jakin egin behar dugu.
- Sistemak subjektuak definitzen direnean denak plano berean jartzen dira, eta ez da horrela, hor Udalak pisu handiagoa hartu behar du, eta definizio politikoa adierazi beharra dago.
- Adostu behar da zer den parte-hartzea, eskubidea.

Etorkizunera begira, ondorengoak adierazi ziren postiten bidez:

- Parte hartzeko guneen legitimitatearen mugak - Oscar Rebollok aipatutako harremanen estiloa pixka bat garatzea - Parte hartzeko sistema ez-presentzialen inguruko esperientziak azaltzea	- Parte hartzeko gune (batzorde, lantalde...) hauetan zer metodologia erabili - Arautu behar da? Nola? Udal-ordenantza behar da?	- Nola egin udaletik arloetako batzordeak sortu eta horiek boteretzea bermatzeko
- Diskurtsoa landu, adostu eta definitu	- Sakontzea - Balioak (integritasuna)	- Kalitatezko parte hartzeko prozesuak garatzeko estrategiak
- Estrategia eta modu edo tresnak ezagutu	- Arkitektura posible baterantz? Herria/taldeak piztu...	- Udal-batzordeetan nola sustatu parte-hartzea? Batzuetan, beti? Beharrezkoa al da? - Parte-hartzea erabakigarriak al dira? Zein da muga? - Zer bide ditugu, zer ekimen martxan jarri iristeko jendearengana?
- Nola egin parte-hartzea erakargarri, interesgarri?	- Nola iritsi jendearengana?	- Nola landu parte hartzeko kultura hori ordezkari politiko eta teknikarien artean?
- Deialdiak - Komunikazioa	- Parte hartzeko sistemak mugak dauzka? Eztabaida. - Etorkinak nola gerturatu, nola integratu, parte hartu, parte-hartzaile izan daitezten	- Udaletxearen barne-konbentzimentuak gai honekiko - Herritarren frustrazioa - Parte-hartzearen autonomia - Plangintza epe luzera
- Komunikazioa Feedbacka		

Parte-hartzaileek lanean jarraitzeko borondatea eta konpromisoa adierazi zuten, baita hurrengo bilerara joateko ere. Aurretik, sistema bidaliko diegu, patxada handiagoarekin aztertu eta ekarpenak egin ahal izateko.



HERRI HANDIEN TALDEA

1. TALDE-LANAREN HELBURUA

Topaketaren azken atalean herri handiekin partekatu dugun 45 bat minutuko tartean 2 helburu nagusi izan ditugu:

- **Sistemari buruzko gogoeta:** Hau da: gure taldean parte hartu duten herri handiekin marraztu eta eraikitako herritarrek parte hartzeko sistema xehetasun gehiagoz azaldu nahi izan dugu, eta honi buruzko gogoeta partekatua egin.
- **Aurrera begira, zer? Non sakondu?** Egindako lanari jarraipena emate aldera, 2013rako herri handi gisa zertan sakondu nahi luketen galdetu diogu taldeari. Eta bide batez, nola? Noiz bilduko da herri handien taldea? Zenbateko maiztasunarekin?

2. NORTZUK?

Gaurkoan herri handien taldean parte hartu dutenak dira:

Oscar Rebollo - Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea.

Olatz Mujika - Donostiako Udaleko teknikaria.



Zeilia Herrador - Beasaingo Udaleko zinegotzia.
Gloria Mendinueta - Hernaniko Udaleko zinegotzia.
Axier Jaka - Donostiako Udaleko zinegotzia.
Garikoitz Lekuona - Tolosako Udaleko teknikaria.
Luix Intxauspe - Hernaniko Alkatea.
Mertxe Gomez - Hernaniko Udaleko teknikaria.
Helene Armentia - Elhuyar Aholkularitza.
Larraitz Sarobe - Lasarte-Oriako Udaleko teknikaria.
Nerea Ollokiegi - Zarauzko Udaleko teknikaria.
Jabier Etxaburu - Zarauzko Udaleko zinegotzia.
Amaia Agirreolea - Donostiako Udaleko teknikaria.
Iciar Montejo eta Zorione Aierbe - Prometeakoak bideratzaile lanetan.

3. TALDE-GOGOETAREN ONDORIOAK

Aipatutako bi helburuei lotuta, zein izan da talde-lanaren emaitza? Zeintzuk parte-hartzaileek partekatutako iritziak, ikuspegiak, ideiak?

Sistemari buruzko gogoeta

Eranskinen jasotako 3 grafikoek lagundu digute, abiapuntu gisa, lantaldean eraikitako sistema modu zehatza-goan azaltzen. Eta ondoren, tertulia-moduan jaso ditugu horrek eragindako gogoetak.





- “Barnea-kanpoa txanpon baten bi aldeak dira. Barrukoa aldatu gabe, kanporantz erlazionatzeko modua aldatzea ez da posible.”
- “Garrantzitsua da herri-bisioaren ideia gehitzea parte-hartzearen kontuari. Herri gisa bisio, proiektu bat izan behar dugu, eta horrek ematen dio zentzua parte hartzeari; ez alderantziz. Parte-hartzea ezin da izan egiten dugunari zentzua emango diona.
- Gainera, bisio hori udal barruko zein kanpoko –finean udalerriko– eragileekin landua eta partekatua izan behar luke. Elkarrekin eraikitako bisio partekatu hori gakoa izango delako gero hori lortzera begirako egitasmo zehatzetan parte-hartzea lantzeko.
- “Aurrekoari lotuta, hauteskundeetan ere programa politiko batekin aurkezten bagara ere, behin hautetsi gairen hori barruko zein kanpoko eragileekin berreraiki behar dugu, guztiona egiten saiatu.”
- “Barne-antolaketari buruz: parte-hartzearen diskurtso politiko guztiekin partekatzea gakoa da. Zergatik, zertarako... helaraztea, eta ez soilik nola.”
- “Parte-hartzearen plangintzan hobetu nahi badugu, saia gaitezen eguneroko gauza txikietan txertatzen.”
- “Sistemaren aurkezpenean 7 ardatzak aurkeztu direnean, pertsonak jarri dituzue 7. izarrean. Nik 8. bat gehituko nioke, pertsonen izarra abiapuntuan ere.”
- “Eztabaidarako puntu garrantzitsua: parte-hartzea nola ulertzen dugu, Administrazio eta herritarren arteko erlazio guztia bezala edo soilik eduki politiko, ikuspegi kolektiboa duena?
- Desberdindu behar genituzke zerbitzuen kalitatea hobetzeko parte-hartzea (lehenengo ideia) eta demokraziaren kalitatea hobetzeko parte-hartzea (hau litzateke eduki politiko eta ikuspegi kolektiboari lotutakoa), lehenengoaren hautua egiteak gogaitzera eraman gaitzakeelako.
- Finean, erronka da: nola landu proiektu kolektiboak norbanako interesetatik abiatuz eta hauek gaintuz?”
- “Guzti honetarako pertsona aktiboak, parte-hartzearekiko jarrera hori izango dutenak behar ditugu. Eta hor hezkuntzak garrantzi handia dauka.”
- “Badugu nolabaiteko presio administratiboa ere, halako larritasun bat eragiten diguna: “parte-hartzea egin behar dugu”, presaka... Eta epe motzerako ikuspegi hau ez da onuragarria bisio bati, koherentzia bati lotutako epe-luzerako espazio eta aukerak planteatze aldera.”
- “Guzti hau ez da azkar ezta modu errazean lortzen. Epe luzerako bidea da.”

Aurrera begira, zer? Non sakondu?

Taldeak nahi modu argian finkatu du 2013rako lehentasuna: barne-antolaketan sakontzea.

Nereak lantaldeen aurkezpenean plazaratutako ideia dago behar honen atzean:

- “Ba ote dugu parte-hartzea kanporantz, herritarrengana zabaltzerik, “etxe” barruan, udal-antolakuntzan estilo berri bat landu gabe?”
- Lanerako, erlazionatzeko eta elkarlanerako estilo berriak udalen barne-antolakuntzan ere barneratu behar ditugu, eragile guztien parte-hartzearekin. Eta arlo hau aurrera begira landu beharreko erronka potoloa da.”

Nola? 2 hilabetez behin biltzea proposatu du taldeak, martxoan hasi eta urtean 5-6 saio eginez.

Hasitako bideak, jarrai dezala!
Eskerrik asko guztioi!!!



2.4.5. Saioaren balorazioa

Kokalekuaren arabera egin genuen. Baloratzeko alderdi bat proposatu genuen eta parte-hartzaileak kokatu egin behar zuten: gelaren pareta bat izango zen 0, eta beste pareta, parekoa, 10. Enara erdian jarri zen, 5a irudikatzeko.

Hauek baloratu genituen, hurrenez hurren:

Espektatiben betetze-maila

Hasierako ariketara bueltatu ginen, girotzekora, eta esan genien akordatzeko zer erantzun zuten espektatibez galdetutakoan... “Zenbateraino bete dira?”. Otik 10era baloratu behar genuen, kokalekuaren arabera.



Oro har, jendea gustura zegoen, hasieran zeuzkan espektatibak bete egin zirelako

Giroa

Lau ordu pasa egin genituen elkarrekin. “Nolako giroa izan dugu?”. Baloratu Otik 10era, kokalekuaren arabera.



Parte-hartzaile guztiak bat etorri ziren: oso giro ona izan genuen saio osoan.



Erabilgarritasuna

Oscar Rebolloren hitzaldia, lantaldeen aurkezpenak, talde-lanean... Gauza asko ikusi genituen lau orduotan. “Zenbateraino izango dira erabilgarriak?”. Baloratu erabilgarritasuna Otik 10era, kokalekuaren arabera.



Jendearen ustez, oso gauza erabilgarriak ikusi eta aztertu genituen, norberaren herrirako aprobetxatzeko modukoak.



Gipuzkoa
BERRIA



***Parte Hartzeko sistemak eta
II. topaketa***

2012ko ekaina - 2013ko otsaila

